

puntu

Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartek, 30 urte

Carla Morera futbol jokalariai elkarriketa

Interkooperazioa, elkartasuna eta gizarte eraldaketa bultzatzen dituen Mundukidek, 20 urte / 4



'Afrikanerrak' eleberria aurkeztu du Eneko Barberenak, kontakizun futurista eta distopikoa / 40

Pentsiodunek dei egin dute azaroaren 16an egingo diren manifestazioetan parte hartzeko / 5

Kargutik kendu ostean, "minduta" doa Jorge Davila, Mondra futbol taldeko entrenatzaile ohia / 14

Juanjo San Sebastian mendizaleak 'El viaje' filma eskainiko du Oñatiko Mendi Astean eguaztenean / 34

SINADURAK



IRATI ITZIAR / 6



NAGORE INURRATEGI / 8



MARIKE RUIZ DE AUSTRI / 12



MIEL GURIDI / 35



AINZANE OIARBIDE / 48



ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK 2019



BERRIRO ERE BOTATZEKO GERTU

50.000 debagoiendar daude deituta domekako hauteskundeetarako; botoa ematera joateko dei egin dute alderdi nagusiek / 2

Miren Gorrotxategi (Elkarrekin Ahal Dugu), Joseba Agirretxea (EAJ), Mertxe Aizpurua (EH Bildu) eta Maria Luisa Garcia (PSE-EE), Goiena telebistan, martitzenean. XABIER URZELAI

2 mó/99€
graduatu, erreflexuen/
aurkako lenteekin

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE
Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com



Agirretxea eta Aizpurua ezkerrean, eta Garcia eta Gorrotxategi eskuman, Goiatz Arana aurkezlearekin, Goiena telebistako platoon. GOIENA

Bigarren itzulira, "indarberrituta"

Goiena telebistako 'Harira' saioan egindako mahai-inguruan izan dira aste honetan Joseba Agirretxea (EAJ), Mertxe Aizpurua (EH Bildu), Maria Luisa Garcia (PSE-EE) eta Miren Gorrotxategi (Elkarrekin Ahal Dugu), etzi egingo dituzten hauteskundearen harira

Eneko Azurmendi ARRASATE

EAJren Gipuzkoako zerrendaburua da Joseba Agirretxea; EH Bilduren Gipuzkoako zerrendaburua Mertxe Aizpurua; PSE-EEren Gipuzkoako zerrendako bigarrena Maria Luisa Garcia; eta Elkarrekin Ahal Duguren Bizkaiko zerrendako bigarrena Miren Gorrotxategi.

Negoiazioek huts egin ostean, aurtengo bigarren hauteskundeak izango dira, eta Agirretxeak dio euren planteamenduak "indar gehiagoz" defendatzeko arrazoia dela hori. "Hauteskunde hauek eskuinari beste aukera bat ematen diote; dohainik, gainera. Espainiatik hodei oso beltzak datozela ikusirik, gure autogobernuaren eta euskal gizartearen eta ekonomia defentsa sutsua egingo dugu".

Aizpurua "indarberrituta" ikusten du EH Bildu, eta "aire beltzak" datozela uste du honek ere. "Euskal subiranisten ahotsa Madrilen izango da eta herri egiten gaituen hori guztia defendatzera goaz. Aire beltzak dira, erasokorrak, eta beharrezkoa da gure ahotsa hor izatea".

Garcia, bestalde, aitortu du "arrisku handia" dagoela presidente eta presidenteorde zentralista, atzerakoi, matxista, homofobo eta xenofobo bat izateko. "Euskadiri dagokionez, gure autogobernua ere kolokan egongo litzateke kasu horretan. Beraz, irmotasun demokratikorako borondatea jarri nahi dugu herritarren zerbitzura".

Gorrotxategik krisi ekonomikoan jarri du arreta. "Gure arrazoiak are tinkoago dira. Krisi larri bat dator, eta horren aurrean ikusi behar da nondik datorren murrizketa. Orain arte, behetik egin izan dira murrizketa horiek, eta aberatsen eta

pobreen arteko aldea sakondu egin da. Horri aurre egitea da gure lehentasun nagusia".

Katalunia eztabaidagai

Katalunia ere izan dute hizpide. "1978an konpondu gabe geratu ziren gauzek oraindik ere konpondu gabe dira, eta ezgonkortasun politikoa ere horren adibide bat da. Arazoa ez dugu euskaldunok eta kataluniarrek, Espainiak dauka arazoa, eta ez da gai horri aurre egiteko".

Garcia erantzun dio Torra presidente den bitartean "nekez" hasiko dela konpontzen Katalu-

"KONSTITUZIOA EZIN DA IZAN MOMENTURO ESTU DAUKAZUN TRAJE BAT"

JOSEBA AGIRRETXEA (EAJ)

"AUZITEGI BEREZIAK BEHAR DITUGU, INDARKERIA MATXISTA LANTZEKO"

MERTXE AIZPURUA (EH BILDU)

"TORRA PRESIDENTE IZANDA, NEKEZ KONPONDUKO DA KRISI POLITIKOA"

MARIA LUISA GARCIA (PSE-EE)

"FEMINISMOAREN PRINTZIBIOEKIN HEZI BEHARKO GENUKE GIZARTEA"

MIREN GORROTXATEGI (ELK. AHAL DUGU)

niako elkarbizitza eta krisi politikoa. "Alderdi independentistek jarrera pragmatikoagoa hartu beharko lukete, autogobernari buruzko elkarriketa bultzatzeko, eta ez Espainiako eskuin nazionalista elikatzeke".

Arazoa politikoa dela dio Agirretxeak, eta modu politikoan konpondu behar dela. "Pedro Sanchezen konponbidea da erreferenduma delitu moduan kontsideratzea Zigor Kodean. Espainiako Estatuak arazo bat du. Konstituzioa elementu zabal-tzailea izan behar da, eskubideez baliatu behar dena, eta ez une oro estu daukazun traje bat".

Gorrotxategik, azkenik, ohartarazi du plurinazionaltasuna ukatzen dutenek errealtate bat ukatzen dutela. "Lehenik, aitortza egin behar da, eta gero, politikariok tresnak jarri behar ditugu estatu ereduak errealtate konkretu batera egokitzeke".

Pentsioak blindatu beharraz

Gaur egun urgentzia handiena duen gaia pentsioa da, Aizpurua esanetan. "1.080 euroko gutxieneko pentsio hori ziurtatu egin behar da, blindatu, eta gizarte-segurantzaren transferentzia ere gureganatzea beharrezkoa da, Espainiaren menpekotasunean ez dugulako aurrera egingo".

Agirretxeak aitortu du pozten dela hori entzuteaz EH Bilduren ahotsa. "Eusko Jaurlaritzari transferitu egin behar zaio gizarte-segurantzaren gestioaren erregimena", dio.

Pentsioak KPIaren arabera eguneratzea eta Konstituzioan blindatzea ere lehentasunezko zatia jo du Garcia, "garapena eta jasangarritasuna lortzeko".

Sistema inposatzaile fiskal progresiboa eratu behar dela azaldu du Gorrotxategik. Horrez gain, iruzur fiskala amaitzea ere inportantea dela dio. "Banka publiko bat eta energia sortuko duen enpresa publiko bat sortzea proposatzen dugu. Iruzur fiskalaren %70 aberats handien eskuetatik dator".

Indarkeria matxistaren aurka

Agirretxearen ustez, inportantea izan zen indarkeria matxistaren gaia legeetara eramatea. "Pauso inportantea eman zen horrekin, baina ez dakit legearen aplikazioa ez ote den izan huts egin duena. Gizarteak inoiz baino kontzientziazio handiagoa dauka, baina



erantzukizun politikoa ere bada-go. Azken hilabete hauetan aukera egon da Zigor Kodea aldatzeko, eta ez da egin".

Garciaren ustez ere denbora galdu da azken hilabete hauetan Zigor Kodea aldatzeko. "Pena handiz esaten dut hori. Gauza asko egin dira, baina ez da denborarik izan denera iristeko".

Indarkeria matxistari aurre egiteko gako garrantzitsuenetako bat hezkuntza da, Gorrotxategiren esanetan. "Gizartea feminismoaren printzipioekin hezi behar da. Estatuak dirua bideratu behar du indarkeria matxistaren kontra behar diren neurriak jarri eta aldaketa sakonak eman ahal izateko". Garciak erantzun dio zentzurik zabalenean hartu beharko litzatekeela hezkuntza. "Medikuak, epaileak eta polizia bera hezi egin behar dira gai honetan, oraindik komeriak daudelako behar den moduko arreta eskaintzeko".

Aizpuruak dio zigorgabetasuna bukatu behar dela. "Hezkuntza oso garrantzitsua da, noski, baina, horrez gain, uste dugu espresuki gai hauek lantzeko auzitegi bereziak egon beharko liratekeela", nabarmendu du.

50.176 debagoiendar daude botoa ematera deituta domekan

Gipuzkoan hamabi zerrenda aurkeztu dituzte, guztira, Senaturako zein Kongresurako; Araban, berriz, hamaika

E.A. ARRASATE

Antzuolan 1.625 herritar daude botoa ematera deituta domekan; Aramaion, 1.166; Aretxabaletan, 5.434; Arrasaten; 17.301; Bergaran, 11.520; Elgetan, 858; Eskoriatzan, 3.200; Leintz Gatzagan, 179; eta Oñatin, 8.893 herritar.

Bi boto eman beharko dituzte herritarrek. Gutun-azal zurian Kongresurako botoa sartu beharko da eta Senaturakoa, bestean. Gipuzkoan hamabi zerrenda aurkeztu dituzte, bai Kongresurako eta baita Senaturako ere. Araban, berriz, hamaika. Izan ere, Escaños En Blanco-Aulki Zuriak alderdiak ez du zerrendarik aurkeztu Araban.

EH Bildu nagusi apirilean

Alderdi gehienek apirileko zerrendak errepikatuko dituzte hauteskunde hauetan, bai Gipuzkoan eta baita Araban ere.



Emakume bat botoa ematen. E.A.

Apirilean, hain zuzen, EH Bildu izan zen indar nagusia Debagoienean, 12.609 botorekin. EAJ izan zen bigarren indarra, 12.055 boto eskuratuta. Elkarrekin Podemosek 5.431 boto lortu zituen; PSE-EEK, 5.085; eta alderdi popularrak, 966.

EH Bilduk ekitaldia egin du Bergaran eta EAJk, Arrasaten

Batak erabakitzeke eskubidearen defentsan jarri du fokua eta bestea, berriz, gizarte kohesioan zentratu da

E.A. ARRASATE

Mertxe Aizpurua EH Bilduren Gipuzkoako zerrendaburua Bergaran izan zen domekan, eta "erabakitzeke eskubide demokratikoa Madrilen defendatzeko konpromisoa" hartu zuen, "Bartzelonako adierazpena izenpetu zuten Estatuko herrietako gaitzatzeko subiranistekin batera". Era berean, azaldu du autodefinizio eskubidearen defentsa, preso politikoen askatasuna aldarrikatzea eta politika sozial aurrerakoiak bultzatzea izango dela zeregina Madrilen.

Bestalde, Arrasaten ere izan da Aizpurua asteen, eta Espainiako hautagai nagusien arteko debatea izan du hizpide. "Agerian geratu da Madrildik ez dela euskaldunon beharrentzako konponbiderik etorriko. Euskal Herriko errealitatetik kanpo daude", azpimarratu du.

EAJ

Astelehen goizean, bestalde, Aitor Esteban eta Joseba Agirretxea izan ziren Arrasaten besteak beste, EAJren Bizkaiko eta Gipuzkoako zerrendaburuak, hain zuzen. Estebanek nabarmendu du EAJk estatu osorako erreferentzia diren neurriak sustatzen dituela berdintasunaren arloan. "Kontratazio pleguetan, enpresa batek gure administrazioarekin kontratatu gure badu, ziurtatu behar du soldatak eta lan-baldintzak berdina izango direla emakume zein gizonentzat".

Horrez gain, azaldu du Euskadi eredugarria dela gizarte kohesioa lortzen eta EAJ dela bermerik handiena kohesio hori lortzeko. "Ezin da legediaren kontra joanez, Madrildik gauza bat egin gura izatea, guri kompetentziak kenduz".

Mertxe Aizpurua

Jon Iñarritu

Gorka Elejabarrieta



Bozkatu



ehbildu

Erabaki

BAIETZ!

20. urteurrena ospatzen ari da aurten Mundukide

Fundazioa 1999an sortu zen, "interkooperazioa, elkartasuna eta gizarte eraldaketa oinarri hartuta"; atzo, eguna, egin zuten urteurreneko ekitaldi nagusia, Ane Irazabal kazetariak zuzenduta, sortzaile, bazkide, boluntario, kooperante ohi, eta abarrekin

Eneko Azurmendi ARRASATE

Kulturateko klaustroan egin zuten atzo ekitaldia. Ane Irazabal kazetari arrasatearrak gidatu zuen saioa eta, besteak beste, Mundukideko sortzaileak, bazkideak, boluntarioak, kooperante ohiak, erakunde eta kooperatiba bidelagunetako ordezkariak, gobernuz kanpoko erakundee-takoak eta Euskal Herriko garapen lankidetzako erakundee-tako hainbat pertsona izan ziren bertan.

Horrez gain, Aba Taano taldeak gospel kontzertua eskainiko du gaur Amaia antzokian, 20:00etan (Ikus 40.orria).

Jarduera handituko du

"Interkooperazioa, elkartasuna eta gizarte eraldaketa" oinarri hartuta, hamar herrialdetan lan egin du Mundukidek urte hauetan, eta 250 pertsona aritu dira zeregin horretan, langileak zein boluntarioak kontuan hartuta, 300 elkarte baino gehiagorekin.

2018an egindako lanak, adibidez, 75.000 pertsonaren bizitzetan eragin zuen, fundazioaren esanetan. Orain arte egindako lanaz "harro" azaldu dira, baina egungo egoeraren aurrean "erronka berriak martxan ipintzeko beharra" nabarmendu dute. Diote asko dagoela egiteko oraindik.



Mundukideko hainbat ordezkari, Mozambiken, hango herritarrekin. MUNDUKIDE

"Batetik, aberastasuna gutxi batzuen eskuetan kontzentratzeak pertsonen arteko desberdintasunak handitzen ditu. Bestetik, planetaren aurkako mehatxuak klima aldaketa eta migrazio krisia ere hor ditugu".

Hala, plan estrategiko bat ezarri dute, eta datozen hiru urteetan jarduera handitu egingo dute Brasilen eta Mozambiken. Horrez gain, Afrikan jadanik martxan dute Etiopiako programa eta Malawin laster jarriko dute indarrean. Amerikan, aldiz, Kolonbian eta Ekuadorren ere

hasi dira lanean. Aldi berean, emakumea indartzeko ahalegina egingo du Mundukidek, "bere erakundean, hegoaldeko programetan eta lan egiten duen erakundeekin genero ekitatea indartzuz".

Eskerrak guztiei

Azkenik, fundazioak eskerrak eman gura izan dizkie urte hauetan guztietan laguntzaile izan dituzten guztiei. "Kooperatiba, enpresa pribatu, boluntario, kooperante eta langile, babesle eta erakunde publikoei".



Industrialdeak izango duen itxura. PULSAR KREAN

Fagorren Garagartzako gun e izandakoa birgaitu egingo dute

Mondragon Industrial & Logistic Park izena edukiko du eta lanak 2020an zehar bukatzea aurreikusten dute

E.A. ARRASATE

Fagor Etxetresnek, 2011n, Mondragon korporazioko kide den Ekimen Berri Kudeaketa SLU enpresari laga zizkieten bi industria-nabe horiek, 55 milioi euroren truke, eta diru hori erabili zuten zorra amortizatzeko. Era berean, industrialde horien errenta-hitzarmena sinatu zuen Fagorrekin Ekimen Berri Kudeaketarekin zazpi urterako, eta horiek pasatakoan erosteko aukera zabalik utzi.

2017ko irailean aurkeztu zuen Fagor CNAk enpresa desagiteko erregulazio espediente, eta, bi urte baino gehiago geldirik egon ostean, aktibitate industrial berreskuratuko du Fagor Etxetresnen industrialdea izandakoa, hura balioan jartzea erabaki du eta Ekimen Berri Kudeaketa enpresak.

Hala, Pulsar Krean enpresak hamar milioi euroko inbertsioa

egin du eta Mondragon Industrial & Logistic Park ezarriko du Garagartzako gun horretan.

Lehen eraikinak 23.950 metro koadro ditu; horietatik 3.400 metro koadro bulegoei eta zerbitzuei dagokie eta 27 gun e eta bederatzi sarbide ditu; bigarrenak, 30.600 metro koadro, horietatik 1.400 bulegoak eta zerbitzuak, 30 gun e eta zortzi sarbide; hirugarrenak 2.700 metro koadro ditu, guztiak bulegoak. Inguruan, gainera, 620 aparkaleku daude.

Gunea, bezeroen esku

Industrialdeak eta logistikoak garatzen ditu Pulsar Kreanek, eta, enpresaren esanetan, lantegi bat berreskuratzeko modurik onena gun e hori berriro ere lantegi izatea da, edo, behintzat, produkzioari lotuta egotea. Modu horretan, bezeroen esku utziko du gun e berria, salduz edota errentan emanda.



Pentsiodunek azaroaren 16rako egin dute deia

Eskualdeko pentsiodunek asteon egin dute agerraldia Bergaran, eta enegarrenez aldarrikatu dituzte pentsio duinak. Erretiratuei babesa emateko, azaroaren 16an hiriburuetan egingo diren manifestazioetara joateko dei egin diete debagoiendarrei

Maialen Santos BERGARA

Merkatariak, gazteak, sindikatuak, dendariak... elkartu dira asteon bailarako pentsiodunekin, Bergaran. Pentsio Sistema Publikoa bermatuta ez dagoela salatzeke baliatu zuten hitzordua, eta pentsio duinak aldarrikatu zituzten, beste behin ere. "Bi urte igaro dira Estatuko zein hemengo mobilizazioei esker aldarrikapenetako batzuk lortu genituela, baina ez dira finkatu", adierazi zuen Bergarako Asanbladako erretiratu Roberto Kareagak, hizketaldia abiatzeko.

Erretiratuen aldarrikapenek "bere horretan" jarraitzen dutela ekarri zuen gogora, eta pentsio sistema publikoaren beharra adierazi zuen. 1.080 euroko gutxieneko soldata, 1.200 euroko lanbidearteko gutxieneko soldata, KPIaren arabera pentsio igoera soldatetan eta pentsioetan dagoen genero arrakala behingoz gainditzea eskatu zuten.

Azaroaren 16an, hiriburuetara

Hego Euskal Herriko pentsiodunek udazkenean eta neguan "borrokan" jarraituko dutela iragarri zuten agerraldian. Haatik, debagoiendar guztiei dei egin zieten datorren astean, azaroaren 16an, hainbat hiritan –Gasteiz, Donostia, Bilbo, Iruñea

eta Eibar– arratsaldeko bostetan egingo diren manifestazioetan parte hartzeko. "Debagoiendarrei dei berezia egiten diegu Donostiako Bulebarrean arratsaldeko bostetan hasiko den manifestaziora joateko", esan zuen Kareagak, irmo. Horretarako, autobusak antolatuko dituzte; herrietatik irtengo dira, 15:30ean.

Emakumeak, kexu

Bergarako Asanbladako pentsiodun Itziar Usandizagak bailarako emakume pentsiodunen ize-nean hitz egin zuen: "Asko miseriazko pentsioekin bizi gara, eta, borrokatu arren, alde batera utzita gaude". Gaineratu zenez, generoaren arrakala emakumeek jasaten duten beste "diskriminazio" bat da. Soldata eta kotizazio baxuagoek, aldi baterako kontratuek, karrera laboral laburrek, enplegu azpibalaratuek... eragiten dute emakumeen pentsioa gizonezkoena baino baxuagoa izatea, azaldu zuen emakumeen bozeramaileak. "Emakume pentsiodunek batez beste gizonek baino %35 gutxiago kobratzen dugu", argitu zuen. 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta soldatetan eta pentsioetan dagoen arrakala behingoz bukatzea eskatu zuen Usandizagak bere hizketaldian.

Instituzioei eskaera

Beren "eskubideen alde" borrokan jarraitzeko, abenduaren 12an Gasteizko eta Iruñeko parlamentuen aurrean elkarretaratzea egingo dute Hego Euskal Herriko pentsiodunek, 2020ko aurrekontuetan herritarren "beharrizanetara egokitu" daitezela instituzioei eskatzeko.



Eskualdeko pentsiodun eta eragileak, Bergaran egindako agerraldian. M.S.

Roberto Kareagak azaldu duenez, "persona nagusi guztiek ekonomikoki bizitza duina eta autonomia bermatuta izan dezaten eskatzen dugu", eta horretarako,

diru multzo bat horretara bideratu dezatela gura dute. "Hitzetatik ekintzetara" pasatzeko unea dela gogora ekarri zuten agerraldian bildutakoek.

Alberto Santanaren berbaldia UNEDen ikasturte hasieran

Bergarako UNEDek ikasturte hasierako ekitaldi ofiziala egingo du gaur, egubakoitza. Alberto Santana UNEDeko irakasleak emango du ikasturte hasierako hitzaldia. *Elogio de las Humanidades en la edad del conocimiento* izango da berbaldiaren izenburua. Ekitaldian, era berean, azken ikasturteko graduatuei diplomak banatuko zaizkie.

Horren ostean, Bergarako UNED Patronatua osatzen duten erakundeetako agintariek hartuko dute hitza. Gorka Artola Bergarako alkateak eta Markel Olano diputatu nagusiak, alde batetik; eta Ricardo Mairal UNEDeko errektore gorenak eta Iñaki Esparza Bergarako UNEDeko errektoreak.

Ekitaldiari amaiera emango zaio Alberto Santanaren berbaldiarekin. Ekitaldia Seminarixoa aretoan izango da, 20:00etan hasita.



ZABALIK

IRATI ITZIAR

Ez da hainbesterako

Garai zalapartatsuak bizi ditugu, irakurle, eta egunero badugu berriren bat asaldatzen gaituena.

Hara azkenetako bat: INEk jakinarazi du hainbat telefonia operadoreri gure datu batzuk erosi dizkiela eta mugikortasunari buruzko ikerketak egiteko erabiliko dituela.

Derrepentean, iskanbila: "Gure datuak erosi? Saldu? Baimenik eskatu gabe? Gure datuak geureak dira!".

Baina, ba ote dakigu zer diren datu horiek? Eskuen artean egunero, une oro, aldi oro, *toki oro* erabiltzen dugun mugikorrak nola funtzionatzen duen eta ze datu biltzen dituen ulertzen al dugu?

Zerk haserretzen gaitu?

Gure intimitatea urratua sentitzen dugu?

Ala, hirugarren batek negozioa egitea *gurea* den zerbaitekin?

OSTRUKARENA EGITEN DA: EZER TXARRIK GERTATUKO EZ DELA PENTSATU ETA AURRERA...

Orokorrean, ez dakigu ze datu diren, nola sortzen diren, nola bildu eta ze tratamendu ematen zaien.

Are gehiago, benetan inporta al digu?

Aipatutako datuok

guretzat benetan hain garrantzitsuak balira, horien inguruan gehiago jakingo genuke, ezta?

Teknologia hain azkar egiten du aurrera, egunean egotea ia ezinezkoa egiten zaigu; beraz, estrategia orokorra ostrukarena egitea da. Ezer txarrik gertatuko ez dela pentsatu eta aurrera...

Jarrera honek aspaldiko pelikula bateko pertsonaiaren esaldi ezaguna ekarri dit burura, bere –ustezko– inozentzia zuritzeko "ezezagunen ontasunarekin beti fidatu naiz" esaten baitzuen. Baina, hori al da aukera bakarra? Egoera onartu eta ezezagunen *esku* jarraituko dugu?

Gaiaren inguruko interesa edo kezka piztu badizut, pozik gelditzen naiz.

Eta, gehiago jakiteko, ez galdu Joxe Rojas-ek *Teknopataren txokoa*-n ematen dituen argibideak. Azken finean, ez baita hainbesterako, ala bai?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Tinder Sorpresa

JOSEBA BARANDIARAN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Tinder edo Kinder? Izenburua irakurrita pentsatu duzunak, nago, asko dio zure adinaz.

Noiz idatzi zenuen azkenekoz eskuz gutun bat, zigilua jarri eta postaz bidali? Eta jaso?

Inoiz halakorik egin baduzu bederen!

Sarri aipatzen da digitalizazioak ekonomian, industrian, lan merkatuan izango duen eragina, robotizazioa eta beste.

Gutxiago entzuten da sare sozialek, Tinder (edo KaixoMaitia!) modukoek bereziki, geure harremanetan

eragin aldaketez eta datozenez.

Neure adin eta gorako gehienek, bikote egonkorra badute bereziki, arrotz eta arraro irizten diote Tinder moduko zerbaiti; baita FB,IG eta gainerako sare sozialen erabiltzaile izanda ere.

Sorpresa, neuretzat, 30 urtetik beherakoetan dator: maiz eta naturaltasun osoz dute barneratua jende berria, ezberdina, ezagutzeko ematen dituzten aukerak, zabaltzen dituzten ateak.

Eta ongi pentsatuta, ez da harritzekoa.

Tresna digitalok erabiltzeak oso azkar ahalbidetzen du bakoitza non dagoen jakitea; fisikoki nahiz harremanen

"merkatuan". Horrek hainbat eragozpen, irtenaldi, jai-giro neketsu, ke ordu, etilismo, neke eta hurbilpen kostu ikaragarri gutxitzen ditu.

Banandu den edonork, are gehiago haurrik badu, sobera daki zertaz ari naizen.

Stanford unibertsitatean ere igarri diote: AEBetan on line gertatzen dira bikote heterosexual gehien arteko lehen kontaktuak.

Honek dakarren aldaketa kulturala gure kale, jai eta tabernen funtzioan kasu, ikaragarria da.

Beti ere, jakinik, harreman digitalen eltzea, analogikoaren sutan frogatu beharko dela. Oraingoz!

goiena“
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Berezibar,
Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

BERBAGAI

"Barruak astindu zaizkigu Jardunaldi Feministetan"

LARRAITZ ARANDO ARETXABALETAKO TALDE FEMINISTA

Eneko Azkarate ARETXABALETA
3.000 emakume inguru batu dira asteburuan Durango egin dituzten Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan. Hamaika igaro dira era honetako azken topaketa egin zutenetik, eta Euskal Herri osotik joandako talde feministetako kideak elkartu dira Durangon, *Salda badago* lelopean. Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan elkarriketatu dute Larraitz Arando, Durangotik bueltan. **Mahai inguruz, tailerrez, hitzaldiz betetako hiru egun izan dira Durangokoak... Zuk zeuk nola bizi izan dituzu?** Esperientzia indartsua izan da, eta barruak astinduta, biziberrituta, itzuli naiz. Pozik. Zirrargarria izan da. Etxeko lanekin etorri gara. **2008an egin ziren era honetako azken jardunaldiak. Nabari zen hori?** Bai. 11 urtean gauzak asko aldatzen dira. Egoera bestelakoa da. Bi urte egon dira jardunaldiak prestatzen.



Larraitz Arando, oraingo astean, Aretxabaleta Arkupen. MIRARI ALTUBE

Parte-hartzaileen aniztasuna nabarmendu daiteke? Adinaren eta jatorriaren aldetik bai, Euskal Herriko leku ezberdinetakoak batu garelako. Gehienak, dena den, azal zurikoak ginen. Jende

askok kanpoan geratu behar izan du toki muga dela eta. Orain, Durangon landutakoa herrietan lantzea komeni da. **Debagoienak ere izan du presentzia Durangon... Zer-nolakoa?**

Herri bakoitzetik talde bat. Aretxabaletatik joan naiz ni. Gure taldean adin askotarikoak batu gara. **Zertan jarri duzue fokua?** Bost ardatz ezberdin landu ditugu. Honako hauek: bizitza erdigunean; deskolonizatzea; gorputzak eta sexualitatea; indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzen; eta mugimendu feministaren barrura begirakoa. Eta bost ardatz horien bueltan hausnartzea zen helburua. Hasieratik adierazi zaigu hura ez zela feminismoa kontsumitzeko toki bat, ez zela espektakulu bihurtzeko gune bat. Entzutera, berba egitera eta hausnartzera joan gara hara. Prozedura izan da: ponentzia bat aurkeztu zen eta horren ostean hainbat tailer antolatzen ziren ezaugarri eta profil askotariko emakumeekin. Ikuskizunak ere izan dira. Izan ere, ez dugu astirik izan denbora alferrik galtzeko. **Autokritikak ere izan du lekua.** Migratuak diren emakumeek edo arraza jartzen diogun emakumeek osatutako mahai bat antolatu da, eta horrek sortu du zeresan handia. Hemen emakume zuriok, gehiengoak, beste batzuen aurrean ditugun pribilegioez ere hausnartu dugu. Mahai

horren helburuetako bat zen zuriok interpelatuta sentitzea. **Aurrera begira, zein ildo markatu dira?** Feminismo talde saretu eta antolatu baten alde lan egin beharraz jardun zen. Niri balio izan dit, esaterako, jarduteko eta hausnartzeko gauza deserosoak onartzeko gertu dagoen feminismoaz. **Talde feminista ezberdinak ezagutzeko eta elkarren berri izateko ere bai?** Bai, eta, batez ere, ikusezinak ziren kolektiboak ezagutzeko, kolektibo ezberdinen lanaren berri izateko eta talde horiek ze aldarrikatzen duen ezagutzeko... **Ze kolektibo ikusezin dira horiek?** Arrazializatutako emakumeak, ijitoak, aniztasun funtzionala edota sexuala dutenak, emakume baserritarren, gazte feministena... Haien proposamen eta aldarrikapenak gertutik ezagutzeko aukera izan dugu. **Bosgarren Jardunaldi Feminista hauen ostean, orain zer?** Talde ezberdinek ildo ezberdinak markatu zituzten. Ildo nagusiak geroago etorriko dira. Eta biolentzia mota ezberdinei zelan aurre egin ikasteko tresnak eta baliabideak ere landuko dira.

ITURRI ONETIK

Aitor Borobia, 'Theslaria' telesailean

ETB1ek *Theslaria* telesaila estreinatuko du abenduan, eta telesail horretako protagonista bat izango da Aitor Borobia aktore bergararra. Bost atal izango ditu. 1976ko gertaera bat du oinarri telesailak. Hain justu ere, 1976an Basauriko kartzelatik ihes egiten ahalegindu zen preso talde baten –ETAkoak, komunak...– gorabeherak. Segoviako kartzela zaharrean grabatu dute –Imanol Uriberen *Segoviako ihesa* grabatu zen tokian–. Jabi Elortegi da zuzendaria.

ALBISTE IZAN ZEN



GOIENA

2008-11-08

Arrasateko lau baserritarri aitortza

Herriko lau baserritar omendu zituzten Arrasateko Baserritarren Azokan. Izan ere, lau omenduek mende erditik gora zaroatzaten azokan baserriko produktuak saltzen. Honako hauek izan ziren omenduak: Bidasoro baserriko Kontxita Berezibar, Artia baserriko Gregori Markaide, Artazubiagako Dominga Galdos eta Ikutixoko Maria Arana. Hain zuzen, Arrasateko Udalak plaka bana eman zien lau emakume baserritarrei.

HAU BE BADOGU!

Hauteskundeak, '#A10' traolarekin

Hauteskondeez gain, ia ez da beste gairik egon aste honetan sare sozialetan:
@Loren810: "Akaso demokrazia baten ahalmena da erabaki gabe herria isilarazi? Gailendu ez dadin gezurra. Eskema okerrak salatzen #A10".
@xa2: "Ez zaitez etxean gelditu, etorkizuna jokoan dago #hauteskundeak #bozkatu #A10".
@Gasteiztar1: #A10-eko hauteskundeetako nire porra: PSOE 120, PP 94, VOX 37, UP 35, CS 17, MP 6, ERC 14, JXCAT 7, CUP 4, EAJ 6, EHB 5, N+ 2, BNG 1 eta CC 2"



DEBAGOIENA ERALDATZEN

NAGORE INURRATEGI MU-KO IRAKASLEA ETA IKERLARIA

(Des)berdintasunak ikusteko (dis)gaitasuna

Amaia Etxaberi irakurri nion entzutearen garrantziaz atal honetan bertan eta entzutea ari dela izaten lehenengo urratsa eraldaketako gakoak identifikatzeko. Ahots aniztasunari leku ematea eta denok badugula zer kontatu irakurtzeak irribarretxo atera dit eta *Bai, horixe! Herrixa danok osatzen dou eta aurrera ittekotan danon artian in bihakou!* Guztion ahotsetatik eraldaketan urratsak egitea da bidea; eutsi horri, beraz!

Nik, baina, ikustean jarriko dut arreta-gunea. Begiratzan dugunean nor ikusten dugu? Nola ikusten dugu?

Pasarte bat Debagoieneko herri bateko taberna buelta batean: herrian ezaguna den pertsona bat kalean gora edanak kalte eginda dator eguerdirako. Osasun mentaleko arazoak ditu eta norberaren zaintza alde batera utzita du. Zer da ikusten duguna? Pertsona? Osasun mentaleko arazoa? Edanak eragindako kaltea?

Beste pasarte bat Debagoieneko herri bateko igerileku batean: garun paralisia daukan ume bat igeriketa ikastaroan dago beste ume batzuekin batera. Taldekatzean, adin fisikoari dagokiona baino txikiagoekin jarri dute. Bera pozik doa igerilekura, salto eta jolas egiten du beste umeekin. Guraso batzuk kexatu dira beraien umeak distraitzen dituela. Zer da ikusten duguna? Umea? Garun paralisia? Umea gure umearentzat mehatxu?

Beste pasarte bat Debagoieneko herri bateko jatetxe batean: garun paralisia daukan heldu bat beste heldu batzuekin afaltzen. Menua aukeratzeraikoan heldu guztiei zer nahi duten galdetzen die zerbitzariak, baina garun paralisia duenari ez, besteei begiratu eta galdetzen die zer nahi

duten. Zer da ikusten duena? Pertsona? Aulkia? Garun paralisia?

Eta beste milaka pasarte Debagoieneko edozein herritako edozein txokotan... Zer gertatzen da, baina? Dagoeneko ez ditugu txisteak egiten desabantaila egoeran egon daitezkeen pertsonekin... diskurtoan oso integratuta daukagu gizarte moduan bidea gizarte inklusibo bat lortzea behar duela izan, non aniztasuna balioan jartzen den eta gizarteko kide guztiak onartuak diren. Baina zer da bestearen presentziak nigan sortzen duena?

Beldurraren begirada

Gizarte edo komunitate inklusibo batek pertsona jarri behar du erdigunean, pertsona bakoitza eta pertsona guztiak. Pertsona ardatza izanik eta bere baldintza-gabeko onarpena oinarri, komunitateak testuinguru abegikor eta segurua izan behar du. Baldintza-gabeko onarpenerako, baina, prest gaude? Zer da bestearen presentziak nigan sortzen duena?

Nago sarritan ezezaguna den horrek sortzen duen beldurra dagoela begiratu eta ezin ikusi horretan. Ezezaguna zaigu garun paralisia eta aurreiritziek baldintzatzen dute gure begirada. Begirada lanbrotsua izan ohi da eta askotan DIS-gaitasunak ikustera garamatza. Egin ezin dituenekin osatzen dugu zerrenda eta gizajoa dator gure burura. Dagoeneko bigarren mailan kokatu dugu, gu baino okerrago bizi den pertsona bat ikusten ari gara, bizitza krudela tokatu zaiola...

ZER DA IKUSTEN DUGUNA? PERTSONA? OSASUN MENTALEKO ARAZOA? EDANAK ERAGINDAKO KALTEA?



JOSH APPEL / GIMK

Horrela eraikitzen badugu pertsona horren irudia, zer da bere presentziak nigan sortuko duena? Garbi daukat begirada landu behar dugula, eta begirada aldaketa da agendan jarri beharko genukeen lehentasunezko gaia, benetan nahi badugu komunitate inklusiboetara pausoak eman. Nola ikusten dugun bestea oso baldintzatzailea da eta pertsonen sinesmen eta jarrerak oztopo nagusi dira komunitate inklusiboen bidean. Eta nola egingo dugu begirada honetan lana? Ezezagunera gerturatuz adibidez? Edo ezezaguna gerturatuz?

Pasarte bat Debagoieneko edozein herritako lagun talde batean: txikitatik kuadrillan adimen urritasuna duen kide bat egon da. Kide hau ez da izan adimen urritasuna duen pertsona bere kuadrillan, bera izen propioa izan duen pertsona bat izan da eta besteek bezala lagun taldean eskubideak eta betebeharrak izan ditu. Egun helduak dira,

ZER DA IKUSTEN DUGUNA? UMEA? GARUN PARALISIA? UMEA GUREARENTZAT MEHATXU?

eta bakarrik bizitzeko aukera dauka laguntza profesionalari esker eta adi dagoen sare bat duelako, eta komunitatea sostengu delako behar dituen laguntzak emateko, bera ere komunitatean badelako nor eta komunitateari ekarpena egiten diolako. Zer ikusten dugu kasu honetan? Izen propioa? Eskubideak eta betebeharrak? Sostengua eta laguntzak? Ekarpina?

Beste pasarte bat Debagoieneko edozein herritako futbol kantxa batean: arratsaldeko 5ak aldera inguratzen doaz 8-12 urte tarteko ume zein gazteak; Lur, Intza, Omar, Gorka, Gonzalo, Itsaso, Jose Alberto, Miren, Asif, Maite, Mikel ... eta zer ikusten dute umeek? Jolasa eta plazera? Taldeak osatzeko kide kopurua? Zer ikusten dugu helduok? Pakistandarrak, babesgabatasun egoeran bizi diren bi ume, ume gor bat eta gure umeak.

Zer da bestearen presentziak nigan sortzen duena? Begiratu behar dugu

PERTSONA IKUSTERA IRISTEN GARENEAN HASIKO GARA ONARPENERAKO URRATSAK EGITEN

beldur barik eta aztertu zer den besteak nigan sortzen duena eta galde diezaigun gure buruari, zergatik? Pertsona ikustera iristen garenean, orduan hasiko gara onarpenerako urratsak ematen. Eta, bai, hortik aurrera hitz egingo genuke inklusioaz eta beste guztiaz...

Auzoan hazitakoa naiz eta pribilegio bat izan dela esan behar dut; izan ere, auzoan bizi eta arnastu dut komunitatea. Etxetik jaso dut auzokoen ardura nire ardura ere badela eta auzoan beti babestua nengoela sentituz hazi naiz, adin tarte batean kontroletik ere bizi izan dudana babesa, noski. Komunitatea sarea da eta sareak babestu egiten du. Komunitatea berau osatzen duten kide guztien zaintzaz arduratzen da eta zaintzatik dator kide guztien ongizatea. Honek esan nahi du ardura hartzen dugula inguratzen gaituen kideekiko eta honek esan nahi du bestea badela nor guretzako. Komunitatean denok dugu lekua, guztiok gara nor, eta halaxe bizi eta sentitu izan dut auzoa eta halaxe egin nau auzoak. Nago, baina, komunitateak krisian daudela, komunitetik gutxi daukagula egun, auzoetan ere; zuri-zuriak etxe gehienetan, bi.

Arrasateko Iturbide egoitzari esker ona

FELIX GOIKOLEA ZABALA
LARRABE-IRUSTATAR ETA GOIKOLEA-
ZABALATAR SENDIAREN IZENEAN
ARRASATE

Zaintza da pertsona bati eman diezaiokezun oparirik onenetarikoa. *Zaintza* hitzak baditu bere baitan zenbait kontzepzio. Elikadura, garbitasuna, osasuna, segurtasuna, fisikoa zein afektiboa. Zaintza, ardura, harremana –hartu-eman–, denbora, tempoak, eskaintza... dedikazioa. Pertsona bakoitza mundu bat da, egoera bat. Pertsona orok du kalitatezko bizitza duina izateko eskubidea. Baina ez dugu denok lortzen eta ez dugu denok kalitatezko zaintza emateko ahalmenik ere. Azken urtean, gure senitartekoa den Mari

Luisa Arrasateko Iturbide egoitzan egon da. Hasierako egunetatik ez dute bera bakarrik zaindu, bere ingurukoak ere zaindu gaituzte. Doluaren eta banaketaren sentimenduak kudeatzen lagundu, keinu fisikoak – irriak, besarkadak...–, telefono dei lasaigarriak, eskatu gabeko azalpen goxoak familiari, bera han uztearen sentsazio gazia, eta bera etxean baino askoz hobeto ikustearen goxoa bidelagun. Urteak eman ditu horrelaxe. Fisikoak beheraka egin ahala, dependentzia areagotu ahala, zaintza doitua eta mimatua eman diote bere familiakoak izan ez eta, urteen poderioz, hala izan diren pertsona eskuzabal, enpatiko eta profesionalek. Zuek egin duzue, beste inork ez, bere familiakoak

garenok ere egin ezingo genukeen akonpainamendua, zaintza. Esker mila, bihotzez, Maria Luisa eta han egon diren, dauden, guztiak, salbuespen gabe, espezial zaintzeagatik. Har itzazue, arren, hitz xumeok, esker on infinitu bezalaxe. Egunez egun, gauez gau, lan eta jaiegunez, 365 egunez, horren dotore, bikain eta profesional, gu eta gure ingurukoak zaintzeagatik. Biba zuek! Esker mila Arrasateko Iturbide egoitzari.

Eskerrik asko, 'Bautista leprosua'

XABIER URIBESALGO BIKUÑA
BERGARA
Badakit, bai, ordaindu nuela... bere lana dela, eta abar. Badakit, bai.

Baina baita ere badakit lan egiteko modu eta jarrera asko daudela. Aurtengo Arimen Gaua bizitzeko asmoz eta nire herriarekin nuen zor zahar bat kitatzeko asmoarekin eman nuen izena Ugutz Tours-ek antolatutako bisita gidatu antzetzuan. Egia esan, beti interesatu zaizkit historia eta gau magiko hauek duten *zerbait* berezi hori – Arimen Gaua, San Juan bezperako gaua, eta abar–. Bi zita egin zizkigun gure lagun *Bautista leprosua*-k, gaueko bederatzieta eta gaueko hamaiketan. Ni neu hamaiketakora azaldu nintzen, gaua bere esentzian bizitzeko asmoz; ez zidan, ez, *Bautista*-k hutsik egin! Hantxe azaldu zen. Kartzela zaharraren alboko eskailerak jaitsi eta goiko plazako iturri albora deitu gintuen, kanpaitxo

baten soinura, frantziskotarren abitu antzerakoa soinean. Beste guztia ez dizuet kontatuko. Zuek bizitzeko gonbita bai, ordea, egingo dizuedala. Harrigarria izan zen, benetan: espeziala. Gau hartan, nire etxerako bide luzean, gauza bakarra izan nuen buruan: zelako herri polit eta interesgarria daukadan! Benetako bidaia egin genuen bertan geunden guztiok, Bergarakoak guztiak. Herritarrok harritu bagintuen, zer eragingo ote dio kanpotik datorrenari... Zortekoak gu kanpotarrek topatzen duten lehenengo pertsona Ugutz bada. Benetan herri aktibo eta bizia eduki nahi badugu, horrelako artistak zaindu behar ditugu. Eskerrik asko, *Bautista!*

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna
Eskertza-gutuna
Eskari-gutuna
Idatzi zure gutuna eta bidali *gutunak@goiena.eus* helbidera!
Erantzun-gutuna
Aldarrikapen-gutuna
Kexa-gutuna

Albina Madinabeitia, Arrasateko harribitxia

Ez zen erraza izango XX. mendeko hasierako emakume batentzat musikan ibilbide profesionala egitea, baina biolin-jole arrasatearrak lortu zuen; ondo lortu, gainera. Hilaren 13an, hari buruzko hitzaldia egingo du Jose Mari Velez de Mendizabalek

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Ziurrenik, Arrasatek inoiz eman-dako musika instrumentu jolerik handiena"; hala definitzen du hari buruzko hitzaldia egingo duen Jose Mari Velez de Mendizabalek. Bere blogean murgiltzea nahikoa da Albina Madinabeitia (1909-1996) parekorik gabeko biolin-jolea izan zela jakiteko: 9 urterekin Eibarko Udalaren urrezko domina jaso zuen, 17 urterekin Sarasate saria -Espainia mailako garrantzitsuena- eta Espainiako Orkestra Nazionalen jo zuen lehenengo emakumea izan zen.

Txiki-txikitatik "arrakastatsu"

Albinaren aita Nazarioren bigarren abizena Altube zen, eta Seber Altuberen lehengusua zen. Beraz, lotura hori ikusita, musikarekiko grina etxetik zetorkiola esan daiteke. Bere eskue-tatik pasa zen lehen instrumentua mandolina izan zen, 6 urterekin. Baina, hasi eta gutxira,

bere osaba batek esan zion instrumentu hori "txotxokeria" hutsa zela, eta aitak biolin bat lortu zion. Segituan hasi zen instrumentua dominatzen, eta 9 urterekin Bartzelonako Kontserbatorioan ikasteko beka bat eman zion Foru Aldundiak. Bartzelonako eskola prestigiotsu horretako irakasle zen Clemente Ibar-guren donostiarrak Gatzagan egiten zituen oporraldiak. Haren aurrean jotzera eraman zuen aitak, eta irakaslea txundituta uztea lortu zuen.

Adin xume horrekin Eibarren egindako bi kontzerturi esker, herri armagineko agintariak Eibarko urrezko domina eman zioten ikusleak zur eta lur utzi zituen musikari gazteari. Bartzelonatik Madrilera egin zuen salto 13 urterekin, Antonio Fernandez Bordas biolin-jolearen alboan ikastera, eta handik lau urtera Sarasate saria irabazi zuen; Espainia mailako garrantzitsuena biolin-joleentzat. Irra-

tiko zuzeneko emanaldiak egin zituen eta Pilar Caverio piano-jolearekin batera kontzertu ugari egin zituen Espainian zehar. 1932an ezkondu zen, baina gerra eta erbestea tarteko harremana gaizki amaitu zen. Musikalki geldialdia izan zen Madinabeitiarentzat, baina 1939an Espainiako Orkestra Nazionalen sartzeko oposizioak gainditu zituen; lehen biolin-jole postua eskuratu zuen. 1977ra arte aritu zen bertan, Europako, Amerikako eta Asiako oholtzetan kontzertuak jotzen. Erretiratzean Arrasate Musikalen jardun zuen irakasle, herriko ikasleei bere talentua transmititzen.

Biolina izan zen bere salbamendua. Gaztetan kazetari batek galdetu zion zer egingo zukeen biolinik gabe, eta haxe izan zen haren erantzuna: "Ziurrenik, Union Cerrajerako langile batekin ezkonduko nintzen eta seme-alaba ugariaren ama izango nintzen".



Albina Madinabeitia umetan, gaztetan eta erretiratu ostean. J. M. VELEZ DE MENDIZABAL



Ana Ugaldere hitzaldia, jendetsua

Asteazkenean egin zuten aurtengo hitzaldi zikloko lehena. Ana Ugalde historialariak XV. mendean emakumeek abesten zituzten bi eresi aztertu zituen, Arrasaterekin lotutakoak, eta horiek bertsolaritzarekin duten antzekotasunean sakondu zuen.



XABI VALLINA

Baiezkoa 2020ko Euskaraldiari

Euskaraldiaren bigarren aldira begira lehen herri batzarra egin zuten urriaren 30ean Arrasaten. 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo da, eta 2019 abenduaren 3an egingo den Euskararen Egunean presentzia izango du. 60 euskaltzale inguruk

hartu zuten parte Euskaraldiaren berri jakiteko saioan, eta aho batez erabaki zuten Arrasatek bertan parte hartzea. Herriko entitateak eta norbanakoak inplikatzeko izango da erronka nagusietako bat, eta hori lortzeko herri batzorde bat eta talde motor bat eratuko dituzte.

Garaia parke teknologikoak atek irekiko ditu zapatuan

10:30ean irekiko da esparrua, eta 11:00etan parkeko enprekin egindako ekitaldia izango da. Mota guztietako jarduerak egingo dituzte: puzgarriak, marrazketa tailerrak, 3D inprimaketa, errealitate birtuala eta robot humanoide bat, eta abar. 11:15etik 12:00etara, bisita gidatua egingo da parkeko zenbait enpresatan, eta zer egiten duten eta beste bitxikeria batzuk kontatuko dizkiete bertaratutakoek. Era berean, *Adineko liderrak gizartearentzat* hitzaldia ere egongo da BiziPoz enpresaren eskutik. Bukatzeko, zozketak eta luntxa egongo dira. "Helburua da herritarrak parkeko enpresetara hurbiltzea" azaldu dute.

OHARRAK

Pentsiodunak

Astelehenean elkartuko dira, 12:00etan, Herriko Plazan.

Artisau postuak

Santamas Komisiñuek zabalik du izen ematea abenduaren 22an postua jartzeko eta bailarako artisauak parte hartzera gonbidatu dituzte. Azaroaren 22ra arte egin daiteke, www.santamasak.com webgunean.

2009an hildakoak

San Kristobalgo hilerrian urte hartan lurperatu zituztenen gorpuzkiak denon hilobira pasako dituzte 2020ko otsailaren 1etik aurrera. Hori saihesteko, BAZera jo edo deitu 943 25 20 06 telefonora.

Bi mozio onartu arren, eztabaida giroa nagusi

EAJk aurkeztu zuen bat, Gipuzkoako adinekoen egoitzetako lan-gatazkarekin lotuta; eta bestea, EAJk eta EH Bilduk Kataluniako 'prozes'-ari buruz. Galde-eskeetan, bi herritarrek hitz egin zuten; oposizioak "erantzun konkretuak" ez ematea kritikatu zuen

Xabi Gorostidi ARRASATE

Eguneko puntuak ia interbenziorik gabe onartu arren, mozioek eta galde-eskeek alderdien arteko eztabaida eragin zuten azaroko osoko bilkuran.

Adinekoen egoitzetako mozioa

Arrasateko EAJk hiru puntuko mozioa aurkeztu zuen Gipuzkoako adinekoen egoitzetako lan gatazkan konponbideak eskatzeko. "EAJtik adeitasuna eta laguntza eskaini nahi dizkiegu Iturbide egoitzetako langileei eta egoiliarrei. Hauteskunde giroan gaude, baina gai hau ez da udal eskumenekoa; beraz, ez dezagun demagogiarik egin", adierazi zuen jeltzaleen bozeramaileak.

EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek gai horri buruz Batzar Nagusietan adostutako testua irakurri zuen Maider Morrasedek, eta ostean, EAJri erantzun: "Langile hauen ratio baxuak Jaurilaritzako dekretu batek ezartzen ditu, eta gaia konpontzeko finantzaketaren ia %90 Gipuzkoako Aldundiari dagokio. Beraz, esan dezakezue hau ez dela Arrasateko EAJren eskumena, baina EAJren eskumena da. Hori da demagogia". Elkarrekin Podemoseko Igor Urizarrek gaineratu zuen "hipokrisia" dela "Martxoaren 8an argazkien aurrealdean egotea eta emakume langileen prekarietatea sustatea".

PSE-EEko Oscar Garciak esan zuen mozioa ez dela Udal Gobernuarena, EAJrena baizik, eta alderdi sozialistaren atea jo ez izana leporatu dio oposizioari. Maider Morrasedek erantzun dio gaia bozeramaileen batzordera eraman zutela, eta hark ere ez duela oposizioaren atea jo. Botatzeko orduan, EAJk alde botatu zuen, EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek aurka eta PSE-EE abstenitu egin zen. Hala, bederatzi aldeko boto eta bederatzi aurkako izan ziren, eta



Gorka Gonzalez herritarrek hitza hartu zuen galde-eskeen tartean. XABI GOROSTIDI

ERREKARA EGINDAKO BI ISURKETA ETA AHT-AREN LANAK IZAN ZITUZTEN HIZPIDE HERRITARREK

bigarren bozketan, alkatearen kalitatezko botoari esker egin zuen aurrera mozioak.

Kataluniako mozioa

Arrasateko bi alderdi botatuenek -EAJ eta EH Bildu- Kataluniako politikariak zigortu dituen epaiari buruzko mozioa aurkeztu zuten; besteak beste, "justifika ezina" dela esan, presoak aske uztea eskatu, eta hauei eta erbesteratuei elkartasuna adierazi zieten. Mozioak PSE-EEren "harridura" eragin zuen, bere gobernukide EAJk Arrasaterekin loturarik ez duten mozioak ez babesteko "ohitura" zuelako eta, euren ustez, "EAJ Kataluniako biolentzia babesten" ari zelako.

EAJtik erantzun zuten eurak "beti-beti" egon direla "biolentziaren aurka", eta Ezkurra gehitu zuen sententzia "antide-

mokratikoa eta gehiegizkoa" dela. EH Bilduko Morrasedek Altsasuko gazteen epaiaren "mendeku" kutsua ikusi zuen Kataluniakoan, eta horren aurka "alderdiek batuta" erantzutearen beharra nabarmendu. Elkarrekin Podemoseko Igor Urizarrek, besteak beste, Bilbon eta Gasteizen egindako protestetako atxilotuak ekarri zituen gogora.

Galde-eskeak

Bi herritarrek hartu zuten hitza. Piter Encinas EH Bilduko zinegotzi ohia izan zen lehena eta irailean eta urrian "ustez AHTaren lanetatik Deba ibaira egindako isurketa" batzuei buruzko azalpenak eskatu zituen. Bigarrena Gorka Gonzalez izan da. Gesalibar inguruan AHTaren lanak egiten dituen UTE enpresari emandako baimenei buruz hiruzpalau eskari jarri arren, Udaletik erantzunik jaso ez duela adierazi zuen. Amaieran, EH Bilduk salatu zuen Gobernuak 14.000 euro bideratuko dituela "hauteskunde programa exekutatzeke aholkularitza baten, eta Gobernutik erantzun zuten aholkularitza hori "beharrezkotzat" jotzen dutela.

San Felipe Elkarlaguntzaren lokal berria, martxan

Joan den asteko eguaztenean inauguratu zuten Grupo San Juaneko Alfontso X Jakintsua Plazako lokal berria, eta hemen-dik aurrera bertan artatuko dituzte bezeroak. Astelehenerako, hilak 11, hileta zibilei buruzko hitzaldia antolatu dute. Maite Urzainek gidatutako saioa izango da, eta 18:30ean hasiko da, Kulturategi areto nagusian.



Langileak, lokal berrian. X.G.

Oskarbi zapata dendan pintaketak egin dituzte

Urrian zazpi langile kaleratu zituen enpresak -lau, Arrasateko dendetakoak-, salmenta jaitzierak argudiatuta. Ezezagunek kaleratzeen aurkako eta langileen aldeko pintaketak egin zituzten, baita Amenabar eraikuntza enpresaren bulegoan ere. "Antza, ez da gure aurkako eraso isolatua; beste hiru lokaletan ere egin dituzte", esan dute Oskarbiok.



Olarte kaleko lokala, pintaketekin. J.B.

Urriaren 30etik
Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka
azararen 20ra

50€ BELTZA

60€ BERDEA

70€ ZURIA

ESKATU SASKIAK ETA SUSTATU EUSKALGINTZA NAFARROA HEGOALDEAN. SASKIEN BALIOAREN %25 BIDERATUKO DA ZONALDEKO IKASTOLEI, SORTZENI ETA AEK-RI LAGUNTZERA ETA, GAINERA, 'AGER VASCONUM' EAN EUSKARA PLAZARA ATERATZERA DATORREN EKIMEN BERRIA ABIAN JARTZERA.

EEK ERRI GORA



Amundarain, ezkerretik hasita bigarrena, Tolosan hika praktikatzeko zuen taldearekin. TOLOSALDEKO ATARIA

AEDren sortzaile izandako Mattin Amundarain hil da

Badaude pertsonak 'gintza' atzikiari zentzua ematen diotenak, eta horietako bat izan da, zalantzarik gabe, Mattin Amundarain. Arrasatekoa ez izan arren, bertako euskalgintzan, herrigintzan, bakegintzan eta taillagintzan lan handia egin izan du

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Pertsona konprometitua, idealista, nekaezina... izan da bai euskalgintzan eta baita gizarte-ko beste gai batzuetan ere". "Giza konpromiso handia izan duen belaunaldiko bateko lorea izan da Mattin, beste askorekin batera. Kristautasun sozial batean hezia zenez, gizartearekin oso konprometituta zegoen eta gai askorekiko kezka zuen: euskalgintza, aberrigintza, bakegintza, mundugintza..." halaxe gogoratu dute Mattin Amundarain Estepan Plazaolak eta Jon Sarasuak, hurrenez hurren.

Amezketarra zen jaiotzez, baina Arrasaten egin zuen lan urte luzez, eta orduko herrigintza mugimenduan bete-betean murgildu zen. Eskola Politeknikoan irakasle izan zen, eta, euskaltzale amorratua izanik, AEDren sorrera prozesuan hartu zuen parte. Geroago, Elkarri sortu zenean, Arrasateko lantaldera batu zen eta, besteak beste, uztailean hil zen Joxe Ramon

Elortzaren alboan jardun zuen lanean. Erretiratu zenean, Tolosara joan zen bizi izatera, eta han ere euskararen bueltan lanean jarraitu zuen. Horregatik, *Eskerrak zuri* Ohorezko Aipamena eman zion Galtzaundi Euskara Taldeak amezketarri 2010ean, "euskararen alde han eta hemen egindako lan handia" eskertzeko.

Euskararen aldeko langile amorratua izateaz gain, beste askori euskal hizkuntzarekiko grina kutsatzen trebea izan zen. "Nik 15 urterekin ezagutu nuen. Franco hil eta hurrengo urtean Eskola Politeknikoan Euskara ikasgaia jarri zuten hautazko eta bera izan nuen irakasle. Ikasturte haren bukaeran Euskal Udalekuetara begirale joatea proposatu zidan. Uda hartan begirale joan nintzen eta irailean gau-eskoletan umeei euskarazko eskolak ematera animatuko ote nintzen esan zidan, eta Erguingo eskolan hasi nintzen. Hark sartu ninduen euskalgintzan",

gogoratzen du Plazaolak. Haren jarrera "nekaezina" ere azpimarratu du Sarasuak. "Garabide elkartearekiko hasieratik erakutsi zuen interesa, eta beti izan da guri laguntzen. Hil baino astebe lehenago, ospitalean, buru-argitasuna zuen uneetan herrigintzaren lanaren fruituei buruz galdetzen zidan. Azken hatsera arte mantendu zuen ardura hori".

Taila Eskola

Arrasateko Taila Eskola sortzen ere aritu zen. "Batzuek bagenuen taillarekiko zaletasuna, baina teknika behar genuen; eta Amundarain izan zen hainbeste behar genuen maisua", gogoratzen du Taila Eskolako Felix Iturbek.

**HERRIGINTZAN ARITU
IZAN ZEN BERE
EMAZTE BANAEZIN
BITTORI
ETXEBERRIAREKIN**



JON SARASUA
GARABIDE

"Munduak eta herriak min ematen zion pertsona bat izan da, eta min horretatik gauzak etengabe hobetzen ahalegindu dena. Niretako, sen onekoa da, egungo gazteen belaunaldiek argi ikustea nondik etorri den gure herrigintza, eta nortzuk izan diren gure herrigileak".



MARIA AGIRRE

"Bittori emaztearekin batera oroitzen dut; banaezinak ziren. Kezkatuta zeuden garaiko egoerarekin eta elkarriketaren eta akordioaren aldekoak ziren. Beti zeuden lanerako prest, nahiz eta inork nahi ez zituen lanak izan. Serioa iruditu arren, Mattin umoretsua zen oso".



FELIX ITURBE
TAILLAGILEA

"Eskolan ikasleen tailla tailerra gidatzen zuen. Guk zarata entzuten genuen, eta, halako batean, sartzeraz gonbidatu gintuen. Handik gutxira, Urribarra lekualdatu zuten tailla tailerra eta klase orduetatik kanpo hasi zen guri irakasten. Fenomeno hutsa zen; apala eta langilea".



NIRE USTEZ

**MARIXE RUIZ DE
AUSTRI**

Jokoak jolasa jan zuenekoa

Ezkutaketan jolasten genuen, baina amaieran denok agertzen ginen, ezkutalekua uzten genuen beti. Harrapaketan aritzen ginen, baina harrapatzaile izatetik harrapatu izatera pasa gintezkeen etengabe. Baloi errean genbiltzala pilotak kolpatzen gintuen etengabe, kartzelara igarotzen ginen etsaiaren zelaira eta besteei jo orduko itzul gintezkeen gure lurrera. Jolasa zen dena.

Orain apustu etxeek eta joko makinek ordezkatu dizkigute plazak, gazteenek kalean ziharduten auzo eta herri txiroenetan aurkitu dute gureak. Eta dirua ezkutaketan hasi da jolasten, baina bukaera ez da txikitzen bezala gordetako dena agertzen, gehien dutenen poltsikoetan pilatzen da. Harrapaketa etengabe bat da, kapitalaren jabeek gazteak heltzen dituzte; baina ez dituzte sekula askatzen. Eta behin zorrak kolpatu eta kitatzeko edozer egiterakoan etsaiaren kartzelara zoaz, baina ez da hain sinplea zure lurrera itzultzea. Jokoa da dena, eta ez da kasualitatea. Eta herri honetan badaude horretan interes handia dutenak, beti izango baitzaie erosoago iraultzaren subjektu balizkoak horiek makina aurrean egotea barrikaden lehen lerroan baino.

Zuberoako ikastolei laguntzeko otarreak eska daitezke jada

Lurralde horretako tokiko ekoizleak produktua dastatuz Zuberoako ikastolak diruz lagundu ahalko dira aurturaz. Bi saski daude aukeran: Ahizki -40 euro- eta Irati -52 euro-. Eskariak www.ikaskoli.eus webgunean edo nikere@ikaskoli.eus helbidean egin daitezke, eta ostean, AEDn edo Ereindajanan jaso, abenduaren 13tik aurrera.

Ikuspegi feministan oinarritutako liburua

Nerea Barjola politologo feministak iaz kaleratutako 'Microfísica sexista del poder. El caso Alcasser y la construcción del terror sexual' liburua aurkeztuko du Kulturateko areto nagusian, azaroaren 12an, martitzenean, 18:30ean hasita

Amaia Aranegi ARRASATE

Sexu indarkeria kasuei hedabideetan emandako trataerari kritika egiten die Barjolak Kulturaten aurkeztuko duen liburuan. Alcasserko nesken hilketei komunikabideek emandako tratamendua baliatu du idazleak izu sexualari buruzko kontakizunak nola zabaltzen diren aztertzeko. Alcasserko kasuak hunkitu egin zuen Barjola: "Alcasserko kasua aztertzea erabaki nuen nire garaian sakon heldu zitzaidalako, asko eragin zidan. Ikuspuntu feminista batetik aztertzeko beharra sentitu nuen, ez nengoen eman ziguten kontaktarekin geratzeko prest.



Nerea Barjola politologo feminista. IMANOL SORIANO

Izu sexualari aurre egiteko erremintak eman nahi nituen".

Liburua irakurri dutenen hitzetan, sendatzailea da: "Testu sendatzailea izan zen niretzako, eta hala izaten ari da askoren-tzako ere".

Liburuak oinarri teoriko aberatsa dauka. Garrantzitsua zen santurtziarrarentzat kontakizuna terminologia feminista batetik birkolokatzeko, eta beste autore batzuegandik kontzeptuak hartu eta feminismotik berriak sortu ditu: "Oso pertsona praktikoa naiz, baina kontzeptuak eta politika kategoriak ere behar ditut. Horregatik, ezinbestekoa zen, niretzako, kontakizuna kontzeptu teorikoekin osatzea".

Gaur egungo egoerari erreparaturaz gero, termino orokorretan gauzak askorik aldatu ez direla dio Barjolak, baina komunikabide talde handien atzean dauden pertsonengan jartzen du fokua: "Komunikabideetan lanean ari den edonork feminismoan formakuntza izan behar du. Ezinbestekoa da sexu biolentziaren inguruan idazten duen edonork ikuspegi feminista izatea. Horrela ez bada eta feminismoan

hezita ez baldin badago, gizarteak ulertzen duen sexu biolentziaren eskemak eta diskurtsoak erreproduzituko ditu".

Bere doktore-tesia den liburu honetan, komunikabideek ez zutela Alcasserko kasua krimen matxistatzat hartu ondorioztatu du. Gainera, biktimen gehiegizko esposizioa salatzen du: "Biktimen gehiegizko esposizioa egitura matxista eta patriarkalaren parte da".

Liburuaren bigarren edizioa

Liburuak ibilbide zoragarria izan du, esperotakoa baino askoz handiagoa. Azaroan liburuaren bigarren edizioa atera dute. Gainera, irakurleen konpromisoa azpimarratu nahi izan du Barjolak: "Liburua irakurri duten guztien konpromisoa handia izan da, biolentzia sexuala beste modu batean ulertu eta kudeatzeko konpromisoa".

Hain zuzen ere, Emakume Txokoak antolatu du ekitaldi hau. 18:30ean, Nerea Barjolak modu dinamikoan aurkeztuko du liburu, momentuko bideoak eta audioak erabiliz, eta gero, solasaldia egongo da.

RPS: 146/18

CLINICA DENTAL

BERGARA

Asteazken
eguerdian
zabalik

25

urte
baino
gehiagoko
esperientzia
implantologian

- INPLANTOLOGIA
(kirurgia erraza eta minik gabekoa)
- Estetika eta protesia
- Ortodontzia bracket barik
- Apnea - Zurrungak

Bidekurutzeta, 36 – BERGARA – Tel.: 943 76 05 77 – www.clinicadentalbergara.es

"Mondra delako da bereziki mingarria"

JORGE DAVILA MONDRAKO ENTRENATZAILE OHIA

FUTBOLA Klub zuri-morean bederatzi urteko ibilbidearen ostean, Jorge Davilak lehenengo taldeko entrenatzaile izateari utzi dio: "Esker oneko berbak baino ez ditut"

Xabier Urzelai ARRASATE

Mondrako zuzendaritzak erabaki zaila hartu behar izan du aste barruan, beheko kategorietan hasita guztira bederatzi urte klubean egin dituen Jorge Davila (Arrasate, 1978) kargutik kentzea. Zortzi jardunaldi jokatu eta gero partidu bat irabazita, sailkapenean azken postuan dago Mondra. Aurrerapena: elkarriketa honetan irakurleak ez du Davilaren ahotik berba txar bat irakurriko.

Seguru ez direla egun gozoak izan. Zer moduz zaude?

Beno, doluaren erdia dagoeneko pasa dudala esango nuke [barre], baina bai, zuzendaritzatik esan zidatenean entrenatzaile izateari utziko niola, sentipen askoko egunak izan dira, emozio handikoak. Bihotzeko kluba denean, min handiagoa egiten du, Mondra delako ematen dit bereziki min, baina bizipenen motxilara sartuko dugu hau ere, eta seguru hemendik ere ikasi egingo dugula.

Zer gertatu da zortzigarren jardunaldian Mondra sailkapenaren azken postuan ikusteko? Izan ere, duela bi hilabete GOIENAn bertan esan zenuen aurrean egoteko moduko taldea zeneukatela.

Eta berdin pentsatzen jarraitzen dut, Mondrak aurrean egoteko moduko taldea daukala. Bada, seguruenik, gauza askoren batuketa izan da. Taldera jokalariek gazteak iritsi dira, eta horiek egokitzen fasea behar dute. Baina hasieratik hasi ginen txarto, eta konturatu orduko konfiantza galdu genuen. Hala, koetan, kontrarioaren atea txikitzen egiten da eta norberak defendatzen duen atea izugarri handitzen da. Dinamika negatiboan sartu ginen eta, nahiz eta aste barruko lana ona izan, jokalarien inplikazioa ona izan, partiduaren eguna iristen zen eta detaile txikiak oso erabakigarriak izaten ziren. Gaizki



Jorge Davila, Mojategiko aldageletako sarreran. GOIENA

"AURRERANTZEAN MONDRAKO ZALE BAT GEHIAGO IZANGO NAIZ HARMAILETAN, TALDEA ANIMATZEN"

irten zitekeen guztia gaizki irten da. Dinamikaz aldatu behar du Mondrak.

Esanguratsua izan da Harmailatik saioan ikusi izan ditugun partidu osteko elkarriketetan taldeko jokalariek erreferenteen keinu serioa,

ardura aurpegia. Burura etortzen zaizkit zuri egindako elkarriketa bat, Aranbarri, Jokin Mujikari joan den astean...

Baliteke arrazoi izatea. Hori du ona talde honek, autokritikarako duen gaitasuna, baina, akaso, zorrotzeiak izan gara gure buruarekin, eta gauzak lasaia hartu behar genituen.

Diozu azken hiru jardunaldietan taldean gauza positiboak ikusi dituzula.

Halaxe da, nahiz eta emaitzak ez diren guk gura genituenak izan. Mutrikun ez ginen txarto ibili,

ezer gutxi eginda lortu zuten 1-2koa, Oiarzunen (1-1) lehen zatian partidua kontrolpean izan genuen, Amaiak Baten kontra lehenen zatian serio ibili ginen... Ezer gutxi eginda lortu zuten 0-1koa, eta ondoren, arriskatu egin behar izan genuen... Egia da gola errazegi egiten zigitela. **Ulertzen duzu zuzendaritzaren erabakia?**

Hotzean pentsatuta, ikusita kategorian zer-nolako berdintasuna dagoen, egia da emaitza positibo pare batekin sailkapenean aurrerapauso galanta eman genezakeela. Akaso, zuzendaritzak pazientzia apur bat gehiago izan zezakeela... Beno, futbollean emaitzek agintzen dute, hori garbi dugu denok, eta taldeak dinamikaz aldatu behar du.

Elkarriketa hasi aurretik, esker oneko berbak baino ez dituzu izan. Halaxe sentitzen dudalako. Zuzendaritzako kideei "eskerrik asko" baino ezin diet esan, duela bi urte nire aldeko apustua egin zutelako. Ohorea izan da urte hauetan guztietan Mondrako entrenatzailea izatea. Eta jokalariei ere ezin diet besterik esan; talde zoragarria da, bereziki, ikuspuntu humanotik. Aldagela horretan lagunak utziko ditut, eta esan gura diedana da aurrerantzean harmailetan izango naizela, animatzen, Mondra-ko zale bat gehiago bezala. Duela hiru aste taldeko kapitain Julen Aranbarri GOIENAn esan zuen moduan, ez dut zailtzarik taldea egoera honetatik irtengo dela.

Eta aurrerantzean, ze asmo?

Etorkizunean, entrenatzen jarraitu gura nuke, futbola nire bizitzan arlo garrantzitsua delako. Gustuko dut aulkiko lana, curriculumak botatzen hasi beharko dut [barre].



Padelean jokatzen. X.U.

Santamasetako padel txapelketako izen ematea zabalik

AKE Arrasatek gertu du Santamasetako padel txapelketa. Aurretik ere hiru kategoria jarriko dituzte: gizonezkoak, emakumezkoak eta bikote mistoak. Hala, partidak azaroaren 16ko asteburuan hasiko dira jokatzen, Musakolan, eta finalak abenduaren 15ean izango dira. Izen ematea, berriz, azaroaren 12an amaituko da (ake.padel@gmail.com, 5 euro).



Funesen kontrako lehia. I.S.

ART etxean saiatuko da lehenengo postuari eusten

Arrasate Rugby Taldeko jokalariek etxean jokatuko dute zapatuan (16:00), Econsu Gaztedi RT taldearen aurka. Julen Barrutiaren mutilak lehenengoak dira ligan eta postu horri eusteko garaipena behar dute zuri-moreek. Econsu taldekoak azken bigarrenak dira ligan eta orain arte jokatutako norgehiagoketan garaipen bakarra eskuratu dute.

Oraingoz, ordezkorik ez aulkian

Erredakzioa ixteko momentuan, zuzendaritzak GOIENARI baieztatu dio lehen taldeak oraindik ez duela entrenatzailerik: "Hainbatekin egin dugu berba, aholkuak jasotzen ari gara... Lanean dihardugu, baina, oraingoz, ezin dugu ezer baieztatu". Hala, azken ordurorik ez badago, kirol zuzendari Ander Romerok zuzenduko du Mondra Zarautzen, bihar.



Ander Romero, eskuman, kirol zuzendaria da egun. X.U.

Los Clayton zapatuan bigarrenenez gaztetxean

Bihar, zapatua, azaroak 9, gaueko hamar eta erdietan hasita, kontzertuak eskainiko dituzte Arrasateko gaztetxean; hain zuzen ere, Los Clayton, Discipulos De Dionisos eta DJ Ikimuri izango dira taula gainean zuzenekoak ematen

Amaia Aranegi ARRASATE

Los Clayton-ek zabalduko du zapatuko gaua, Aramaio eta Arrasateko talde gazteak. Mikel (baxu-jotzailea), Jokin (abeslaria), Mattin (gitarrista), Peio (gitarrista) eta Manex (bateria-jotzailea) dira talde honen kideak. Duela bi urte hasi zuten ibilbidea eta Mikelek dio uste-kabea hasi zirela: "Lagun talde bat gara eta proiektu hau talde bat sortzeko asmorik gabe hasi zen. Lokalean ordu asko ematen genituen eta poliki-poliki serio hartzen hasi ginen. Baina dena asperkizunetik hasi zen".

Taldeak poliki hasi nahi izan zuen eta lehenengo urtean abestiak egiten eta entseguak egiten jardun zuten, kontzerturik eman gabe. "Ez genuen presaka eta zuzeneko hasi nahi. Lehenengo urtean abestiak egiten, lantzen eta entseguak egiten egon ginen. Gero, kontzertuak eman genituen lau hilabetez". Aurreko urtean, abeslaria Poloniara joan zen eta bertan behera utzi behar izan zuten taldea. Udan bueltatu zen eta geroztik berriro hasi dira kontzertuak ematen. "Nahiko bitxia izan da taldearen bilakaera. Baina udan abeslaria bueltatu zenetik gogor ari gara berriz ere".


Rock estiloa

Rock, blues eta punk ukituak dituen musika egiten dute. Rock-and-roll estiloan finkatzen dituzte euren abestiak. 80ko hamarkadako estilora jotzen dute, euren erreferenteak garai hartakoak dira eta taldeko kide guztiek dute estilo hori gustuko. Kontzertuetan, bertsioak abesteaz gainera, euren abestiak

ere jotzen dituzte: "Hasieran, gure lau abestirekin eta bertsio askorekin hasi ginen. Gaur egun, bederatzi abesti propio eta beste bost bertsio jotzen ditugu; eta horietako gehienak gureak dira".

Gaztetxean kontzertua

Arrasateko gaztetxean kontzertua eskaintzea aukera parega-



Discipulos de Dionisos taldea, Oñatin eskainitako kontzertuan. i.s.

Discipulos De Dionisos

Talde donostiar hau porno-punkagatik da ezaguna. Erritmo bizia, kantu motzak eta letra gordinak dira talde honen ezaugarri nagusiak. Hala ere, beraien *show*-a zuzeneko ikusi behar den horietako bat da, emanaldi ikusgarriak ematen baitituzte.



Los Clayton taldeko bost kideak. LOS CLAYTON

bea da talde gaztearentzat. Aukera hau eskaini zieten momentutik pozik daude taldekideak. Bigarrenenez joko dute gaztetxean, baina zapatuko berezia izango dela dio Mikelek. "Guretako, kristoren plazera da: batetik, gaztetxean jo behar dugulako; eta bestetik, ezagutzen eta izena duen talde batekin agertokia partekatu behar dugulako".

Etorkizunari begira

Etorkizunari begira lanean jarraitzeko asmoa dauka taldeak. Abesti berriak sortzea eta posible den momentuan disko bat ateratzea da euren helburua. "Ez dugu hain gertuko proiektu bezala ikusten, lan asko egitea eskatzen duelako. Baina momenturen batean geldialdi bat egongo dela pentsatzen dugu, kontzertuak emateari utzi egingo diogu eta lanean jarriko gara horretan".

Hurrengo kontzertua azaroaren 22an izango dute, Aretxabaletako Ezkutu tabernan. Legaz-

piko John Dealer And The Coconuts taldearekin batera joko dute. "Gure estilo antzekoa daukate, erreferente dira guretako, eta garrantzitsua da".

Aramaion jaiotako talde hori astean behin biltzen da entseguak egiteko. Ikasketengatik eta lanarengatik zaila egiten zaie guztiak elkartzea, baina gutxienez astean behin Aramaion duten lokalean elkartzen saiatzen dira. "Astean zehar elkartzea zaila egiten zaigu. Kontzerturik aurreikusita ez badaukagu, astean behin batzen gara. Kontzertua edukitzekotan, berriz, astean bi aldiz elkartzen gara".

Los Clayton taldea gogor ari da lanean biharko kontzerturako: 22:30ean hasiko da, Arrasateko gaztetxean.

"GURETAKO, PLAZER HUTSA DA GAZTETXEAN KONTZERTUA ESKAINTZEA"

'Claudia' dokumental eszenikoa domekan Amaia antzokian

Domekan, azaroak 10, 19:30ean, *Claudia* antzezlan eskainiko dute Amaia antzokian. Hain zuzen, errealitatea eta poesia uztartzen ditu. Esperientzia erreal batetik abiatuta, memoria, justizian eta identitatean inguruko poema eszeniko bat moldatuko dute. Sarrerak hamar eurotan www.arrasate.eus webgunean eskura daitezke.

Arrotza taldea datorren asteko Kooltur Ostegunean

Donostiako Arrotza taldeak hartuko du lekukoa azaroaren 14an. Hamar abestiz osatutako *Lurzu hotzetik* diskoa kaleratu zuten iaz eta aurtun Europan zehar bira egin dute. Talde oso undergrounda da eta 80ko hamarkadako Ameriketako Estatu Batuetako punk iluna aldarrikatzen dute. Emozio gutxiko talde esperimentaletan ibilitako taldea da.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

beinke

arrasate



Sare Aretxabaletako kide Xabi Pagoaga, Josu Mendieta eta Txarli Garcia. MIRARI ALTUBE

Beste espetxe politika baten aldeko ekimena

Sare Aretxabaletak agerraldi masibo eta zabala deitu du azaroaren 16rako, zapatua, mojetan (12:00). Giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako dinamika bat abiarazi gura dute, espetxe politika aldatzen hasteko aletxoak jar ditzaten herritarrek

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxabaletan beste espetxe politika baten aldeko adostasun zabala dagoela uste dute Sare Aretxabaleta taldeko kideek, eta hori irudikatu gura dute azaroaren 16an. Horregatik, herritarrek gonbidatu dituzte mojetan (12:00) egingo den agerraldira, eta han, dinamika iraunkor bat abian jarriko dute.

Garikoitz Garcia, Picassenten

Euskal Herrian "agertoki politikoa aldatu zenetik" urte asko pasatu direla diote, eta orain dagoen adostasuna praktikara emateko ordua dela iritzita egin dute deialdia: "Aktibazio sozialean oinarritutako dinamika bat

abiarazi gura dugu. Aretxabaletan dauden sentsibiltate ezberdinak batu eta adostasuna irudikatzea da asmoa. Azaroaren 16koa hasierako mugarria izango da, dinamika iraunkor bat garatzeko gero; eta landuko da norbanako modura, norberaren esparrutik ekarpenak eginez. Gure txikitasunetik aletxoak jartzeko aukera izango dugu horrela, espetxe politika hau aldatzeko", adierazi dute Sare Aretxabaletako kideek.

Izan ere, espetxe politikaren gainean ez dela inolako aurreapausorik eman uste dute, eta horren adibide dela Garikoitz Garcia Arrieta preso aretxabaletarraren egoera. Picassenteko

espetxean dago, Valentzian, Aretxabaletatik 600 kilometrora: "Horrek dakarrenarekin: diru galera, familiarendako bidaiak, arriskua errepidean, asteburuko tentsioa...". Hala, presoak zein egoeratan dagoen jakinarazi dute: "Kondenaren erdia beteta izan arren, oraindik lehen gradu dago sailkatua, erregimen gogorrean, nahiz eta legeak esan gradu hori aplikatu behar dela ezohiko egoera batean, zigor moduan, eta epe jakin batean. Lehenengo gradu egoteak esan gura du patio ordu gutxiago, ikasteko murrizketak, kirola egiteko zailtasunak...". Presoaren eta haren senideen giza eskubideak aldarrikatu gura dituzte.

Eskubide guztien errespetua

Giza eskubide guztiak errespetatzea da dinamikaren ardatza: "Guztion ardura da, eta gizarte modura dagokigu horren alde lan egitea", adierazi dute: "Biktima guztien errekonozimendua eta aitortza aldarrikatzen ditugu. Sufritu duten pertsona guztientzako justizia, erreparazioa eta aitortza eskatzen ditugu, eta hala adieraziko dugu mojetan egingo dugun agerraldian ere".

Iraganetik datozen sufrimenduak eta minak sendatzea da helburua, eta, hain zuzen, horregatik, espetxe politika errotik aldatu beharra dagoela uste dute, "sufrimendua eragiten duelako oraindik". Diote beste biktima batzuen kasuan badabiltzala lanketak egiten, baina beste hau "ataskatuta" geratu dela: "Ez da inori kritika; biak dira ezinbestekoak, eta zorionez, gerturatzeko ariketak egin direla ikusi dugu, baina presoen eremuan ez dugu inolako aldaketarik ikusi".

Elkarteekin hartu-emana

Herriko hainbat elkarterengana eta eragilerengana jo dute gonbidapenarekin; alderdi politikoengana, esaterako: "Baina norbanako moduan bat egitera gonbidatu ditugu. Ez elkarte edo alderdi baten ordezkari moduan, badakigulako sentsibiltate ezberdinak egon daitezkeela talde baten barruan. Ez dugu tentsiorik sortu gura, dinamika inklusibo bat abian jarri baizik. Horregatik, eskatzen dugun bakarra da deialdira agertzea, inguruan horren berri zabaltzea, eta irakurriko dugun manifestuarekin ados agertzea".

Era berean, argi utzi gura izan dute ez dela egun bateko kontua izango, luzera begirako dinamika abiapuntua baizik.



Umeak kantuan. KURTZEBARRI ESKOLA

Udazkena kantari itzuli da Kurtzebarri eskolakoekin

Goiena komunitatea

Kurtzebarri eskola / ARETXABALETA

Kurtzebarri eskolako ikasle, familia eta irakasleek aurten ere ongietorria eman diogu udazkenari kantuan. Euskal abestiak azokara eroaten ditugu azaroko astelehenetan, 11:00 inguruan; beraz, denok gonbidatuta zaudete parte hartzera. GSR nagusien egoitzakoak ere, eguraldiak lagun, bertan izango dira.

Umeen elikaduraren gaineko saioa egingo du Andere Etxabek

Atxabalta Mugi egitasmoak antolatuta, umeen elikaduraren gaineko tailerra egingo dute azaroaren 19an, martitzena, Ibarra kiroldegian (18:00). 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei eta horien gurasoei bideratuta dago, eta Andere Etxabe dietistik gidatuko du. Interesatuak izena aurrez eman behar dute kiroldegian bertan (943 03 98 42).

SANER
Iturgintza, gasa eta berogailuak
Zelaikoa Baserria, 20 • Apotzaga auzoa
20540 Eskoriatza - Gipuzkoa
943 71 52 51 / 605 71 66 92

Bainuontziaren
ordez dutxa
jarriko dizugu
EGUN BATEAN!

Galdarak
aldatzen
ditugu

Komunen eta sukaldeen zaharberritze-lanak • Iturgintza-lanak • Energia berrietagarriak

407 led argi jarri dituzte argindarra aurrezteko

Aretxabaletako kaleko argien erdiak aldatuta egongo direla horrela jakinarazi dute udal ordezkariak, eta horren helburua da energia kontsumoa murriztea eta argiteria publikoa hobetzea; egindako aldaketekin argindarrean %76 aurrezteko asmoa dute

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Energia eraginkortasuna lortze aldera orain dela bi urte hasitako bidetik jarraitzen du Udalak, eta azken asteotan hainbat hobekuntza egiten dabilta herriko kale argiztapenean. Sodio lurri-nezko 407 argi puntu led teknologia duten argiekin ordezkatu dituzte.

Lanok egiteko dirulaguntza

Tecuni enpresa dabil argiak aldatzen herriko hamabi bat gutnetan: Otalora kalea, hilerriko bidea, Santa Kurtz -bidegorria eta pilotalekua-, Basabe eta Bainuetxe poligonoak, Araba ibilbidea, Gipuzkoa plaza, Gernika plaza, Errekabarren kalea -baita erreka ondoko pasealekua ere-, Murubide, Bedarretako San Migel auzoa eta Loramendi kalea. Argiteria publikoa nabarmen hobetuko dela diote udal ordezkariak, eta energia kontsumoa %76,09 jaitsiko dela urtean, potentzia gutxiago behar duten argiak izanik; hain zuzen ere, 266.558 kW/h-tik 57.036 kW/h-ra pasatuko da. Era berean, elektrizitate-gastuan ere asko aurreztuko dela uste dute; batez beste, %76,09 inguru.

Lan horietarako, Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Erakundetik (IDAE) 215.148 euroko



Gipuzkoa plaza inguruan Tecuni enpresakoak lanean hasteko gertu. M.A.

laguntza jaso du Udalak. Erakunde horrek hamar urteko interesik gabeko mailegua eskaintzen du, Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren bitartez. Dena den, aldaketekin lortuko den energia kontsumoaren eta elektrizitate gastuaren murrizketarekin, bost-sei urtean amortizatu izatea aurreikusten dute.

Unai Elkoro alkatearen esanetan, badaude beste helburu batzuk ere: "Argiteriaren egoera hobetu gura dugu, herriko puntu beltzei irtenbidea ematea lehenetsiz, herritarren segurtasuna

eta ongizatea bermatzeko. Ingu-rumenari eragindako kalteak murrizten ere lagunduko du".

63.000 euro aurreztu

Lanok hainbat fasetan dabil egiten Udala. Orain dela bi urte, 408 argi puntu hornitu zituzten led sistemarekin. Oraingo lanei eta 2017an egindakoei esker espero dute elektrizitate gastuetan urtean 63.000 euro inguru aurrezteko. Herrian 1.570 argi puntu daude, eta, egindako aldaketen ondoren, %50ek led sistema izango dute.



Euskaraldiari hasiera emateko elkartutako kideak. MIRARI ALTUBE

Euskararen Egunari begira hasi da taldetxo bat lanean

2020ko Euskaraldia gertatzen hasteko bilerei ekin diete herriko hainbat elkartetako ordezkariak eta eragileak

M.A. ARETXABALETAKO

Ia hogeitaz lagunekoa taldetxoa elkartu da, astean, datorren urteko Euskaraldia abian jartzeko asmoarekin. Izan ere, lan handia dago aurretik eta herririk herriko batzordeak osatzen dabilta. Aretxabaletakoa hasi ere hasi da lanean. Dena den, ateak zabal-zabalik dituzte; hurrengo bilera azaroaren 20an izango da, 18:30ean, udaletxe zaharrean.

Hainbat gunetara zabaldu

Abenduaren 3arekin batera Euskararen Nazioarteko Eguna dator eta horren bueltan antolatuko gura diren ekintzak zehazten jardun zuten elkartutakoek. Ospakizun eta, era berean, aldarrikapen eguna izango den horretan euskara kalera atera gura dute ahal den *ahobizi* eta *belarriprest* guztiak elkartuta. Horregatik, hain zuzen, ospakizunak herriaren erdigunean

bakarrik egin beharrean inguruko gunetara zabaltzearen garrantzia aipatu zuten. "Zer-gatik ez egin ekitaldiak Portasol aldean eta Bedarreta inguruan, eta gero guztiok elkartu herriaren erdian dagoen guneren batean?". Ekitaldiak gehiago zehaztekoan geratu ziren hurrengo bileran.

Datorren urtean, ariguneak

Euskaraldiaren gogoeta urtea izan da 2019a, orain dela urtebete egindakoaren balorazioa egin eta aurrera begira jartzekoa. 2020ko azaroan etorriko da bigarrena, eta oraingoan, bi lagun arteko elkarriketez gain *ahobizi* eta *belarriprest* rola hartuta, modu kolektiboan, taldeetan, ere egin ahal izango da ariketa; horretarako, ariguneak izendatuko dituzte. Hori guztia antolatzen hasiko dira Aretxabaletan ere.

Durana
Hartz Klinika

Odontologia estetikoak

Endodontzia

Inplantologia

Ortodontzia

PADI zerbitzua

Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00

Ostiralean: 08:30-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55

www.duranahortzklinika.eus



Oier Sarasua, Celina Imbajoa, Ibon Antero eta Iñigo Trueba eguazteneko aurkezpenean. MIRARI ALTUBE

Hiruatx eta Coemprender kooperatiba, bat eginik

Kolonbiako Nariño probintziako nekazaritza txikiari bultzada emateko egin du bat Hiruatx elkarteak Coemprender kooperatibarekin. Horretarako, kooperatibako kide Celina Imbajoa Arkupen izan da proiektuarekin nondik norakoak azaltzen

Maialen Regueiro ARETXABALETA

Hiruatx elkarteak bat egin du Mundukidek Kolonbiako Nariño probintziako zabor birziklatzaileen proiektuarekin. Modu horretan, eta horren berri emateko asmoz, Nariñoko birziklatzaileek eratutako Coemprender kooperatibako lehendakari Celina Imbajoa Arkupen izan zen eguaztenean, Mundukide eta Hiruatx elkarteetako kideekin batera.

Lehengaiak berreskuratzea

Imbajoa proiektua zertan datzan azaldu zuen eguazteneko hitzaldian, eta oinarrian lehengaiak berreskuratzea dagoela aitortu: "Material bilketa egiten den tokitik plastikoa, kartoia, metala eta halako lehengaiak berreskuratzea da proiektuaren helburua". Horrekin batera, Coemprender kooperatibaren jatorriaren berri eman zuen: "Kooperatiba 1997an sortu bazen arren, aurretik birziklatzearen gaia ardatza zuten hainbat el-

karte zeuden, baina aipatutako urtean fusionatu egin ziren, kooperatiba bakarra sortzeko".

Hiruatxen 28. urteurrena

Bestetik, Hiruatx elkarteak 28 urte bete ditu eta bat egin duen azken proiektua da Coemprender kooperatibarekin batera egingo duena, baina 28 urteko ibilbide honetan elkarteak aldaketak izan ditu, Oier Sarasua Hiruatxeko kideak azaldu zuenez: "Elkartea sortu zenetik hainbat gauza aldatu dira, kideak, helburuak eta lan egiteko modua, besteak beste; gaur egun, beste kooperazio mota bat egin dugu". Horrekin batera, Sarasua haxe ere aipatu zuen: "Talde eraginkorra garena esango nuke,

"HERRITARREN BABESA LAGUNGARRI EGITEN ZAIGU PROIEKTUEKIN JARRAITZEKO"

eta urtetik urtera gure proiektuak aurrera eramatea lortzen dugu".

Azken proiektu hau zein egoratan dagoen aipatu zuen Sarasua: "Kolonbiako ordezkariak proiektuaren nondik norakoak azaldu dizkigute eta guk itxura onartu hartu diogu. Printzipioz, urtebeteko proiektua izango da, baina baliteke luzatzea. Nariño-ko departamentuko nekazaritza txikiari bultzada ematea da asmoa, gehienbat, emakumeengan fokua jarrita. Kasu honetan, Mundukiderekin elkarlanean aritzea ohorea da guretzat, eta fidagarritasuna ematen digu aurrera egiteko".

Herritarren feedbacka

Sarasua aretxabaletarren aldetik jasotako feedbacka ere izan zuen hizpide: "Aretxabale-ko herritarren aldetik laguntza asko jasotzen dugu; azken batean, horrek animatzen gaitu aurrera egitera. Herritarrek guk egiten dugun horretan sinesten dute, gurekiko konfiantza dute".



Bikote mistoen frontenis txapelketa. GOIENA

Frontenis txapelketa mistoaren izen-ematea zabalik dago

Azaroaren 23an eta 24an izango da txapelketa eta izena emateko azken eguna azaroaren 19a izango da

M.R. ARETXABALETA

Beste urte batez, Aretxabale-ko Kirol Elkarteak frontenis txapelketa mistoa antolatu du arazoaren 23rako eta 24rako, Iturrigorri pilotalekuan. Izan ere, txapelketa hau urtetik urtera errotuz joan da. Txapelketan parte hartzeko izen-ematea dagoeneko zabalik dago eta horretarako azken eguna azaroaren 19a izango da. Horretarako, eskuragarri dago udafrentenis@gmail.com helbide elektronikoa, eta mezu bat bidaltzea komeni da. Horrez gain, bikote bakoitzak txapelketako lehen

egunean hamar euro ordaindu beharko ditu. Sariei dagokienez, bertako produktuekin egindako bi saski izango dira.

Txapelketa herrikoia

Oihana Mata UDAko kideak honako hau adierazi du txapelketa honen harira: "Gure helburua da izena ematen duten bikoteek ondo pasatzea eta disfrutatzea. Parte hartzen duten bikote batzuen maila ona bada ere, txapelketa herrikoia dela azpimarratu nahi dugu; alegia, frontenisean jokatu nahi duen edonork hartu dezake parte".

Munduko musika tresnak ikusgai Arkupe kultur etxean

Atzo ireki zituen atek munduko musika tresnen erakusketak eta azaroaren 30era bitartean egongo da ikusgai Arkupe kultur etxean. Luis Perez abade eta unibertsitateko irakaslea gazte-gaztetatik musika eta instrumentuen erabilerari lotuta egon da eta erakusketa horren fruitua da; izan ere, bilduma handia osatu du hark.

Azaroaren 30era bitartean, honako ordutegi honetan egongo da ikusgai: astean zehar, 11:00etatik 13:00etara goizez eta 18:00etatik 20:00etara arratsalde. Asteburura begira, zapatu goizetan egongo da aukera erakusketaz gozatzeko; igandeetan eta jaiegunetan itxita egongo da.

Etxean xaboi naturalak egiteko ikastaroa bihar

Berdintasun Sailak antolatuta, bihar, zapatua, xaboi naturalak egiten ikasteko ikastaroa izango da Arkupen, Ekoudalatx Mintegi Ekologikoaren eskutik. Ikastaroan hainbat edukiren berri emango da, olio begetalak eta gantz motak, ura eta landare urak, hidroxidoak, kontserbagarriak eta antioxidatzaileak, olio esentziak eta beste osagai batzuk eta xaboiari kolorea emateko prozedura. Horrela, ikasle bakoitzak etxera xaboi bana eramango du.

Ikastaroa bihar izango da, 10:00etatik 12:30era bitartean, eta parte hartzeko aurrez izena ematea komeni da, berdintasuna@aretxabaleta.eus helbidean.

National Geographic-ek ekoiztutako *Before the flood* dokumentalak Leonardo DiCaprio du protagonista. 'Before the flood'

Jasangarritasuna ardatz duten lanak ikusgai

Klima aldaketa, elikadura, eredu energetikoak eta mota horretako gaiak jorratuko dituzten hiru dokumental proiektatuko dira Zaldibar antzokian, 19:30ean, hiru egubakoitzetan. Lehena gaur izango da, National Geographic-en 'Before the flood'

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak jasangarritasunari buruzko zine zikloa antolatu du azarorako, eta bertan, klima aldaketa, elikadura, eredu energetikoak eta mota horretako gaiak jorratuko dituzten hiru dokumental proiektatuko dira. Dokumental guztiak Zaldibar antzokian izango dira, 19:30ean, azaroko hiru egubakoitzetan, hilaren 8an, 15ean eta 29an. Azken bietan, solasaldia ere izango da adituen eskutik.

Gaur emango zaio hasiera zine zikloari, eta horretarako, National Geographic-ek ekoiztutako dokumentala izango da ikusgai. Leonardo DiCaprio du protagonista *Before the flood* lanak eta aktore ezagunak bidaia bati ekingo dio. Groenlandiako urruneko eremuak, Sumatrako oihan beroak eta Vatikanoko aretoak bisitatuko ditu, klima aldaketaren ondorio suntsitzaileak aztertze asmoz. Bere egoera pribilegiatua aprobetxatuko du Barack Obama, Elon Musk eta Frantzisko aita santua-

Zine zikloaren egitaraua

Proiektzioak eta solasaldiak Zaldibar antzokian.

Azaroak 8

- **19:30** *Before the flood* dokumentala.

Azaroak 15

- **19:30** *Bide berriak* dokumentala eta solasaldia Ane Gorosabelekin.

Azaroak 29

- **19:30** *Energia trantsizioak, Piztu Aldaketa!* dokumentala eta solasaldia Goienerko kide batekin.

rekin hitz egiteko. Ikus-entzunezkoa gazteleraz proiektatuko da, 90 minutuko iraupena du eta sarrera doan izango da. Krisiaren arrazoietan murgilduz, DiCapriok galdera baten erantzuna bilatuko du: *Zerbait egin ote daiteke berandu izan baino lehen?*

Hurrengo proiektzioa, berriz, *Bide berriak* lana izango da, azaroaren 16an. BiziLur eta EHNE Bizkaiak ekoiztutako dokumentalak elikadura burujabetza Euskal Herrian izango du hizpide. Proiektzioaren ostean, solasaldia egongo da Ane Gorosabelekin.

Tabernak egitasmoarekin bat

Eskoriatzako hainbat tabernak, Udalarekin elkarlanean, eskaintza gastronomiko berezia prestatu dute zine ziklorako, eta zinemarako sarrerarekin batera eko-hanburgesak edo zero kilometrodun ogitartekoak eta edari bat dastatu ahal izango dira, sei eurotan. Taberna hauetan: Compostela, Akeita, Alcazar, Hotela, Urrestilla eta Toki Alai.



Pasa den egunean janari pakistandar tailerrean batutakoak. AUZOKO ESKORIATZA

Herritarren interesa piztu du janari pakistandar tailerrak

Auzoko Eskoriatzak antolatutako tailerrak arrakasta izanda, hurrengo baterako gertu agertu dira

I.B. ESKORIATZA

Auzoko Eskoriatzak antolatuta, pasa den egunean, Pakistango jaki gozo bat nola egiten den ikasteko tailerra izan zen kultura etxean. Hain zuzen ere, *Pakora* nola egiten den ikasteko aukera izan zen. Talde ederra batu zen, batetik, Pakistango produktuen gainean ikasteko, eta, beste alde batetik, elkar ezagutu eta euskara praktikatzeko.

Saioari begira, aurrelana ere izan dute Auzoko ekimeneko kideek. Izan ere, egunerako, sukaldeko tresnerien hitzak euskaraz nola esaten diren ikasi zuten Auzokoko partaideek.

Hasteko, ezagutze jolasa

Tailerra hasteko, elkar-ezagutze jokia izan zuten, eta horretarako hari-bola erabili zuten. Partaide batek besteari pasata, nork bere izena esanaz, elkar ezagutzeko, hain zuzen ere. Antola-

tzaileek adierazi dute motz geratu zela haria, jende asko batu zelako tailerrean.

Hurrengorako gogoz

Guztira, 30 lagun elkartu ziren. Hamabost auzotar eta beste horrenbeste auzokide. "Adin tarte ezberdinetakoak, erretiratuak, langileak, emakumeak eta gizon-nezkoak... talde heterogeneoa izan zen eta jendea oso gustura gelditu zen; hurrengo noiz egingo dugun galdetu zuten. Batzuk koadernoekin izan ziren apunteak hartzen; beste batzuek eskuak zikindu zituzten prestaketa lanetan...", adierazi du Iratxe Arrese Auzokoko dinamizatzaileak.

Jendea gustura, hurrengo tailerra abenduan egingo dute, Aljeriako eta Marokoko sukaldaritzarekin. Data zehazteko dagoen arren, gonbidapena egin zieten bertaratutakoei parte har dezaten.





Juan Miguel Pagalday eta Maria Isabel Ruiz de Ego, Bolivian, Tunupa sumendian. ARGAZKIAK: JUAN MIGUEL PAGALDAY

Boliviako liskarretatik justu-justuan irtenda

Boliviako paisaia ederrez disfrutatu dute Juan Miguel Pagalday eta Maria Isabel Ruiz de Ego eskoriatzarrek. Hala ere, klima gogorrari eusteko lanak izan dituzte, eta, urriaren 20an izandako hauteskundeen harira, liskarretatik ozta-ozta libratu dira

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskarmentu handiko bidaiariak dira Juan Miguel Pagalday eta Maria Isabel Ruiz de Ego eskoriatzarrek, eta urrian, 24 egunez izan dira Bolivian, bidaia agentzia baten programa baten bitartez. Bertan, indigenekin egoteko aukera izan dute, janari bereziak probatzeko eta altuera handiko lekuetan ere izan dira. Horrez gain, Boliviako hauteskunde orokorren garaia izanda, larritasun momenturen bat edo beste bizi izan dute.

"16 pertsona joan gara bidaian Euskal Herritik, eta gidari lanetan bizkaitar bat izan dugu momentu oro. Hegazkinean Bilbotik Madrilera joan ginen, eta handik Bolivia hegoaldera, Santa Cruz de la Sierra hirira, hain zuzen ere. Handik, Sucrera, gero, Concepcion hirira, eta ondoren, Potosira, Andeetako aldean dagoen hirira. Ostean, Tupizara joan ginen; bertan, zazpi egunerako 4x4 autoak hartu genituen, Altiplanora joateko. Zibilizazio gutxi dagoen baso pista eta erre-

ka sikuetan aritu ginen, altuera handian, 4.000 metrotik gorako lekuetan". Sumendi ugari ikusi dituztela gaineratu du Pagaldayk, eta, paisaia ederrekin gozatzeko aukera izan duten arren, esperientzia gogorra ere izan dela adierazi du.

Altueraren eragina sumatuz

Alde batetik bestera 4x4 autoetan aritzen ziren arren, altuera handian egotea ez dela samurra izan adierazi du Pagaldayk: "Boliviako klima gogorrari eustea gogorra da, nahiz eta autoetan mugitzen ginen. Nire kasuan, batez ere lo egiteko orduan izaten nituen arazoak. Arnastea asko kostatzen zitzaidan horizontalean jartzen nintzenean. Dena den, merezi izan du, ber-

"BIDAIA ZORROTZA IZAN DA, BAINA ESPERIENTZIA PAREGABEA"

JUAN MIGUEL PAGALDAY

tako kultura eta paisaia ederraz disfrutatu dugulako eta asko ikasi dugulako".

Liskarretatik kanpo, ozta-ozta

Bidaia aberasgarria izan den arren, altuera dela-eta ondo arnasteko lanak izan dituzte, eta urriaren 20an izan ziren Boliviako hauteskundeen bueltan istiluetatik justu-justuan libratu zirela adierazi du Pagaldayk: "Boliviako hauteskunde orokorren garaia zen, eta, parean tokatu zitzaigunez, guri ere eragin digute. Izan ere, Potosi herritik abisatuta geunden greba deituta zegoela Evo Moralesen kontrakoek, oposizioek, deituta, Carlos Mesaren aldekoek. Beraien asmoa herria blokeatzea zen. Hilaren 10erako zuten deia eginda, eta gu urriaren 9an irten ginen handik. Izan ere, blokeoak iraun bitartean ez dizute uzten bertara sartzen, eta ezta bertatik irteten ere, eta izan ziren istiluak gogorrak izan ziren. Hala, egun bat lehenago, goizean goiz, 06:00 aldera irten beharra izan genuen



Uyuniko gatzagan, munduko gatz-basamortu handiena.



Eskoriatzarrek indigenekin.



Potosiko meategian.



Boliviako tontor gorena, Sajama mendi tontorra, 6.542 metrora.

ziztu bizian. Irten izan ez bagina, harrapatuta geratuko ginen. Zortzi eta hamar egun bitartean iraun zuen blokeo horrek, eta ez zitzaigun komeni bertan geratzea, bidaia ez zapuzteko".

Istilurik ez, baina istorio ugari

Istilurik ez ikusi arren, zenbait zurrumurru entzuteko aukera izan zuten eskoriatzarrek, eta boliviarrarekin hitz eginda jakiten zutela Bolivian gertatzen zena: "Guk ez genuen istilurik ikusi, baina bertako jendearekin hitz egitean, Evo Moralesen hauteskunde kanpaina egin zuela, eta oposizioak hori jakitean, bera zegoen lekura joan eta istilu gogorrak izan zirela esan ziguten. Ez dakigu hala izango zen,

"IRTEN IZAN EZ BAGINA, HARRAPATUTA GERATUKO GINEN POTOSI HIRIAN"

JUAN MIGUEL PAGALDAY

baina, esaten zutenez, motor batean eraman zuten istiluetatik ihes eginaz, eta ostean, helikoptero batean atera zutela entzun genuen".

Paisaia eta kultura ederra

La Paz hiria, Siloli basamortua... asko gustatu zaizkio Pagaldayri. Jatekoaz ere ez du arazorik izan, eta aintziren koloreekin harrituta geratu dela nabarmendu du. "Titikakan egon ginen. Koloretako aintzirak ere ikusi ditugu; *Laguna Kolorada* dela-koak kolore gorrixka zuen, eta berde-berdeak zirenak ere ikusi ditugu. Janariarekin ere ez dugu arazorik izan, eta sekula ikusi barik genituen animaliak ere ezagutu ditugu: llamak, bikuinak eta flamenko pila bat ere bazeuden. Indigenekin ere ondo konpondu gara, baina emakumeei argazkiak ateratzea ez dute gustuko. Uste zuten argazki horiek saltzeko ateratzen genituela, eta ez zuten begi onez ikusten".

Sailkapeneko azken postutik atera guran

Eskoriatzako senior mailako emakumezko saskibaloit taldeak denboraldiko hirugarren jardunaldia jokatu du domekan, etxetik kanpo. Aurkariak hirugarrenak dira sailkapenean eta, zail ikusten duten arren, irabazteko asmoz irtengo dira kantxara

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gipuzkoako txapelketan lehenengo mailan ari den Eskoriatzako senior mailako taldeak ez du denboraldia uste bezain ondo hasi. Izan ere, denboraldiko lehenengo bi partidua galdu ditu, eta puntuak batzen hasi nahi dute sailkapeneko azken postutik irteteko. Domekan jokatu dute partidua, etxetik kanpo, Zarauzko Aritzbatalde kiroldegian, 16:00etan, Zast Neskak taldearen aurka.

Aurreikuspen positiboa

"Denboraldia hasi bakarrik egin dugu eta, bi porrot izan ditugun arren, sentsazio onak ditugu aurtengo txapelketara begira. Taldea jokalar oso onak osatzen dute, eta iaiztik hona ez dira aldaketa asko egon; jokalar bat joan egin da eta gazte mailako bat igo dugu, baina maila da zorrotza dena. Horrez gain, entrenatzaile berria ere estreinatu dugu, Roberto Bengoa", adierazi du Zuhaitz Gonzalezek, Eskoriatza Saskibaloit Eskolako koordinatzaileak.

Eskoriatzako herritarren animoak ere goraiatu gura izan ditu Gonzalezek; izan ere, adierazi du Eskoriatzako saskibaloit talde guztietan giro aparta izaten dela Manuel Muñozen: "Zaleekin



Eskoriatzako saskibaloit taldeko senior mailako taldea. ESKORIATZA KE

oso pozik gaude. Jende asko etortzen da kiroldegira animoak ematera. Batez ere, lehenengo taldearen partiduetan izaten da jende gehiago, eta uste dut puntuak lortzea baino garrantzitsua goa dela zaleen babesa. Gero, etorriko dira garaipenak...".

Kadeteek, itxura ona

Junior, kadete eta infantil mailako taldeek ere denboraldia hasi besterik ez dute egin, eta Zuhaitz Gonzalez kadete mailako entrenatzaileak adierazi du bikain hasi dutela aurtengo

txapelketa. "Lehenengo bi partidua irabazi ditugu; azkena, 56 puntuko aldearekin. Hala, faboritoak gara, eta uste dut denboraldi borobila egin deza-kegula aurtengo".

Domekan, eskola kirolekoak

Eskola kirolean, 2007ko eta 2008ko gaztetxoek hasi dute denboraldia eta asteburu honetan, berriz, 2009an eta 2010ean jaiotakoak hasiko dira. Partidua Aretxabaletan, Ibarra kiroldegian, izango dituzte, domekan, 09:30etan hasita.

Lider garaiezinaren aurka jokatu du Eskoriatzak, etxean

Maila Nazionalean ari den Eskoriatza areto futbol taldeak seigarren jardunaldia jokatu du domekan, 18:00etan, Manuel Muñoz kiroldegian.

Eta berri honetan, partidu bakarria irabazi du oraingoz etxeko taldeak, eta beste bat berdindu du. Hala, taldearen asmoa pausuak poliki-poliki ematea den arren, puntuak ira-

bazten hasi nahi dituzte Iker Molinaren mutilek. Asteburuan, gainera, aurkari gogorra izango dute. Izan ere, Gora Bilbao liderraren aurka jokatu du Eskoriatzak. Bizkaitarrek jardunaldi guztiak irabazi dituzte, eta Eskoriatzak aurre egin behar-ko dio sailkapenean beheko postuetarako bidea ez hartzeko eta puntuak batzen joateko.

Etxeko taldea bederatzigarren postuan dago, lau punturekin, eta aurkaria, berriz, 15 puntuarekin liderra da.

OHARRAK

Hitzaldia, atzeratuta

Eguaztenean *Deba ibaiaren kontserbazioa*, guztion kontua hitzaldia zen egitekoa, baina bertan behera geratu da. Hala, data berria aurrerago zehaztuko dute.

Ardo dastaketa

Eguraldi txarra iragarrita dagoenez, ATX elkarteok sare sozialetan adieraziko dute egingo den edo ez.

LEINTZ GATZAGA 21



Iaz, sanmilixanak ospatzera jende dezente joan zen Gatzagara. IMANOL SORIANO

Sanmilixanak domekan: izango da zer ikusi Leintz Gatzagan

Aurtengo, ez da artisautza azokarik egingo, baina egitarau zabala antolatu dute bertaratzen direnentzat

I.B. LEINTZ GATZAGA

Ohiturari jarraituz, San Milixan eguna ospatuko dute domeka honetan Leintz Gatzagan. Aurtengo, baina, ez dira artisauak izango Gatzagako frontoian, baina izango da zer ikusi, zer jan eta zer egin. Izan ere, egitarau ederra prestatu dute eguneko.

Gatz Bidia ezagutzeko aukera

Egitarauari dagokionez, 10:00etan Eskoriatzako Kuartuena auzotik irtenda, Gatzagara oinez Gatz Bidia egiteko dei egin dute antolatzaileek. 10:30ean, berriz, Arrasateko kuadrilla batek deituta, arineketan irtengo dira zenbait lagun, Arrasateko Errementari plazatik, Gatz-bidia eginaz. Hauek 14,5 kilometroko bidea izango dute aurretik, eta asmoa da talde osoa batera joatea, erritmo motelean, eta lagunartean ondo pasatzea.

12:00etan, berriz, *Hustu ganbara* bigarren eskuko azoka izango da Gatzagan, aldiro egingen duten moduan. Herritarrek erabiltzen ez dituzten arren erabilgarri dauden arropak, altxariak, jostailuak... izango dituzte salgai. 12:30ean, mokadutxo bat hartu nahi duenak ere aukera izango du horretarako. Izan ere, zenbait produktu prestatuko dituzte herriko plazan. Gutiziak dastatzeaz batera, eros- teko aukera ere izango da: gaztainak, piper erreak, buzkantzak, txistorra... izango dira. Honekin batera, 13:00etan, Gatz Bidetik oinez eta arineketan iristen diren guztiei ongietorria egingo diete herriko plazan.

San Milixan egunari amaiera emateko, aldiz, 13:30ean, larrain dantza egingo dute animatzen diren herritarrek, eta musikaz laguntzen Aretxabaletako gaiteroak izango dira.

Nerabeak dituzten gurasoei zuzendutako hitzaldia astelehenean

Zer egin dezakegu gurasook testuinguru digitalean gure alaba- semeak gidatzeko? izeneko hitzaldia antolatu du Gatzagako Udalak. Astelehenean, azaroaren 11n, izango da, kultura etxean, 18:00etan, eta gurasoei zuzendutakoa izango da.

Emoki elkarteak antolatzen dituen *Egonaldi On/Off* izeneko gurasoentzako formakuntza

saioen programan zehaztutako hiru gai nagusiak jorratuko dituzte bertan: Internet, sare sozialak eta bideo jokoak; adimen emozionala; eta pornografia, genero indarkeria eta harreman afektibo-sexualak.

Hori horrela, hiru ardatz horiek oinarri, erabilera okerrekin dakartzaten ondorioak aztertuko dituzte, besteak beste. Harreman- ingurune fisiko eta digitalean ongizate integrala sustatzen duen Emoki elkarteak kide batek eskainiko du hitzaldia.



Udal ordezkariak, aurreko egueneko osoko bilkuran. J.I.

Aho batez onartu dituzte ordenantza fiskalak

Lau aldaketa aztertu ditu udalbatzak 2020rako: udal bideen erabilerarena eta trakzio mekanikodun ibilgailuena KPI igoko da, hiri hondakinena %4, eta larre publikoen abeltzaintzarako erabilerarekin lotutakoaren erredakzioa aldatu dute, bestalde

Julen Iriondo ARAMAIO

Aurreko egunean egin zuen udalbatzak urriko osoko bilkura, eta bertan onartu zituzten, aho batez, 2020rako ordenantza fiskalak. Ibilgailu astunek udal bideak erabiltzeagatik ordaindu beharrekoak jasotzen dituen ordenantzak KPIaren igoera izango du datorren urtean, ordenantzak berak adierazten duen bezala.

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantzari ere KPIaren igoera aplikatuko diote: "2014an aldatu zen ordenantza hau, baina ordutik ez da ukitu, ez du igoerarik izan", zioen Lierni Altuna alkateak. 2020rako KPIa %1 izango da.

Hiri hondakin solidoak bildu eta eramateko zerbitzua arautzen duen ordenantza fiskalari dagokionez, alkateak azaldu zuen aurrena, kasu honetan, Jundizko Tratamendu Mekaniko Biologiko plantara eramaten diren hondakinek sortzen duten gas-

tua dela, batez ere, kontuan hartu beharrekoa: 2017an aldatu zuten, orain hurrengo, ordenantza, eta, irizpide berriekin, %20ko igoera izan zuen, "urteetan ukitu gabe" egon ostean; Udalak zentzu honetan ordaintzen duenaren eta jasoko duenaren artean aldea txikitzen joateko ordenantza %4 igotzea egoki ikusi du udalbatzak.

Bestelako aldaketa

2020rako ordenantza fiskaletan egingo duten laugarren eta azken aldaketak ez du zerikusia kopuruekin, baizik eta ordenantzaren beraren erredakzioarekin. Larre publikoen abeltzaintzarako erabilerarekin lotutako ordenantza da: orain arte zehazten zen uda-

MUSIKA ETXEA EGITEKO LANAK INDENORT ENPRESARI ESLEITU DIZKIOTE, BESTALDE

lerrian erroldatutakoek zutela euren ganadua larre publikoetara botatzeko aukera, baina bertan bizi ez arren ganadu ustiaketa baduten baserriak badiela kontuan izanda, erredakzioan aldaketa hori egitea erabaki du udalbatzak, bertan erroldatuta egon gabe ustiategia udalerrian dutenei ere aukera ematen zaiela zehaztuz "erredakzioan, ze praktikan hala jokatzeko dela zioen alkateak: "Abereak sobran ez ditugu; behar ditugu, gure larre eta basoak mantentzeko".

Musika etxea

Ordenantza fiskalarekin batera, beste gai batzuk ere landu zituzten urriko osoko bilkuran; horien artean, musika etxea egiteko bidean beste urrats bat egin zuten, eta Indenort enpresari esleitu dizkiote lanak, kontratazio mahaiak ebatzitakoa ontzat hartuz. Kontratua sinatu ostean, bost hilabete izango dituzte lanak egiteko.

Hezkuntza ordezkaria bisitan, eta eskolako kideak gustura

Arabako Hezkuntza ordezkari Blanca Guerrero eskola bisitatzen izan zen martitzenean, ikuskarriarekin batera. Lanpostu zerrendako murrizketa dela eta aurreko ikasturte bukaeran eta oraingoaren hasieran izandako gorabeherak tarteko, bertatik bertara ezagutu nahi izan du ordezkariak Aramaioko eskolaren lan egiteko modua.

Eskolako kideek aprobetxatu zuten lanpostuekin eta beharrezko errekursoekin lotuta eurek egiten zituzten aldarrikapenak justifikatzeko, eta, Saioa Uriarte zuzendariaren arabera, lortu zuten euren helburua: "Adierazi zigun ikusi zuela eta ulertzen duela gure eskariak zilegi direla, eta bere eskuetan dagoena egingo duela agindu zuen"; izan ere, oraintxe hasten dira aurreikusten hurrengo ikasturterako eskolen beharrak. "Adi egongo gara", zioen.

Sanmelixenak ospatuko dituzte egunotan Gantzagan

Bihar, zapatua, kanpai errepikak eta etxafuegoak izango dira, 09:00etan, jaien hasiera iragaritzeko. 12:00etan meza egingo dute, Aretxabaletako koruarekin; ostean, emanaldia egingo dute horiek. 13:00etan, bermut dantza egongo da, 17:00etan, mus txapelketa; 17:30ean, patata-tortillena; eta ordu beran hasiko da Kidam Magic-en ikuskizuna.

19:30ean, tortilla txapelketako sariak banatu eta dastaketa egingo dute eta 23:00etan, dantzaldia izango da Xaz DJarekin. Txokolate beroa ere banatuko dute.

Domekan, Arrasate Musika-leko txistulari bandak kontzertua egingo du, 11:15ean, eta 12:00etan, txirrindulariak abiatu egingo dira auzotik; 12:30ean hasiko da Gantzagarako igoera. 13:00etan, triki-poteoa egingo dute Aramaioko trikitilariarekin, eta tute txapelketa 17:00etan.

Kulturgura izeneko lehiaketa martxan jarri du Kuadrillak

Zazpi galderaren erantzunak asmatu behar dira oparien zozketan sartzeko. Erantzunak udaletxean entregatu behar dira, abenduaren 9a baino lehen. Sariak dira 100 euroko bi bonu kirol materialetan gastatzeko eta kopuru bereko beste bi liburu dendetarako. Informazio gehiago Kuadrillaren webgunean aurki daiteke.

Bentamotzera doan bidean hobekuntzak egingo dituzte

Kaletik Bentamotz baserrira doan bideko toki arriskutsuetan egingo dituzte hobekuntzak. Hainbat eroriko izan dira, eta hormigoi zaharra kendu eta berria jarriko dute. Udal sobe-rakinetik hainbat inbertsio egitea onartu zen uztailean, aurreko urteko likidazioa positiboa izan zela kontuan hartuta. 6.052,42 euro kostako dira lanak.

Landaketa eta garbiketa lanak, mendi publikoetan

Axelarrain eta Lurgorri mendi publikoetan landaketak egitea onartu du Udalak. Itsas pinua eta haritza landatuko dituzte. 22.919,50 euro –gehi BEZa– bideratuko dituzte lanotara. Bestetik, San Adrian mendi publikoan inausketa, bakanketa eta sasi garbiketa lanak egitea erabaki du Udalak, 8.424,90 euroko –gehi BEZa– aurrekontuarekin.

Orri markagailuen lehiaketarako epea, hilaren 15a arte

Liburutegian edo udaletxean entregatu behar dira Gorbeialdeko Kuadrillak antolatzen duen lehiaketarako lanak. Orri-markagailuaren marrazkia, leloa eta testuaren gaia norberak aukera ditzake. Lanak paperean edo kartoi mehean aurkeztu behar dira, 4,5x21 zentimetroko neurrian. Diru sari ederrak daude irabazleentzat.

"Irabazteko finala izango dela iruditzen zait"

JULEN OLAIZOLA PILOTARIA

Hirugarren denboraldiz, kanpoan dihardu pilotan. Dena den, berea da aukera bakarra –Markel Arriolabengoarekin– San Martin Txapelketan Aramaiorentzat txapela lortzeko

Julen Iriondo ARAMAIO

Bihar, zapatua, dira –16:00etan– herriko txapelketako finalak, eta Aramaioko bikote bakarra izango da bertan. Amurrioko Mikel Sanzen eta Aitor Arauzoren kontra jokatu dute Olai-zolak eta Arriolabengoak.

Dimako txapelketa irabaztetik zatoz, lau eta erdian.

Bai; Ibai Cimadevilla igorreztarren kontra jokatu nuen finala. Partidu eskasa izan zen, hutsegite asko egin genituen biok. Markagailuari dagokionez oso parekatua izan zen. Hamazazpina berdindu genuen, baina gero, 18-21 aurreratu zen bera. Galduta ikusi nuen partidua, baina azken lau tantoak egin nituen partiduko onenak. Azken tantoan huts ez egitera jokatu genuen biok, galtzeko beldurrez; azkenean, gora bota zuen berak. **Bizkaian ibiltzen zara asko; entrenatzen bertan diharduzu, eta jokatu ere, bertako klub batekin.**

Iurretan partidu bat nuen, eta bertako entrenatzaileak, Urrutikoetxearen-eta entrenatzaileak, esan zidan ea nahi nuen eurekin entrenatu, eta ni pozik. Ordu-rako, Orozkoko klubean niharduen, eta ez zidaten arazorik jarri. Kanpora irtetea ona izan da nire garapenerako, maila igotzeko; entrenamendu lagunak



Julen Olaizola, txapelarekin, Dimako finalaren ostean. GOIENA

"ONDO IRABAZI DEZAKEGU; ATZEAN EGIN BEHAR DUGU PARTIDUA, ATZELARIA EZ DA HAIN SEGURUA"

nagusiagoak dira, eta maila handikoak, eta ikasten ari naiz. Igartzen dut diferentzia.

Dena dela, bihar zurea da –Markel Arriolabengoarekin batera– Aramaiorentzat txapela lortzeko baza bakarra.

Bai, eta nik uste dut irabazteko finala izango dela; guk bikote hobearen dugula esango nuke. Kontrarioak ere ondo ari dira, baina, gure jokoa egiten badugu, ondo irabazi dezakegu. Atzean egin behar dugu partidua, atzelaria ez da hain segurua, aurrelaria da bikoteko puntu fuertea. Ni saiatuko naiz atzera jotzen, eta Markel ere bai dominatzen. **Eta final honen ostean...**

Ilusioz nago. Tolosako Migel Soroa txapelketarako deitu dide. Oso txapelketa garrantzitsua da; sorpresa izan da deitzea.



IMANOL BELOKI

Gaba Baltza, primeran

Lehen aldiz antolatu dute aurten Aramaion Gaba Baltza, eta bultzatzaileak oso gustura geratu dira emaitzarekin. Txirritolako Oihana Ameskuaren arabera, "dena aurreikusi moduan irten zen, edo are hobeto". Hurrengo ediziorako erronka moduan jarri dute "nerabe eta jende heldu gehiagoren parte-hartzea lortzea"; oraingoan, umeak izan ziren gehienak.

Xabi Errasti txapeldun Legution

El Corte Ingles sariketan, kadete mailan, 18-15 irabazi zion Xabi Errastik Iñaki Cariñanosi. 22 urtez azpikoetan, Asier del Campok 9-22 galdu zuen Aritz Otxoa de Okarizen kontra.


Xabi Errastik Arabako Txapelketako lehia du etzi, Danel Herrarterekin batera. Markel Arriolabengoak ere jokatu du. 12:00etan hasiko dira partiduak.



Xabi Errasti, txapelarekin. ARAMAIO PELOTA ELKARTEA

Martin Abarrategik aurrera egin du Bertxoko sariketan

Aurreko barikuan egin zuten lehen saioa, Zabolako elkartean, eta aramaiarra eta Markel Yoller izan ziren onenak. Eurak izango dira Gasteizko hilaren 21eko finalean. Aktualitateari buruzko bertsoaldi ederrak entzun ziren, batzuk seriotik eta beste batzuk umoretik. Beste kanporaketa Zalduondon izango da gaur.



Herrarte eta Abarrategi. BERTXOKO



Aurkezlea eta zortzi bakarlariak: Martiarena, Torregarai, Gonzalez, Garcia, Arakistain, Lopez-Gazpio, Elu, Lezameta eta Monux. ELHUYAR

Wolfram Deunarekiko 'fedea' gorantz, zientzia umorez azaltzeari esker

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldien barruan klasiko bihurtu den Wolfram Deunaren bosgarren edizioak "luxuzko" zortzi hizlari izan ditu aurten; zientzia gizarteratzeko antolatzen du Elhuyarrek, Udalaren eta Laboratoriumen laguntzarekin

Jokin Bereziartua BERGARA

Ez daude Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldiak (ZTB) ulertzerik Wolfram Deuneko ospakizun barik. "Zientzialarion artean espiritualetan ez dago oso hedatua eta santurik ez dugu. Horregatik, gure santua sortu genuen, Wolfram Deuna. Ondo pasatzeko sortu genuen, festa ospatzeko; betiere, zientzia aitzakia eta umorea bidelagun hartuta. Seminarixoa beteta eta jendea barrez ikustea... Ezin dugu gehiago eskatu, benetan", adierazi zuen Elhuyarko zientzia komunikatzaile Ana Galarragak.

Elhuyarrek zientzia gizartera hurbiltzeko asmoz antolatutako ekitaldia da Wolfram Deuna, Udalaren eta Laboratorium museoaren laguntzarekin; ekitaldia irekia izaten da eta urtero batzen du jende askotxo.

Zientzia ulertzeko zortzi modu

Wolfram Deunaren bosgarren edizioa bizi izan zuten martitzenean Seminarixoan. "Luxuzko" zortzi hizlari igo ziren agertokira, "umorezko bakarriketa zientifiko-homeopatiakoak" eskaintzera. Denetarikoa gaiak aukeratu zituzten zortzi hizlariak; asko, fisiologiarekin lotutakoak: obulazioaren gorabeherez aritu zen Idoia Torregarai umoregilea; digestioaren eta haren emaitzaren gainean Koldo Garcia genetika; eta ipurdiaz Josu Lezameta euskara-irakaslea. Itxuraz serioagoak

ONDO PASATZEKO SORTU ZUTEN, ZIENTZIA AITZAKIA ETA UMOREA BIDELAGUN HARTUTA

diren gaiekin ere algaraka jarri zuten publikoa Josu Lopez-Gazpio kimikariak eta Lorea Arakistain komunikatzaileak. Heriotzaren kimikaz eta teknologia berrienez hitz egin zuten, hurrenez hurren.


Horrez gain, Nobel sari dibertigarrienak eta artista begano baten abentura "tristeak" izan zituzten berbagai Nagore Elu biokimikariak eta Oskar Gonzalez kimikariak. Bukatzeko, distira bereziz argitu zuen Seminarixoa Aranzadiko batxilergoko ikasle Jone Monuxek: astronauta jantzita irteten zen ohol-tzara, Pirritx, Porrotx eta Marimotots estratosferara bidaltzeko misioa azaltzera.

Parekidetasuna, "ezinbesteko" Hizlariak gonbidatzeko orduan, antolatzaileek argi dituzte bi baldintza: batetik, parekideta-

sunak; eta, bestetik, ez dutela inor gutxiesten ezagutza mailarengatik. "Guretzat ezinbestekoa da emakumezko eta gizonen kopuru berarekin osatzea bakarlariren taldea. Gainera, zientzia-zaleak eta zientzialariak leku eta maila berean tratatzen ditugu. Hau da, ez dugu inor gutxietsiko bere ezagutza mailarengatik. Aurten albiste eder bat izan dugu alde horretatik, gainera. Batxilergoko ikasle bat animatu zaigu bakarriketa egitera eta guk izugarri eskertzen dugu; gure balioen adierazgarri ba-


"LUXUZKO" ZORTZI HIZLARI IZAN DIRA AURTEN ERE; TARTEAN, BERGARAKO 17 URTEKO IKASLE BAT

Zertaz aritu zara zure bakarriketan?



JONE MOÑUX GARCIA
ARANZADI IKASTOLAKO IKASLEA

"Pirritx, Porrotx eta Marimotots estratosferara bidali izana nolako esperientzia izan zen kontatu dut. Oso ondo egon zen, izugarri ikasi nuen. Urduri jarri nau halako ekitaldi handi baten parte hartzeak, baina ikasi dudanak bizitza osorako balioko dit. Aukera ederra da halakoak norberaren herrian antolatzea".



JOSU LOPEZ-GAZPIO
KIMIKAN DOKTOREA

"Heriotzaren gertatzen diren prozesu kimikoez aritu naiz, asko dago-eta kontatzeko. Hainbat era daude kimika hurbiltzeko eta lan horretan umorea oso tresna egokia izan daiteke. Ekimen oso interesgarria da; ondo pasatzen dugu hizlariok eta uste dut hurbiltzen direnentzat ere esperientzia gustagarria dela".

ZTB jardunaldien azken asteburua dator

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldiak asteburu honetan bukatuko dira, publiko orokorrari zuzendutako azken traka indartsu batekin. Gaur, elementu kimikoen taula periodikoaren erakusketa inauguratuko dute Laboratoriumen (12:00), unitate didaktikoa aurkeztearekin batera. Bihar, Wolfram Encounter bideo jokoen lehiaketa izango dute Zabalotegin, 10:00etatik 21:00etara; azken urteetan asteburu osoko topaketa izan den arren aurten egun bakarrekia izatea erabaki dute antolatzaileek. Amaitzeko, zapaturako eta domekarako, *Bergaran artea eta zientzia* uztartuz tailerraren laugarren edizioa antolatu dute Laboratoriumen; ilustrazio botanikoa izango da aztergaia. Urriaren 28a ezker, ZTB jardunaldietan, hainbat hitzaldi, erakusketa, lehiaketa eta ikuskizun izan dira Bergaran.

dela esango nuke", gaineratu du Galarragak. Mirari Martiarena aritu zen aurkezle lanetan, bakarlari bakoitza umoretik aurkezten, eta txalo-zaparrada beroarekin amaitu zen ordubete pasatxo iraun zuen ekitaldia.

Elhuyar: "Oso polita da guretzat" Elhuyarrentzat urteko ekitaldi berezienetako bat da ZTB jardunaldien barruan antolatzen den Wolfram Deuna. Azken bi urteetan Seminarixoan egiteak "ukitu berezia" ematen dio ikuskizunari. "Bergaran egitea, eta bigarrenaz Seminarixoan, Elhuyar anaiek gaur egun horren erabilia den wolframa isolatu zuten lekutik oso gertu... Oso polita da guretzat", esan zuen Galarragak. Herritarrez gain, zientziarekin lotura duen EITBko *Teknopolis* saioak urtero jasotzen duen ikuskizuna da.



Euskara plana zabaltzeko ikus-entzunezkoan parte hartu duten ordezkarietako batzuk, martitzeneko agerraldian. TXOMIN MADINA

Euskararentzat Bergara arnasmune izateko lanean

2019tik 2022ra arteko euskara sustatzeko ekintza planaren berri emango du Euskara Zerbitzuak etxez etxe banatuko den liburuxka batekin. Gaur egungo ahulguneetako bat da mutil gazteen arteko erabilera apala; indargune nagusia, guraso gazteen etxeko erabilera

Jokin Bereziartua BERGARA

Euskara Bergarako ohiko hizkuntza izatea, Bergara euskararen arnasmune izatea. Horixe da euskara sustatzeko 2019tik 2022ra arteko ekintza planaren helburu nagusia. 2018ko abenduaren 17an udalbatzak aho batez onartutako plana da, eta herritarrei zabaltzeko bi euskarri erabiliko ditu Udaleko Eus-

kara Zerbitzuak: herriko etxe-tara banatuko den liburuxka eta ikus-entzunezko bat.

Liburuxkak planaren laburpena jasotzen du, eta azken aurreko orrialdean edozein herritar edo entitatek dituen aukerak azaltzen dira: euskara ikasteko, ahoz zein idatziz erabiltzeko, edo beste mota bateko aholkularitza jasotzeko. Etxe guztietara

banatuko da eta gaztelaniazko bertsioa webgunean kontsultatu ahal izango da. Bideoak, bestalde, euskara sustatzearan inguruko bizipenak azaltzen dituzten hamasei herritarren testigantzak jasotzen ditu. "Eskerrak eman nahi dizkiegu bere garaian plana diseinatzeko aritu zirenei eta bideoan parte hartu dutenei. Plana irekia da, euska-

ra guztion ardura delako, denon ilusioa eta denon eginkizuna".

Bergarren %69 da euskalduna

Euskara gaitasunaren Eustat-en 2016ko azken neurketaren arabera, %69 euskalduna da, %18 erdalduna eta %13 ia euskalduna; 2001a ezkerro ez da aldaketa aipagarri izan gaitasunari dagokionez. Erabilerari erreparatuta, ordea, badago datu aipagarri bat: 2000ko hamarkadan izan zen erabileraren gorakada moteldu egin da azken hamarkadan; umeen eta gazteen artean erabilera egonkortuta dago, helduetan goranzko joera ageri da eta zaharren artean euskarak gero eta presentzia txikiagoa du.

Ahulgune eta indargune bana

Populazio osoa kontuan hartuta, emakumeek euskara gehiago erabiltzen dute gizonezkoek

baino; alde hori umeengan eta, bereziki, gazteengan gertatzen da. Hau da, egungo ahulgune nabarmenetako bat da mutil gazteen artean erabilera apala duela euskarak. Bestalde, euskararentzat gaur egungo indargune garrantzitsuenetako bat da guraso gazteen etxeko erabilera; izan ere, hamabost puntu inguru egin du gora azken hamar urteetan. Hala ere, populazio osoa aintzat hartzen bada etxeko erabilera egonkortuta dago, zaharren artean jaisuten ari delako –gero eta gizarte zaharragoa da Bergarakoa–.

**EUSTAT (2016):
BERGARAREN %69
EUSKALDUNA DA, %18
ERDALDUNA ETA %13
IA EUSKALDUNA**

Arimen Gaua ludoteketan

Goiena komunitatea


Jardun euskara elkarte / BERGARA

Urriaren 31n Arimen Gaua ospatu genuen Oxirondoko, Angiozarko eta Osintxuko ludoteketan. Aste osoan zehar zita berezi horren inguruko lanketa egin genuen, eskulaneekin eta bestelako ekintzekin; egun bat lehenago, esaterako, kalabazak husten eta apaintzen aritu ginen. Gaztetxoek primeran pasatu zuten.




JARDUN EUSKARA ELKARTEA

Zein da euskararekin duzun harremana?



KRISTINA BUIHER EUSKALDUN BERRIA (HERBEHERETARRA)

"Ikasten ari naiz oraindik. Duela urte batzuk hasi nintzen Berriketan ekimenean parte hartzen eta horri esker gaur da eguna jende askorekin euskaraz hitz egiten dudana. Euskara oso presente daukat buruan. Oraindik asko daukat ikasteko, baina nirekin pazientzia duen jendearekin moldatzen naiz".



MAITANE ETXEBARRI IKASLE BERGARARRA

"Euskaraldian *Ahobizi* rola hartu nuen eta, ordura arte ez bezala, aitarekin euskaraz hitz egiten hasi nintzen. Etxe barruan eragiten saiatzeko erronka jarri nion nire buruari, eta lortu nuen, ordutik euskaraz egiten dut-eta aitarekin. Ohitura aldaketa ez zen erraza izan, baina poliki-poliki lortu daiteke".

Maitasun erromantikoa suntsitzeko ikastaroan izena eman daiteke

Jabekuntza Eskolak azarorako eta abendurako antolatu dituen ikastaroen artean, *Tuppersex feminista* deritzona egingo dute azaroren 11n, 13an eta 14an; izen-ematea itxita dago. Hala ere, abenduaren 3an, 10ean eta 17an egingo den maitasun erromantikoa suntsitzeko ikastaroan izena eman daiteke: 943 77 91 00 edo berdintasuna@bergara.eus.



Matxiategin haizeak botatako zuhaitza. GOIENA



Udaltzainak Usondo parkean haizeak eragindako kalteak aztertzen. GOIENA



Matxiategin erorritako zuhaitzak eragindako kalteak. GOIENA

Kalte ugari izan dira egunotan, haizearengatik

Matxiategin zuhaitzak lurrera bota ditu haizeak eta Usondo parkean ere arrama asko apurtu ditu. Elorregirako bidegorriko hainbat tokitan ere zuhaitzak lurrera erori dira. Gainera, garbiketa lanak direla-eta itxita egon da Usondo parkea asteen

Jone Olabarria BERGARA

Haizeak gogor jo zuen zapatutik domekarako gauean Bergaran, eta, horren eraginez, hainbat kalte material sortu zituen herriko hainbat gunetan, batez ere, lurrera botatako zuhaitz eta arramen ondorioz. Hori dela eta, Bergarako Udaleko brigadako langileak lanean aritu ziren goiz osoan zehar, erori-

tako zuhaitzak kendu eta kaleak garbitzen.

Kaltetutako gunetan hesiak jarri zituzten eta udaltzainak kalteak baloratzen aritu ziren. Ondorioz, eta segurtasuna bermatze aldera, herriko parkeak itxi egin behar izan zituzten. Hain zuzen, udaltzainek jakinarazi dutenez, "aste honetan zehar Usondo parkea itxita egon da,

segurtasun neurriengatik eta garbiketa lana zirela eta".

Askotariko kalteak

Besteak beste, Matxiategin eta Elorregirako bidegorriko hainbat tokitan zuhaitzak lurrera bota zituen haizeak eta Usondo parkean ere arrama asko apurtu zituen; horretaz gainera, zaborra batzeko edukiontzietako

ko tapa asko ere lurrean agertu ziren, eta baita etxe ugari-tako loreontziak eta toldoak ere. Eguaztenean bertan, hilak 6, haizeak teila batzuk bota zituen Matxiategi kalean.

Matxiategin, prebentzioan

Joan den urtarrilean, esate baterako, Matxiategi kaleko pasealekuan dauden 32 ezkien erdiak bota zituzten. Orduan Udaletik azaldu zutenaren arabera, "bizilagunen eskaera bat" izan zen, fatxadetatik "gertuegi" zeudelako eta batzuk "ez zeudelako osasuntsu". Aurretik ere haizeak hilerriko zuhaitz handi bat bota zuen Matxiategin eta auto baten gainera erori zen. Orduan azaldu zutenenez, "espalo askotan gertatzen denez, lurra altxatuta ere, askotan, ez da jakiten azpian zer aurkitu daitekeen".

Aurretik ere, hainbat kalte

Aurtengo martxoan haize bolar indartsuek bete-betean jo zuten Ikerleku kantoiko 2. zenbakian, eta fatxadako zati handi bat erori zen. Kale bereko 4. zenbakiaren teilatu gainera erori zen eta zati batzuek kalean amaitu zuten. Etxebizitza horietako batek ere pareta oso bat galdu zuen.

Parkeak, bereziki kaltetuak

Horrez gain, Bergarako Usondo parkearen erdian zegoen zuhaitza bota zuen haizeak 2017ko urtarrilean. Sustraia ez, baina nahiko behetik bota zuen sendoa zen zuhaitza. Parke horretan arrama batzuk ere bota zituen orduan. Santa Ana parkea ere itxi egin behar izan zuten, han ere zuhaitzak bota zituelako haizeak; parke sarrerako palmera bat, adibidez.

Nomadak-en bi artelan herrian

Irantzu Lekue eta Esteban Loechbor izan dira Nomadak proiektuaren baitan Bergaran egindako lehen bi artelanen egileak. Lekuek bertain-etxearen azpian dagoen zubipean collagea egin du: "Bergarara ekarri zuten lehen lokomotorraren argazki historikoa margotu dut, baita emakume bat trena gidatzen".



GOIENA

OHARRAK

1933an jaiotakoen kintada, azaroaren 24an

12:00etan meza Santa Marinar eta 14:00etan bazkaria batzokian. Izena emateko, azaroaren 20a baino lehen, Garbiñe edo Mireni deitu behar zaio: 943 76 24 04 edo 943 76 16 00.

1935ean jaiotakoen kintada, azaroaren 17an

1935ean jaiotakoek kintada izango dute azaroaren 17an, domeka, Bergarako Lasa jatetxean. Izena emateko, 943 76 18 52 edo 943 76 21 13 telefonoetara deitu behar da.

1970ean jaiotakoen kintada, azaroaren 16an

Elgetako Bolatokian egingo dute bazkaria eta 13:00etan Pol-Pol tabernan batuko dira. Izen ematea, Sugoi dendan (943 76 59 54).

Mikel Linazisoro, Espainiako Txapelketan, Iruñean. *Overall* formatuan onena izan da bergararra. EUSKADIKO MENDI FEDERAZIOA

Alberto Gines, Mikel Linazisoro eta Bittor Esparta. EUSKADIKO MENDI FEDERAZIOA

Espainiako txapelkun, Iruñean

Mikel Linazisorok Espainiako txapelketako gorenean amaitu du urtea. Bergarakoa *overall* formatuan nabarmendu da; hau da, modalitate guztien batuketan: abiadura, blokea eta zailtasuna. Olinpiar Jokoetan ere formatu horretan jardungo dute.

Linazisorok oraindik ez ditu aukera guztiak erre

Belauneko lesio batek eragotzi dio Mikel Linazisorori azken hilabeteotan ondo entrenatzea; hala, Japonian eta Txinan jokatu berri dituzten Munduko Kopako probetan bergararrak ez du Olinpiar Jokoetarako sailkatzerik izan. Baina ez du azken hitza esan

Xabier Urzelai ARRASATE

Mikel Linazisoro ez dago Tokio 2020rako aurre-aukeratuen zerrendan, oraingoz. Bergarakoak Asian jokatu berri dituzten Munduko Kopako probetan ez du aurrean egotarik izan, belau-neko lotailuan izandako zaintiratu batek gura baino gehiago baldintzatu du-eta denboraldi amaiera, baina Bergarakoak ez

du azken hitza esan: "Apirilean Europako Txapelketan beste aukera bat izango dut; bala hori gordeta dut oraindik".

Hala, lesioa ahalik eta modu positiboenean hartu eta Linazisorok lanean jarraitu du, asteburuan Espainiako txapelketan saria iritsi zaion arte. Izan ere, bergararrak Iruñean jokatu duten Espainiako txapelketa ira-

bazi berri du, *overall* formatuan. Hala, Bergarakoak podiumaren gorenean agurtu ahal izan du 2019ko denboraldia.

Hiru diziplinen batuketa

Overall formatua da Olinpiar Jokoetan gailendu den formatua, eta horregatik da garrantzitsua hor nabarmenatzea. Modu sinplean esanda, eskalatzaile osoa saritzen

du formatu horrek, azkartasuna, blokea eta zailtasuna batzen dituelako.

Espainiako txapelketa joan den eguaztenean hasi zuten, eta bost egunez Rocopolisko roko-dromoan jardun zuten eskalatzaileek. *Overall* formatua, baina, egun bakarrean erabaki zuten. Hala, Euskal Selektzioak hamar domina lortu ditu maila ezberdinetan, eta horietako hiru Linazisorok jantzi ditu.

Ondoen, abiaduran

Espainiako txapelketan Bergarakoak azkartasuneko modalitatean jardun zuen ondoen: "Oso eroso sentitu nintzen hasieratik modalitate horretan". Hain zuzen, hori izan zen hiru modalitateetan lehena, goizeko lehen orduan jokatu zutena, eta Linazisoro izan zen irabazlea, 7 segundo eta 84 ehuneneko denbora egin-

da. Blokeko diziplina izan zen bigarrena; bertan, eskalatzaileek zailtasun handiko hiru bloke gauditu behar izan zituzten. Bittor Esparta bizkaitarra izan zen hiru blokeak kateatu zituen bakarra eta Bergarakoak bi bloke kateatuta hirugarrena izan zen. Eguna amaitzeko, zailtasun diziplinan jardun zuten, eta gizonezkoetan, inork ez zuen *top*-a egiterik lortu.

Hala, azken txapelketa honek Bergarakoaren urte ona borbildu du: "Urte emankorra izan da, nahiz eta nazioarteko azken probak ez ditudan ondo egin".

"EUROPAKOAN BESTE BALA BAT DUT OLINPIAR JOKOKOETARAKO SAILKATZEKO"

Pilota eskolan 138 pilotari dituzte; tartean, hamar neska

Bergarako Pilota Elkartek pilotari eskolaren gainera datuak ezagutarazi ditu, izena emateko lehen epea pasatu den honetan. Guztira, 138 pilotari dituzte, eta horietatik 31 pilotarik dute lizentzia. Neskei dagokienez, hamar pilotari gazte dituzte eskolan, eta horietako lauk dute lizentzia. Urtarrilean zabalduko dute izen-ematea oster.



Bergara Hiriaren une bat. GOIENA

Soraluce BKEk Donibanerren kantxan du hitzordua bihar

Gipuzkoako txapelketan hiru jardunaldi jokatu ditu etxeko taldeak, eta orain artean denetarik emaitzak batu dituzte: garaipen bat, berdinketa bat eta porrot bat. Hala, Soraluce BKE Donibanerren kantxan, Pasaian, ahaleginduko da zapatuan ligako bigarren garaipena eskuratzen (zapatua, 17:00). Joan den astean, 34-26 irabazi zioten Ordiziari.



Legazpiren kontrako lehian. GOIENA

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

'Musika airean': organoa birgaitzeko kontzertua

Santa Zezilia egunaren baitan antolatu dute kontzertu sinfoniko-koral irekia azaroaren 22rako, Santa Marina elizan. Sarrerak salgai daude dagoeneko eta bertatik batutako dirua San Pedro elizako organoaren konponketara bideratuko dute

Jone Olabarria BERGARA

Azaroaren 22an ospatuko den Santa Zezilia eguna iragartzeko prentsaurrekoa egin zuten astelehenean Bergarako San Pedro parrokian. Aurten kontzertu "berezia" egingo du Bergarako Musika Eskolak, Udalaren laguntzarekin, eta, hain zuzen, San Pedro elizako organoaren konponketarako dirua batzea da helburuetako bat.

Egoera "txarrean"

Stoltz-Freres etxeko organoa "egoera txarrean" dago egun; hauspoak kaltetuta ditu eta birgaitze beharrean dago. Honela azaldu du Kristina Markina Kultura zinegotziak: "Organoak konponketa ugari behar ditu, baina horrek diru asko eskatzen du. Momentuz, elizkizunetarako erabiltzen den arren, organo zikloetarako Santa Marinakoa erabili behar dugu".

Kontzientziazio bila

Hain zuzen, 120 pertsona inguruk hartuko dute parte "organoaren garrantziaz eta egoera larriaz kontzientziaztea" helburu duen kontzertuan.

Herriko hainbat taldek parte hartuko dutela azaldu du Marije Ugaldek, Musika Eskolako zuzendariak: "Bergarako Musi-



Astelehenean San Pedro parrokian egindako aurkezpena. MAIALEN SANTOS

"ORGANOAK KONPONKETA UGARI BEHAR DITU, BAINA HORREK DIRU ASKO ESKATZEN DU"

ka Eskolako Orkestra Sinfonikoa, Bergarako Musika Eskolako Haurren Abesbatza, Bergarako Orfeoia, Aritzeta Abesbatza eta Bergarako hainbat musikari eta abeslari. Kanpotik ere hainbat musikari etorriko dira".

Sarrerak, hamar eurotan

Astelehena ezker eskuragarri daude sarrerak; Musika Eskolako idazkaritzan aste barruan 15:30etik 19:00era bitartean edo Seminarixoa ostegunetan 18:00etatik 20:00etara eskuratu daitezke, hamar euroren truke, nahiz eta nahi duenak gehiago eman dezakeen organoaren konponketa-lanetarako. Egunean bertan ere Santa Marina parrokian eskuratu ahalko dira sarrerak. Lagundu nahi dutenentzako sarrera bereziak ere jarri dituzte eskuragarri.

'La trinchera infinita' filma gaur gauean iritsiko da Seminarixora

Domekako saioaren aurretik, zuzendariak aurkezpena egingo dute, eta osterako solasaldia antolatu dute

Jone Olabarria BERGARA

Aurreko asteburuan estreinatu zuten *La trinchera infinita* filma zinema aretoetan eta gaur iritsiko da Bergarako Seminarixoa aretora, gaueko hamarretan.

Hain zuzen, domekan eta astelehenean ere eskainiko dute; gainera, domekan, filma aurkezten eta solasaldian arituko dira pelikularen zuzendariak. Hala, lanaren nondik norakoak azaltzeaz gainera, bertaratzen direnek iritzia eman eta solasaldian aritzeko aukera ere izango dute.

Filma arrakasta handia lortzen ari da publikoaren artean eta Donostia Zinemaldian lau sari jaso zituen; tartean, zuzendari eta gidoi onenen saria. Filmak etxean gotorpean, beldurratikatik, 33 urte ematen dituzten gizon baten eta bere inguruko inestorioria kontatzea du helburu.

Emanaldi ugari

Esan bezala, gaurko emanaldiaz gain, domekan ere filma ikusteko aukera izango da, 19:30ean; eta astelehenean, 20:30ean hasita. 5 euroren truke.

Saia Goait eta Hartz taldeen kontzertuak kartzela zaharrean

Egubakoitzak berreskuratzen ekimenaren baitan, kontzertuak egongo dira gaur kartzela zaharrean, 22:30ean hasita. Taula gainean arituko da Saia Goait mutrikuar laukotea, stoner-rock eta hard-rock doinuekin. Bestalde, Urola Garaiko Hartz taldeak ere kontzertua eskainiko du; kaleratu berri duten *Gaueko* lana aurkeztuko dute.

Txapa irratia programazio berria aurkeztuko du

Txapa irratiko denboraldi berriko programazio aurkezpena egingo dute domeka honetan kartzela zaharrean, eguerdiko hamabietan. Irratsaio guztiak aurkeztuko dituzte eta bitartean, bermuta eta jatekoa egongo da. Ostean, Aitor Eskobarren flamenko kontzertuaz gozatzeko aukera izango da eta sarrerek 5 euroko prezioa izango dute.



BERGARAKO UDALA

Helburua, 400.000 euro inguru lortzea

Organoa guztiz birgaitzeko 400.000 euro inguru behar dituzte, eta hain zuzen, hamar urte baino gehiago darabiltzate lan horretan, kontzertuak eta ekintza solidario ugari antolatuz.

Diru bilketa hiru fasetan egitea aurreikusten dute, bakoitza 100.000 euro baino gehiagokoa. Lehen fase honetan, momentuz, 55.000 euro inguru batu dituzte.



San Pedro parrokiako Stoltz-Freres organoa. GOIENA

Dantza txapeldunei omenaldia

Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan batuta, omenaldia egin zien Bergarako Udalak, Moises Azpiazu dantza taldeko kideekin batera, Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo dantza txapeldun gazteei, astelehen arratsaldean. Senideez eta lagunez gain, herriar ugari ere bertan egon nahi izan zuten.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behe / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behe / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealedea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

JULEN MURUAMENDIARAZ KIROPRAKTIKA ZENTROA

Bergara / Ibargarai 41 / 688 80 16 72

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.



Herriar bat, pilotaleku alboan dagoen olio bilketa gunera bidean. MAIDER ARREGI

KPlaren igoera izango dute 2020ko udal zergek

%0,5eko igoera izan du 2018ko urritik 2019ko urrira bitartean KPlak, eta tasa hori ezartzea adostu dute EH Bildu eta EAJ alderdiek. Gizarte Zerbitzuetako tasek, aldiz, aurtan ere ez dute igoerarik izango; alderdi sozialistak aurkako botoa eman du

Maidar Arregi ANTZUOLA

2020ko zerga ordenantzen hasierako onepenari oniritzia eman diote EH Bildu eta EAJ alderdiek urriko ohiko osoko bilkuran. Adostasuna lortu dute eta KPlaren arabera igoera izango dute udal zergen tasek. Aurtan ere, Gizarte Zerbitzuetako tasei ez zaie igoerarik aplikatuko.

2018ko urritik 2019ko urrira %0,5eko igoera izan du KPlak. Eta igoera hori izango dute, hain zuzen ere, Antzuolako udal zergek 2020an. EH Bilduren eta EAJren aldeko botoei esker onartu da ordenantza fiskalen hasierako onepena. Alderdi sozialistak aurkako botoa eman du. "Harreman ona dugu, baina komunikazio handiagoa gurako nuke izan. Feedbackik ez dago eta uste dut akordio pluralagoak lortuko genituzkeela antzuolarrindako", argudiatu du alderdi sozialistako Miren Gallastegi bozeramaileak.

Beñardo Kortabarriak gaineratu du batzar guztietara joate-

ko gonbidapena jasotzen duela alderdi sozialistak.

%0,5eko igoera


Gizarte zerbitzuetako tasek izan ezik, gainontzeko zergek %0,5eko igoera izango dute. Bestetik, baserriek ezartzen zitzaizkien OHZ (IBI) bikoitza kentzea adostu dute aurtan. EAJko Basilio Ormazabal bozeramaileak gogora ekarri du iaz ere errekarua kentzearen alde egin zutela: "Baserrien zerga errekarua horren kontra gaudela adierazi izan dugu; gure programan ere halaxe jasoa geneukan. Gaineratu behar dut ados gaudela KPlaren igoera ezartzearekin. Hala ere, guk egindako kalkuluen arabera uste dugu hondakinen

BASERRIEI EZ ZAIE OHZ (IBI) BIKOITZAREN ERREKARGUA EZARRIKO 2020TIK AURRERA

bilketa sistema defizitarioa dela eta urtero 15.000-20.000 euro gal-tzen dituela Udalak".

EH Bilduko alkate Beñardo Kortabarriak, ordea, argitu du hondakinen bilketa zerbitzua, beste zerbitzu asko bezala, Udalak eta herriarrek ordaintzen dutena dela: "Zaborra jasotzea, garbiketa zerbitzua, aguazilaren lana... herriak eta Udalak, bien artean ordaintzen dute. Udalarik kostatzen zaion guztia, aldiz, ez zaio herriarrei kobratzen. Eta defizita egon badago, baina udalen sistema holako hau delako; hau da, lehenik, zergak biltzen dituzu, eta gero kobratzen duzu. Hondakinen kasuan, Mankomunitateak ematen du zerbitzua beste batzuekin batera eta diferentzia hori badago. EAJk, ordea, tasaren igoera proposatzen du eta ez dakit hori den aukera onena. Agian, gerturatzen joan beharko genuke zerbitzua hobetzeko eta merkeagoa izateko".

Tasak onartu aurretik, hila-betez jendaurrean egingo dira.



Gazte bat bideo joko batean jokaten. 'CCSEARCH.CREATIVECOMMONS.ORG'

Bideo jokoan eta Interneten erabilera okerra aztergai

Adikzioen gainean berba egingo du Emoki elkarteak azaroaren 12an, martitzena, Olanaren, 18:00etan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Adikzioen gaineko hitzaldia antolatu dute Antzuolako Udalak eta Pausoka guraso elkarteak. Bideo jokoan, Interneten eta sare sozialen erabilera okerrak dakarten ondorioak aztertuko dituzte. "Menpekotasunaz eta gehiegizko erabileraz jardungo dugu. Izan ere, menpekotasun hori areagotzeko zenbait mekanismo erabiltzen dituzte bideo jokoek eta zenbait aplikaziok", azaldu du Emoki elkarte Ainhoa Arruabarrenak. Era berean, nerabeei laguntzeko gurasoek kontuan hartu beharrekoak ere aztertuko dituzte azaroaren 12ko solasaldian. "Helburua da hobeto eta seguruago erabiltzea tresna eta joko hauek. Zein ondorio izan ditzaketen ikustarazi gura dugu".

4. eta 5. LHtik batxilergora bitarteko gazteendako eta euren gurasoendako hitzaldia da.

Pantailek mugak dituzte

"Mugak jartzearen ardura gurasoena da. Txikiak direnetik -6 edo 7 urtetik- erakutsi behar zaie kudeatzeko; izan ere, DBHra iristean zailago da", argitu du.

Mugikorrek ez daudela adikzio gisa jasota ere badio; bai, ordea, bideo jokoak. "Sare sozialen kasua; oso zabaldua dago gizartean gazte zein helduen artean. Berez, ez dago gaitz gisa jasoa. Baina kontrolpetik irteten denean eta egunerokotasunean eragin negatiboa badu, arazoa bada-goela ikus dezakegu. Bideo jokoetan, aldiz, muturreko kasuak azaleratzen dira: etxetik ez irtetea, higiene falta, harremanak izateko arazoak...".

Hala, egunean bi ordu baino gehiago pantaila aurrean ez igarotzea aholkatzen du Emokik. "Zaila da bizi garen gizartean, baina gehienez bi ordu eman beharko genituzke orotara".

Frantses iturria, herriari irekita

Arrolak antolatuta, bihar, azaroak 9, Frantses iturria txukuntzeko auzolana egingo dute. Ondoren, iturri berriaren inaugurazioa izango da. "Goizeko bederatzieta elkartuko gara Basalde auzoan. Helburua ingurua garbitzea eta iturriko urari norabide egokia ematea izango da. Bide batez, oroigarria jarri eta hamaiketako egingo dugu; animatu!".



"Denok daukagu maitatzeko ahalmena"

JESUS MARI MATA BARNEKOTASUNAREN HEZIKETAN ADITUA

Buruaren eta gorputz barruaren arteko oreka ezinbestekoa da zoriontasun osoan bizitzeko. Erraza ez den arren, Matak emozioak bideratzeko gakoak ematen ditu

Maider Arregi ANTZUOLA

Hamar urtetik gora daramatza Jesus Mari Mata antzuolarrak barnekotasuna lantzen. Helduekin nahiz haurrekin egiten ditu doako saioak Antzuolan. Ikastaroak oihartzun handia du eta debagoiendar askok parte hartzen du. Nor bere buruarekin bakean bizitzea eta zoriontsu izatea dira saioaren helburue-tako bi.

Zergatik da horren zaila gure barrua entzutea?

Hasieran, ematen du zaila dela, baina, behin bidea jorratzen hasten zarenean, onurak berehala datoz. Gure emozioen eta sortzen diren zurrunbiloen menpe bizi gara. Harrigarria da, ordea, gure gorputza zein ondo egokitzen den eta prestatua dagoen; izan ere, denok daukagu alaitasuna barruan eta maitatzeko sekulako ahalmena. Indar handia daukagu eta denon barruan daude gaitasun horiek. Psikologiaren oinarria dira. Inguruko faktore zein pentsaeren ondorioz, zaila da errealtate horrekin konektatzea. Hala, barrua ondo kudeatzen ikasiz gero, daukagun indar hori azaleratzea lortzen da.

Haurrekin ere landu duzu.

Haurrek euren errealtatearekin eta aipatu dugun maitasunarekin oso erraz konektatzen dute. Gure saioetan ikusi dugu sekulako beharra dutela isiltasunean egoteko eta gozatzeko. Esparru horrekin konektatzeko nahiz ukitzeko beharra dute. Oso erakargarria egiten zaie, gainera. **Noiztik datorkizu meditazioaren aldeko hautua?**

Bi seme dauzkat eta bigarren semearen guraso taldearekin zenbait dinamika egiten genituen. Emazteak eta biok ordurako meditazio praktiketan ibilbidea egina geneukan. Isiltasunarekin disfrutatzen genuen eta haurrekin partekatzea ideia ona izango zela pentsatu genuen. Gure



Jesus Mari Mata, asteen, Goiena telebistako platoan. MAIDER ARREGI

"HAURREK SEKULAKO BEHARRA DUTE ISILTASUNEAN BARRUAZ KONEKTATZEKO"

sorpresarako, haurrek lehen saioarekin gozatu egin zuten eta beste bat egiteko ere eskatu ziguten. Orain dela 13 urte, gai honen inguruko oso material gutxi zegoen merkatuan eta gu esperimentatzen eta probatzen hasi ginen. Orain, *mindfulness*-a eskola indartsua bilakatu da. Metodologia honen garrantziaz jabetu da gizartea eta ebidentzia zientifikoak badaude. Gure saioan, esperimendu egin genuen. Plazera da haurrak etzanda daudenean nola egoten diren ikustea. Oso erraz konektatzen dute barruarekin.

Helduekin ere lantzen duzu barrua. Arrapaladan bizi den gizartearen praktika horien beharra dagoela sumatu duzu?

Denok dugu geure buruarekin ondo bizitzearen grina. Aurrez aipatu dudan errealtatearekin konektatzeko beharra dugu eta

hori lortzen ez dugunean sufritu egiten dugu. Abiadura buruarekin konektatuta ez zaude-nean azaltzen den sintoma bat baino ez da. Horrekin ohartzten bagara, eta barruaren eta buruaren arteko orekaren bila joaten bagara, gure bizitza kalitatea izugarri hobetzen da.

Arreta eta isiltasunarekin batera, psikologia ere lantzen duzu.

Bai, barruan sentimendu bat bueltaka –ez aurrera ez atzera– dugunean psikologoarengana joan behar dugu. Besoa apurtzen badugu traumatologoarengana joaten garen moduan. Psikologoan inbertitzeak itzulera oso ona dauka. Zure bizitza beste era batean bizi izatean inbertitzea da eta. Bizitzeak bakoitzaren bizitzaren interpretazioan datza. Teknologia beste aurreratu du psikologia.

Hezkuntzan ere murgildu zarete.

Bailaran zortea dugu. Bergarako Mariaren Lagundian hasi ginen; Oñatiko beste ikastetxe batean ere jardun genuen. Orain, Arizmendik abiatu duen beste proiektu batean parte hartzen ari naiz. Gura duenak hileko azken martitzenetan Olanaren aurkituko gaitu, 18:30ean.

Antiguako presa, konponduta; errota, aldiz, konpontzeke

Errotari turbina berria jarri behar zaio berriro martxan jartzeko; horretarako, urmaela hustu behar da

M.A. ANTZUOLA

Antiguako presa 2018ko ekainaren 3ko uholdeen ondorioz apurtu zen. Ordutik geroztik, Antiguako urmaela –*Kuba* deritzotena– ur gabe geratu zen eta errota martxan egotea utzi zion. "Presaren mailatik hartzen zuen ura errota eta hau apurtzean ura ez zen urmalean sartzen. Apurtuta egon den bitartean, behin behineko irtenbide gisa ura hodi baten bitartez eramana da", dio Valen Moñux aparejadoreak.



Antiguako presa apurtuta. VALEN MOÑUX

Arazoak arazo, konpondu dute

Presa hormigoizko horma jarrita konpondu dute. "Urak bere maila hartu du eta *Kubara* sartzen da eragotzen gabe. Baina esan behar da arazoak izan ditugula benetako maila hartu duen arte". Errota, ordea, ez dago martxan, turbina bat apurtuta daukalako. "Urmaela hustu egin behar da

turbina berria jartzeko; Urak Agentziarekin adostu beharra dago eta horrek atzera dezake", dio errota arduratzen den Florentino Lamarianok.

Presaren konponketa Udalak egin du eta 8.000 euro inguruko kostua izan du.

OHARRAK

Errigorako saskiak

Errigorako saskiak eskatu ditzakete antzuolarrak. Azaroaren 19ra arte dute eskaera egiteko epea zabalik. Itzar liburu dendara jo beharko dute. Askotariko saskiak daude aurtan.

Kirolari onena aukeratu

Aurtan ere herriko kirolari onenari aitortza egingo zaio. Herritarrek 2019ko kirolari antzuolar kuttunena aukeratu dezakete, eta hautagaiak *Hirix* aplikazioaren bitartez bidali. Azaroaren 22a da hautagaiak bidaltzeko azken eguna. Azaroaren 24an hautagaien zerrenda kaleratuko du Udalak, herritarrek bozka dezaten. Irabazlea San Esteban krosaren ondoren jakinaraziko da.

MUJIKA HARATEGIA



*Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak*

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA



*Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak*

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Talde formatu berriak berbalagun programan

Laugarren ikasturtea du Elgetan Berbetan egitasmoak, eta hamasei bidelari eta zortzi bidelagun gerturatu dira, aurtan, ekimenera. Parte hartze kopurua handituz doa, baina bidelagun kopurua ez da neurri berean hazi, eta gizona ez dago

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Sei taldetan banatuta 22 lagunek dihardute mintzalagun Elgetan. Pare bat lagunek, gainera, bi taldetan hartzen dute parte.

Lau urteotan taldeen nolako-tasuna identifikatu diren beharretara egokitzen joan da. Sei taldeetatik hiruk eusten diote oinarritzko ereduari. Euskaraz jariatasunez hitz egiten duten bidelariak eta mintzapraktika premia duten bidelagunak elkartzen dira astean ordubetez. Hamaika taldekide dira, guztira; hiru bidelagun eta zortzi bidelari. Kopuruz talde handiena, ordea, hitanoz aritzeko elkartzen den *Hikalagun* taldea da aurtan. Sei kide dira; bi bidelagun eta lau bidelari. Herrian egindako hitano ikastaro batetik abiatu zen talde dinamika hori orain bi urte.

Kuadrillendako, 'Berbakuadri'

Iaz abiarazitako formatua da, eta hiru lagunek dihardute aur-




Martitzenetan elkartzen den berbalagun taldeko kideetako batzuk. L.Z.L.

ten taldean. "Iruñe inguruan dagoen formatua da. Gazte kuadrilletan eta berezkoa duten eremu naturalean hizkuntza ohitura berriak sustatzea du helburu", azaltzen du Elgetako koordinatzaile Geaxi Ezpeletak.

Hasiberriendako, 'Euskaralagun'

Berbalagun taldeetan parte hartzeko mailarik ez dutenei zuzendutako taldea da *Euskaralagun*. Elgetan lau kidek osatzen dute. "Batez ere, hiztegia lantzen dugu astean ordu eta erdiz".


Jolaslagun talde bat eratzeke eskaintza ere izan da, baina ez da irten. "*Gurasolagun* taldea egon izan da. Bada, gurasoak eta umeak elkartzea zen hemen proposamena, saioetan hizkuntza ohituretan eragiteko".



MARI BAGLIETTO

'BERBAKUADRI'-KO BIDELARIA


"Kuadrillan gaude eta eroso nago. Berez, saioetan benetan euskaraz egiteko gai bat prestatzen dut beti. Orain, beti egiten didate euskaraz biek".



ARANTXA ARRASTIA

'ARRATSALAGUN'-EKO BIDELARIA

"Oso ondo datorkit euskaraz hitz egiteko. Saioetatik kanpo ere taldekoekin euskaraz hitz egiteko ohitura hartzen da, gainera".



ALICIA GARCIA

'ARRATSALAGUN'-EKO BIDELARIA

"Animatuko nuke jendea parte hartzera. Hasieratik nabil eta euskaraz trebatzeko aukera izateaz gainera, jende berria ezagutu dut. Oso ondo dago".



BIKI SANTOS

'EUSKARALAGUN'-EKO BIDELARIA

"Bi taldetan nabil, eta pozik. Gero eta gehiago ulertzen dut. Talde berrian, gainera, hiztegia lantzen dugu eta kontsultak egiteko aukera dugu".

Gurasoendako bi formakuntza saio izango dira azaroan

Gaztaroen gerta daitezkeen testuinguru digitalarekiko eta jokoarekiko mendekotasunak landuko dituzte


L.Z.L. ELGETA

Gurasoendako bi hitzaldi antolatatu ditu Udalak Bideberri mankomunitatearen bitartez.

Lehenengoa azaroaren 17an, domeka, izango da. Gaztaroa eta jokoarekiko mendekotasuna izango ditu aztergai, besteak beste, Julen Sanchez hezitzaileak. Gaiarekiko kezka handia dago gizartearen, eta kontuan hartzeak izango diren jarraibideak eskainiko ditu adituak. Ikuspegi legaletik landuko du gaia, gehienbat. Saioa 18:00etan izango da, ludotekan.

Biharamunean, azaroak 18, Emoki elkarteak kide batek gidatuko du saioa. Gaia izango da gaztaroa eta testuinguru digitala. Neska-mutikoen egunerokoan teknologia berriek zer-nolako eragina duten aztertuko dute saio horretan; izan ere, bizimodu digitalak, hiperkonektibitateak eta pantailen bitartez beste pertsonakiko ditugun loturek eragina dute ingurunearen pertzepzioan, garapen pertsonalean eta besteekiko harremanetan. Saio hori udaletxean izango da, 18:00etan.

GORA ETA BEHERA



Elkartasuna SOS Afrika kanpainarekin

Jantziak eta oinetakoak biltzea izan da, aurtan ere, SOS Afrika kanpainaren helburua, eta eskolako familiek elkartasuna erakutsi dute, beste behin. Poltsa ugari batu dira.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Hiru saioko ipuin kontalari tailerra liburutegian

Udal Liburutegiak antolatuta, sei orduko ikastaroa gidatuko du Maider Galartza ipuin kontalari irundarrak Elgetan. Bina orduko hiru saio izango dira, eta hurrengo egunean, hilak 14, egingo dute lehenengoa, 17:00etatik 19:00etara. Interesatuek izena eman behar dute hilaren 12a baino lehen. Beste bi saioak hilaren 21ean eta 27an izango dira, eta ordutegi bera izango dute.

Neska-mutikoendako ipuin kontaketa egiten dituen kontalari talde boluntarioa dago herrian, eta, neurri batean, horiei zuzendutako formakuntza saioa da, baina ez da itxia, eta edonork eman dezake izena.

Ikastetxez ikastetxe 'jugger' jokoa zabaltzen

Jessica Ots eta Rouse Garcia 'jugger' jokariak dira. Gipuzkoan dagoen talde bakarraren sortzaileak dira, eta taldekide gehiago egiteko helburuarekin ari dira lanean. Esgrimaren eta errugbiaren arteko jokoa dela azaldu dute

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Alemanian sortu zuten *jugger* jokoa, 1989ko *Sangre de heroes* pelikulako eszena bat oinarri hartuta. Gure inguruan oso eza-guna ez den arren, nazioarteko txapelketak jokatzen dira, eta Espainian ehun bat talde daude. "Gipuzkoako talde bakarra da gurea. Bilbon beste bi daude, eta Gasteizen bat", azaltzen du Jessica Ots jokalaria eta entrenatzaileak. "Minik ez hartzeko arau oso zorrotzak ditu, eta erabiltzen ditugun armak goma-aparrekoeak dira", zehazten du jokalaria, bigarren entrenatzaile eta elkarteko presidente Rouse Garciak. "Kolpe bat edo beste hartzen dugu tarteka, baina ez beste kirol batzuetan baino gehiago". Taldeak mistoak direla eta txapelketetan lehiatzeko muga 14 urtetik gorakoa izateko dela zehaztu du. "Hainbat arma modalitate daude: ezpata motzak, ezpata eta ezkutua, ezpatakada, *Qtip*-a, bastoia, eta katea". Talde bakoitzak bere estrategia pentsatzen du eta erabakitzen du zein armarekin irtengo den lehiara, kontuan hartuta, betiere, ezin direla talde batean bi kate erabili. Helburua da *jugger* delakoa joko eremu batetik bestera eramatea. Hala, taldekideek lasterkaria babestu eta bidea



Rouse Garcia ezpata batekin eta Jessica Ots *jugger*-arekin, Elgetan. L.Z.L.

"AHALIK ETA JOKALARI GEHIEN NAHI DITUGU, EDO INGURUAN TALDE BERRIAK SORTZEA"

zabaldu behar dute. "Arerioak immobilizatzeko aukera dugu. Arma batekin ukitu behar ditugu, eta erabilitako armaren arabera immobilizazio denbora motzagoa edo luzeagoa izango da", dio Garciak.

Hiru urteko ibilbidea

Duela hiru urteko Euskal En-counterrean ikusi zuen Jessica Ots *jugger* erakustaldi bat lehenengo aldiz. Ikaragarri gustatu zitzaion eta lortu zuen inguruko bospasei lagunekin taldea osatzea. "Gasteizko lagun bat ere konbentzitu nuen han taldea sor zezan", azaltzen du, irribarretsua. Ikastetxeetan erakustaldiak eskaintzen hasi dira orain. "Zerbait berria da eta gazteek gustuko dute. Guk, gainera, jokariak behar ditugu, edo talde berriak sortzea".

Bost laguneko bi talde, aurrez aurre

Bost laguneko bi talderen artean jokatzen da *jugger* norgehiagoka bat. Lau jokalarik *arma*-k dituzte eta bosgarrena lasterkaria da. Alderik alde zeharkatu behar du joko eremua *jugger* izeneko pieza dagokion lekura eramateko. Joko eremuak forma oktagonala du eta belarrezkoa izaten da. Arima Galduak taldea Bergarako San Martin ikastetxean entrenatzen da, domeketan.



Jessica Ots, *jugger*-a eskuan, taldekideek bidea zabaltzeko zain. ARIMA GALDUAK



JOSE ANTONIO OJANGUREN

Urteroko txangoa, Gernikara

Goiena komunitatea / Xalbadorpe elkarte / ELGETA

Aurten ere hutsik egin gabe Elgetako erretiratu taldea Gernikako azoka egun handian izan da. Ohikoa dutenez, urriko azken astelehenean egin zuten txangoa. Jende asko zegoela esan dute. "Aukeran, askotxo", zehaztu dute. Gaurko, berriz, gaztaina-erre jana antolatu dute.

Intxortako Lehoiak lagunarteak egitasmo ugari urte berrirako

Ekitaldia balantze ekonomiko positiboarekin amaitu du Intxortako Lehoiak lagunarteak. Urteko batzar orokorrean azaldu zuten bi irteera egingo dituztela udaberrian: martxoan Valladolidera gizezkoen taldea animatzera eta apirilean Logroñora emakumezkoak babestera. "Ekainean Oñatin egitekoa den Zuri-gorri Egunean izango gara, eta baita ere lagunarten topaketan, Segovian. Uztailen, urteroko senidetze festa egingo dugu Palentzian Guardo lagunartearekin". Bufandak eta kamisetak aterako dituztela ere jakinarazi dute. Bazkide kuotak dira: umeak 10 euro, gazteak 25 euro eta helduak 50 euro.

Mahai-futbol txapelketa Ozkarbin azaroaren 15ean

Hiru kategoriako mahai-futbol txapelketa antolatu du Ozkarbi elkarteak. Azaroaren 15ean jokatuko da eta irekia da herritar guztiendako. 17:30ean, 7-12 urte bitarteko neska-mutikoen txapelketa egongo da jokoan; 18:30ean, 12-16 urte bitarteko gazteena; eta 19:30ean, helduena edo 16 urtetik gorakoa.

Lehenengo aldia da Ozkarbi elkarteak Elgetako mahai-futbol txapelketa antolatzen duela, eta lau sari daude jokoan: bi lagunendako afaria, bi botila ardo eta gazta, bi botila xanpain eta sorpresa bat.

Izen-emateak egunean bertan egin beharko dira. Prezioa izango da lau euro bikoteko.

OHARRAK

Gaztainak eskolan

Gaur, barikua, 15:00etan, eskolako aterpean.

Pilota jaialdia

Bergarako pilota sailaren jaialdia bihar, zapatua, 16:00etan frontoian.

Irteera bertan behera

Familiei zuzenduta mendi taldeak domekan egitekoa zuen irteera ez da egingo.

PILOTA TXAPELKETA

PARTIDUAK, GAUR, 19:30EAN

Sergio Bouzas-Jose Mari Zubiaurre /
Zigor Martin-Gorka Bolinaga

Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta /
Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar

PARTIDUAK, GAUR, 22:20EAN

Andoni Elorza-Oskar Sarasua /
Txomin de Vega-Diego Cantabrana

Iker Valle-Etor Garate /
Eneko Ormaetxea-Alain Valle

Kaleraino jaitsiko da mendia datorren astean

'Mendia eta natura' argazki lehiaketako lehen saria oñatiar batek irabazi du lehenengo aldiz, Alberto Muñozek. Argazkien erakusketaz gain, filmak eta dokumentalak ere egongo dira astelehenetik aurrera, Aloña Mendiko mendi sailak antolatuta


Oihana Elortza OÑATI

Hemen da azken urteetan hutsik egiten ez duen mendi astea. Eta poztasun berezi batekin hasiko dute, gainera, aurtengo argazki lehiaketako lehen saria oñatiar batek irabazi duelako, Alberto Muñozek. "Ez da inoiz gertatu orain arte. Gainera, askotan entzun izan dugu maila handiko argazkilariak etortzen direla eta zaila dela herritar batek horrelako sari garrantzitsu bat irabaztea. Ba, aurtengo gertatu da, oñatiar baten argazkia izan da onena epaimahaiko kideendako", dio, pozik, Aloña Mendiko mendi saileko Mikel Oterok.

Nazioarteko lehiaketa

Mendi ingurunea atalean izan da saritua Alberto Muñoz. Atal horretako Oñati saria berriz, Unai Agirrereendako izan da; *Gizakia mendian* ataleko sari bera eman gabe gelditu da.

Joan den urtean baino lan gehiago aurkeztu dira aurtengo



Alberto Muñozen *Esnatzea* izeneko argazki irabazlea. ALBERTO MUÑOZ

argazki lehiaketara. 60 argazkilarik 300 argazkitik gora aurkeztu dituzte. "Bartzelonako, Gernikako, Bilboko, Gorlizko eta Zumaiaiko argazkilariak dira saritutako gainerakoak, baina Frantziakoak, Belgikakoak, Herbehereetakoak, AEBetakoak, Indiakoak, Indonesiakoak, Kazakhstangoak, Brasilgoak eta Espainiakoak ere aurkeztu dira. Kalitate handiko argazkiak ekarri dituzte", dio Oterok.

Oñatiarrak

Aurkeztutako argazkien artean 40 aukeratu ditu epaimahaiak eta horiek dira erakusketan egongo direnak. Erakusketa horrekin hasiko da, gainera, aurtengo mendi astea. Betiko moduan, dokumentalak ere egongo dira eta zineklubaren laguntzarekin film bat ere ekarriko dute. "Ikusiko ditugun lanen artean daude, esaterako, Jon Agirrek eta Iñaki Mendizabalek iaz AEBetan eskalatzen izandako irteeran hartutakoak", gehitu du Mikel Oterok.

Federatuen txartelak

Federatuen txartelak berritzen ari da, bide batez, mendi saila. "935 oñatiar daude federatuta. Horietatik askok, gainera, mundu mailako estaldura dute. Oñatiar asko joaten dira hara edo hona mendian ibiltzera", dio Oterok. Azaroaren 19an eta 20an Aloña Mendiko bulegoan egongo dira berritzeko.

Ekintzen egitaraua

Azaroak 11

- **Erakusketa.** Argazki lehiaketara aurkeztutako hainbat lan ikusgai egongo dira azaroaren 24ra arte. 18:00etatik 20:00etara.

Azaroak 12

- **Bizipenak dokumentala.** Drangnag-ri-ren (6.801 metro) hego mendebaldeko arista. 19:00etan.

Azaroak 13

- **El viaje proiektzioa.** Juanjo San Sebastian. 19:00etan.

Azaroak 14

- **Free solo filma.** Zineklubean, 20:00etan.

Azaroak 15

- **Sari banaketa.** Argazki lehiaketako sari banaketa. Ondoren, *AEBetako eskaladak* lana, Jon Agirrerekin eta Iñaki Mendizabalekin.

Oharra: Kultura etxean dira ekitaldi guztiak.



IMANOL SORIANO

Udalaren aitortza Aitor Arregiri

Aitortza "xume eta goxoa" egin dio Udalak Aitor Arregi zinemagileari *La trinchera infinita* filmaren emanaldietako baten aurretik. Joseba Lasagabasterrek eskainitako bertsoa plaka batean jaso zuen, eta alkatearen eta kultura zinegotziaren hitzak ere izan ziren ekitaldian. "Eskertuta" agertu zen Arregi. Filma 1.098 lagunek ikusi zuten Oñatin.

Ikusi Makusi antzerki taldeak prest du antzezlan berria

Remendando males de amores du izena Ikusi Makusi antzerki taldearen lan berriak eta datorren astean, eguaztenean, izango da estreinaldia, Santa Ana antzokian, 18:00etan. Emanaldi hori, baina, beti egin ohi duten moduan, Pake Lekuko bazkideendako izango da bakarrik. Ondoren egingo dituzte saio irekiak.

Eta antzezlan horrekin bukatuko da Pake Leku elkartearen aurtengo kultura astea. Baina asteburuan ere izango dira ekitaldiak. Gaur, egubakoitza, adibidez, Oñatiko Aloña eta Mutrikuko Anai Arte abesbatzen kontzertua egongo da Santa Anan, 18:00etan. Bihar, ordu berean, Potx magoa, Pake Lekun.

Joseba Arregiren askatasuna eskatu du udalbatzak aho batez

Joseba Arregi preso oñatiarra aske gelditzeko eta hori gauzatu bitartean etxera hurbiltzeko eskaerak jasotzen zituen Sarek urriko osoko bilkuran aurkeztutako mozioak, eta udalbatza osatzen duten alderdi biek onartu zuten, aho batez. Sareko hainbat kide osoko bilkuren aretoan izan ziren eta osoko bilkura bukatu zenean hitza hartu zuten eskerrak emateko. "Eskerrik asko, benetan, eta animo, hemendik aurrera ere denon indarrak beharrezkoak izango dira eta", esan zuen Ana Mari Markuletak guztien izenean. Sare herri plataformak aurkeztutako mozioa izan zen urriko osoko bilkuraren puntuetako bat.

Talde ekar-eragileei buruzko formakuntza saioa Elkar Hezin

Goiena komunitatea

Elkar Hezi / ONATI

Azaroaren 12rako, arratsaldeko seietan, talde elkarreragileei buruzko formakuntza saio teoriko-praktikoa antolatu dugu. Bereziki, jarduera arrakastatsu honetan gidari-dinamizatzaile bezala jardutean honek bete behar duen funtzioa izango dugu hizpide. Orain arte Tee-etan parte hartu duten dinamizatzaileak, aurrerantzean egiteko asmoa dutenak zein gaiarekin interesa duen edonor gonbidatuta dago. Edozein heldu boluntario izan daiteke dinamizatzailea.

Saioari buruz gehiago jakin gura izanez gero: idezkaritza@elkarhezi.eus.



Olapotoko zubia, Olakua eta Ugarkalde auzoen artean. O.E.

Bidegorria zuzen, Olapotoko zubi gainetik

EH Bildu eta EAJ, alderdi biak daude ados proiektuarekin eta hori gauzatzeko lanean jarraitzeko asmoa agertu dute biek. Udalak egindako proiektua ikusita, teknikoki posible dela esan du Aldundiak, eta errepide zati biak nola lotu dago aztertze

Oihana Elortza OÑATI

Kaletik Olabarrieta auzorako bidean, buelta oso bat egiten du bidegorriak Olapoto parean, eta, zubiak eraberritzeko lanak aprobetxatuz, zati horretan bidegorria zubitik pasatzeko lanak egin gura ditu Udalak. Horixe proposatu dio Aldundiari, eta proiektua teknikoki egingarria dela erantzun dio Diputazioak Udalarari. Errepideen arteko lotura nola egin aztertu behar dute orain, baimena erabatekoa izan eta lanak egiteko.

Arriskua

Udana azpitik Olakua auzora bitartean dauden lau zubien eraberritze lanak ari da egiten orain Foru Aldundia, eta lan horiek aprobetxatu gurako lituzke Udalak bidegorriaren luzapena egiteko; errepidea itxita dagoen bitartean egitea, alegia. "Une honetan, Olabarrietatik kalerako norabidean 775 metro egiten ditu bidegorriak errepide kontra eta proiektua

da beste 25 metro gehitzea bide zuzenari, kaleko bidegorriarekin batzeko", azaldu du Xabier Igartua zinegotziak.

Igartuak gaineratu du arriskua ikusten dutela tarte horretan, eta hori saihesteko gura dutela egin bidegorria zubitik: "Zati horretan bidegorriak buelta bat ematen du eta askok zuzen egiten dute zatitxo hori, eta arrisku hori ikusita egin diogu proposamena Aldundiari".

Alderdi jeltzaleko udal taldeak ere ondo ikusten du proiektua. "Orain, hainbat herritar zuzen joaten dira eta arriskutsua da puntu hori, bai. Guk ere ondo ikusten dugu proiektu hori. Harremanetan jarraituko dugu", adierazi du Ainhoa Galdosek.

EGUN, 775 METRO EGITEN DITU ZUZEN BIDEGORRIAK, ETA BESTE 25 METRO GEHITUKO LIRATEKE

Irailetik dago Aldundiarekin harremanetan Udalak eta Igartuak azaldu duen moduan, hasieratik proposatu zioten bidegorriaren proiektua: "Ingeniaritza enpresa batek proiektua egin du eta hori aurkeztu diogu Aldundiari. Bilerak egiten dihardugu. Oposizioak ere garbi ikusten du proiektua eta uste dugu hori lortzeko lanean jarraitu behar dugula, teknikoki posible da eta. Kostua Udalak hartuko luke".

Epe barruan

Zubiak eraberritzeko lanen inguruan, Xabier Igartuak azaldu du martxa onean doazela eta epeak betetzen ari direla. Lehen fasean, Udana aldera dauden zubiak indartzen ari dira eta bigarrenengo egingo dituzte kale aldera dauden beste zubietako lanak. Hain zuzen ere, Aldundiaren baimena garaiz etorritz gero, epe horretan, fase horretan egin gurako lituzke lanak Udalak, "herritarrei ahalik eta endredo gutxien sorrarazteko".

Herritarren ekarpenak jaso gura ditu EAJk aurrekontuetarako

Proposamenak jasotzeko bideak zabaldu ditu EAJko udal taldeak: posta, telefonoa eta batzokiko buzoia

O.E. OÑATI

Oñatiko EAJko udal taldeak jakinarazi du lantzen ari direla 2020ko aurrekontuak, hauteskunde programan jaso zituztenetatik lehentasunezkoak direnak, eta herritarren ekarpenak jasotzeko bideak zabalik jarri dituztela: Batzokiko buzoia, pnvonati.partaidetza@gmail.com helbide elektronikoa eta 688 60 21 00 udal taldearen Whatsapp zenbakia.

EAJko udal taldeak prentsa oharrean dio "inbertsio txikien bidez oñatiarren bizi kalitatea

hobetzeko aukera ematen edota beste erakundeetatik dirulaguntzak izan ditzaketen proposamenak" lehenetsiko dituztela beren ekarpenetan, eta gaineratu du 2020an ez dela inbertsio handirik egiteko aukerarik: "Udalaren egoera ekonomikoa dela eta, kiroldegia eraberritzeko konprometitutakoetatik harago ez da izango aurten inbertsio handirik egiteko aukerarik". Lantzen ari diren proposamenen artean daude: tokiko merkataritza, Euskadi Lagunkoia eta Azkoagain konpontzeko laguntzak.

Errekaldekoek Elkar Hezin bozkatuko dute hemendik aurrera

Errekalde auzoko hauteskunde mahaia Elkar Heziko eraikineratoki aldatu dute eta aurreantzean han bozkatuko dute orain arte Errekaldeko eskola txikian bozkatzen zuten herritarrek. Domekan egingo diren Espainiako Gorteetako hauteskundeetan izango da aldaketa.

Duela urte batzuk, bi hauteskunde mahaia zeuden Errekal-

doko parbulario zaharrean. Baina horko zentsuan jaitziera egon zen eta bi mahai egotetik bakarra egotera pasa ziren. Orain, mahai hori tokiz aldatzea erabaki dute eta Elkar Heziko eraikinean egongo da aurrerantzean, hango beste hirurekin batera. Beste eraikina baino askoz irisgarriagoa da bigarrenena, askoz erosoagoa kutzak eta behar den materiala eramanez berriz bueltan jasotzeko.

Domekan hamabost mahai egongo dira lau gunetan.



NIRE USTEZ

MIEL GURIDI

Bejondeizuela!

Zenbatetan gertatzen da lan ikaragarriarekin antolatutako ekimena gauzatu eta, egun horretan bertan, aurreikusi gabeko beste gertakariaren bat suertatu eta komunikabideetan toki handiagoa hartu. Bai, atera da gurea, baina ez du izan nahi genuen oihartzunik.

Bada, azkenaldian erretiro duin baten alde borrokan ari direnei antzerako zerbait gerta zaiela iruditzen zait. Kataluniako gorabeherak, hauteskundeak, eta abarrek aurre hartu eta, neurri batean, Madrilera egindako martxa hori zokoratu egin dute.

Lerro hauek erabili nahiko nituzke egiten ari diren lana goraiatu eta eskertzeko. Izan ere, lehenago edo geroago, egoera horretara iritsiko gara gehienok. Benetan harrigarria da belaunaldi horietako pertsonak erakutsi duten eta erakusten duten kementa. Eurok, euskarazko hezkuntzarik ez zegoen tokian, ikastolak sortu eta indartu zituzten; eurok, ezer ez zegoen tokian, kooperatiba mugimendua sortu eta indartu zuten; eta horrela hainbat eta hainbat adibide. Bejondeizuela!



Sharon Stoner talde oñatiarra, disko berrirako ateratako argazkian. KEPA BORDES

Diskoa kaleratzeaz bat, aurkezteko eguna gaur

Zazpi urteko etenaldiaren ostean, 'Erraietatik' disko berria sortu du Sharon Stoner taldeak, eta gaur atera da kalera. Diskoaren aurkezpena ere gaur egingo dute, gaztetxean. Broken Legacy taldea ere arituko da oholta gainean, 22:00etan hasita

Maialen Santos OÑATI

Hemezortzi urte pasa dira 2001ean hiru gazte oñatiarrek Sharon Stoner taldea sortu zutenetik. Ibilbidean zehar, Iñigo Ibarrondo abeslari eta baxu-jotzaileak, Mikel Zarketa gitarristak eta Egoitz Olalde bateria -jotzaileak hiru disko kaleratu dituzte. Lau garrena, *Erraietatik*, gaur atera da argitara.

Diskoaren aurkezpena ere gaur bertan egingo dute, Antixeneko gaztetxean. Gaueko hamarretan Broken Legacy taldea igoko da agertokira, atera berri duen XIX diskoko kantuak abestera. Horren ostean izango da Sharon Stonerren txanda, eta, abeslariak aurreratu duenez, askotariko kantuak izango dira entzungai: "Disko berriko kantuak jotzeaz gain, azken urteetako abestiak ere eskainiko ditugu, jendeak denetarik entzun dezan". Diskoa emanaldian bertan erosi ahal izango da, bost eurotan -biniloa hamabostean-, eta bi taldeak ikusteko sarrerak gaztetxean

bertan eskuratu daitezke, horiek ere bost eurotan.

"Ildo bereko" diskoa

2004an Debagoieneko Danbaka musika lehiaketako lehen edizioan parte hartu zuen taldeak, baita lehen saria eskuratu ere: diskoa grabatzeko aukera. Hala, 3.000 bira izeneko estreinako lana grabatu zuen taldeak. Ondoren etorri zen *13 taupada* diskoa -2008an kaleratutakoa, zehazki-. Hirugarrenak -*Puntu bakar batean elkartzen diren ertzak*- inflexio-puntua eragin zuen talde oñatiarrarengan. Azken horren baitako kontzertu multzoa eskaini zuten, baina gerora nor "bere proiektuetan" murgildu zela aitortu du Ibarrondok. Due-

BEDERATZI KANTUZ OSATU DUTE DISKOA; MELODIAK ETA RIFF POTOLOAK DIRA NAGUSI LAN BERRIAN

la bi urte itzuli ziren agertokietara; kontzertu gutxi batzuk eman zituzten, baina disko berririk ez, gaur arte. Zazpi urte pasa dira, beraz, azken diskoa kaleratu zutenetik.

Azken bi urteak eman dituzte *Erraietatik* lan berria prestatzen: "Grabaketa lanak 2018ko abenduan egin genituen, eta nahasketak gure kabuz egin ditugu".

Bederatzi kantuz osatutako diskoa dute orain esku artean; aurreko lanen "ildo" galdu bari. Ibarrondok azaldu duenez, urteetako "esperientziak" eragindako hobekuntzez gain, taldeko jarraitzaileek ez dute aurreko diskoekiko "aldaketa handirik" antzemango: "Riff potoloak eta melodiak nabarmenak izango dira lan berrian".

Kontzertu gehiago

Datorren ostiralean, azaroaren 15ean, Tolosan izango dute hitzordua: Bonberenea gaztetxean izango dira Letagin talde oñatiarrarekin batera.

Hamar egun Argentinan egin ostean, bagoaz bueltan Oñatira!

Buenos Airesen egin dugu egonaldiko lehen zatia, eta Bahia Blanca ezagutzeko aukera izaten ari gara orain

Goiena komunitatea

Ganbara Abesbatza / OÑATI

Azaroaren lehen iritsi ginen Argentinara. Bost egun egin genituen Buenos Aires eta La Plata hiriak ezagutzen, eta bertako toki kuttunenak bisitatzeke aukera izan genuen. Bereziki gustatu zitzaizkigun *El Caminito* kaleko etxe koloretsuak, eta *Ateneo* liburutegi bihurtutako antzokia ikusten ere izan ginen; izugarri gustatu zitzaigun. Hiru kontzertu egin genituen egun horietan zehar, eta, horietako batean, Buenos Airesen egin den Nazioarteko Abesbatzen jaialdiari hasiera emateaz arduratu ginen; guretzako, berezia izan zen oso. Hegazkina hartu eta Bahia Blancara lekualdatu ginen gero. Aste Nazionala ospatzen ari dira bertan, eta euskal tradizioarekin bat doazen ekintza mordoa antolatu dituz-



El Caminito kalean zehar. GANBARA

te. Irrikan gaude gaurko abesbatzen topaketan parte hartzeko.

Sekulako harrera egin digute bertakoek, oso lurralde eskuza-bala da. Itzultzeko penaz gaude, baina bidaia zoragarri hau amaitzeaz da... Domekatik aurrera Oñatin ikusiko dugu elkar!

Bihar egingo dute Oñatiko hamargarren Film Laburren Rallya

Hogeitalek hartuko dute parte goizeko zortzietan hasiko den rallyan. Hala, objektu bat, herriko hamar toki eta unean bertan emango zaien gai edo genero bat jarraituta osatu beharko dute gehienez ere hiru minutuko film laburra. Arratsaldeko zazpiak aurretik aurkeztu beharko dute lana, balekoa izan dadin. Ondoren, 21:30ean Santa

Ana antzokian izango da film laburren aurkezpena: lanak ikusteko aukera izango da bertan, eta sari banaketa ere egingo dute. Epaimahaikideez gain, publikoak ere izango du botoa emateko aukera, publikoaren saria emango baitute.

Antzokira joateko sarrerak bihar bertan eskuratu ahal izango dira, 16:00etan, gaztelekuan. Bestalde, gaztelekuan pantaila jarriko dute ekitaldia zuzenean jarraitzeko, eta *streaming* bidez ere jarraitu ahal izango da.

Mojategik hartuko du Mondra-Aloña derbia bihar, zapatua

Aloña Mendiko Erregional Preferenteko taldeak Mondra izango du aurkari asteburuan. Aurkariaren zelaia, Mojategik, hartuko du bi talde debagoien-darren arteko futbol derbia; zapatuan, 16:30ean. Joan den asteburuan Zumaian irabaztetik dator Aloña, eta, hain zuzen, sailkapeneko bigarren postuan dago hemeretzi punturekin.

Alkideba-Ointxek eta Aloñak Iturripen jokatu dute derbia

Bi saskibaloit talde debagoien-darrak nor baino nor gehiago izango dira bihar, zapatua, 18:30ean. Mekalki Aloñak aurkariaren etxean jokatu du: Iturripen kiroldegian, 18:30ean. Mailaz igo denetik ez du garai-penik lortu talde oñatiarrak. Joan den asteburuan galdu egin zuen Tabirako Baqueren aurka etxean jokatu dute derbia.

GOIENA TELEBISTA

UDAZKENEKO PROGRAMAZIOA



HALA BAZAN
EGUENETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN

Arrasate Telebistaren arboan arakatu eta 1990. urte buelta harteko gatazka, aldamikapen eta protestei eskainitako izango da humengo saioa.


INTSUMISIOA, KUTSADURA...
Garai haietan hainbat lan gatazka zeuden indarrean, bai enpresetan, batetik, baina suhiltzaileak eta ospitaleko langileak ere ari ziren protestan. Honekin batera, intsumisioaren gara puri-purian zegoen, eta beste hainbat protesta ere izan zen, Deba ibaiaren kutsaduragatik Eguzkik deitutakoa, azokaren ibieraren kontra egindakoa, Gorkoko Gerraren kontrakoa eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldekoak. Bitxiren bat ere bai, Ferizalekuo zarata zela-eta umeek egindakoa, adibidez.



HARIRA
ELKARRIZKETA (HAMABOSTEAN BEHIN)
MARTITZENETAN 21:30EAN
EZTABAIDA (HAMABOSTEAN BEHIN)
MARTITZENETAN 21:00ETAN



ALBISTEAK
ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
14:30/16:15/17:00/17:45



ELKARRIZKETTAP
EGUAZTENETAN ETA EGUBAKOITZETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN



GIPUZKOAKO BERTSOLARI
TXAPELKETA 2019
EGUAZTENETAN ETA EGUBAKOITZETAN
21:00ETAN ETA 23:00ETAN



HARMAILATIK
ASTELEHENETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN



HUHEZINEMA
EGUENETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN



OSOKO BILKURAK
ARRASATE, OÑATI ETA BERGARA
ZAPATUETAN: 19:00ETAN
DOMEKETAN: 12:00ETAN ETA 22:00ETAN



HEMEN DEBAGOIENA
ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
18:00/20:00/22:00
EGURALDI IRAGARPENA EGUENETAN
BIDALI ZURE ARGAZKI ETA
BIDEOAK **688690007**

goiena
Zu hemen zaude.

"Ez nuen gura Behobiak denboraldia mugatzerik"

MIREN APRAIZ ATLETA

ATLETISMOA Antxintxika krosean debagoiendar onena izan denak –bigarren sailkatuta– duatloi denboraldia du begiz jota: "Lasterketetan aurrean ibil naitekeela ikusi dut"

Xabier Urzelai ARRASATE

Miren Apraizek (Arrasate, 1984) saskibaloia atletismoarekin ordezkatu zuen duela urtebete, eta errepideko bizikleta gainean ere geroago eta gusturago dabil. Lizarrako eta Vianako duatloiak irabazi ditu eta datorren urtean Saltokiko maillota defendatuko du Mikel Mujika mutil lagunarekin batera. Domekan, Behobia-Donostian, irteera puntuan egongo dira.

Azkenaldian, aurrean zabilta herriko lasterketetan. Zein izan da honaino iristeko egin duzun bidea?

Gazte-gaztetatik saskibaloian jokatu izan dut. Lehenengo Eskoriatzan eta ondoren Gasteizko Txapeldunak taldean. Azken urteotan, baina, saskibaloia eta atletismoa tartekatuta izan ditut, eta iaz saskibaloia uztea erabaki nuen, aukeratu beharra zegoen.

Eta hor hasi zinen emaitza onak batzen?

Hori da, bai, serioago heldu nion atletismoari. Korrika beste barik egin beharrean txukun entrenatzen hasi nintzen eta segituan iritsi ziren emaitzak. Herri mailako lasterketetan podiumera igotzen hasi nintzen: Antxintxika krosa, Oñati-Arrasate lasterketa, Santamas krosa... Gainera, Oñatiko 10 kilometroko proban antolatzaileek lasterketan parte hartzera gonbidatu ninduten, eta, modu batean edo bestean, niretako errekonozimendu moduko bat izan zen. Azken batean, Euskal Herriko korrikalari onenen artean lasterketa batean esku hartzeko aukera izan nuen, eta oso gustura geratu nintzen emaitzarekin –bosgarren izan zen–.

Nahiz eta hasieran zalantzak izan zenituen, ala?

Bai, halaxe da. Antolatzaileen partetik proposamena jaso nuen pentasatu egin behar nuela erantzun nien. Batetik, erakargarria zen, baina bestetik, ar-



Miren Apraiz, joan den zapatuan, Antxintxika krosaren helmugan. IMANOL SORIANO

"IAZ, SASKIBALOIAREN ETA ATLETISMOAREN ARTEAN AUKERATU BEHAR IZAN NUEN, DENA EZ ZEN POSIBLE"

dura apur bat ere ematen zidan, maila oso oneko korrikalarietara elkartuko nintzelako. Hala, gertukoek konbentzitu ninduten. Lasterketa horretan gutxienezkoa zela azken postuan geratzea, aukeratu artean egotea hutsa saria zela, eta halaxe zen. Ondoren, bosgarren sailkatu izanak poztasuna eman zidan. Egia da, baita ere, denboraldi amaieran nengoela eta ordurako atseden hartzea behar nuela.

Korrika bai, baina iaz errepideko bizikletarekin ere hasi zinen.

Bai; betidanik gustatu izan zait mendiko bizikletan ibiltzea, eta banuen errepidekoa probatzeko gogo. Gustura nabil, eta beti korrika ibili beharrean, egin ditudan duatloietan gozatu egin dut. Aurtengo denboraldian, hor jarriko dut indarra, duatloietan. **Zein izan da orain arte egin duzun lasterketarik bereziarena?**

Azpeitia-Azkoitia lasterketa, seguruenik. Batetik, oso maila oneko atleten artean bosgarren sailkatzea lortu nuelako eta, bestetik, Mikel, bikote-laguna, ezagutu nuelako; kar, kar, kar. **Domekan Behobia-Donostia lasterketako irteera puntuan egongo zarete biok.**

Iaz baino marka hobea egin gura dut [1.27], baina oraindik denboraldiaurrean nago, berandu samar hasi naiz, lasai, otsailean egon gura dudalako ondo, duatloietara begira. Behobia-Donostian ondo egoteko duatloi denboraldia baldintzatu behar nuen, eta ez nuen halakorik gura. Baina, hala ere, iazko marka ontzea espero dut.

Ez duzue urte makala Mikelek eta biok aurretik.

Ez, urte bete izango dugu. Mikel Hawaiiko ironmanerako sailkatuta dago, eta nik Euskal Herriko duatloi zirkuitua egitea dut buruan. Hau, azken batean, bizitza estilo bat da, eta biondako da lagungarri bikotea ere saltsa honetan sartuta egotea: Ordu asko eskaintzen dizkiogu kirol jarduerari, elkar ulertzen dugu, tarteka elkarrekin entrenatzen gaitezke...


Berrehandik gora debagoiendar etzi, Behobia-Donostian

ATLETISMOA Iaz, Endika Donnay (1.09) eta Maider Uribe (1.23) izan ziren Debagoieneko atleta azkarrenak

X.U. ARRASATE

Azken urteotan egonkortu egin da lasterketan esku hartzen duten ibarrekoen kopurua. Duela urte gutxi, zenbatekoa handiagoa zen –400eko kopurua gainditu izan da–, baina iaz, esaterako, ibarreko 240 korrikalarik lortu zuten helmuga gurutzatzea.

Eta korrikalari guztien artean Endika Donnay arrasatearra –1.09, sailkapen orokorrean 31. postuan– eta Maider Uribe bergarra –1.23, sailkapen orokorrean 16. postuan– nabarmendu ziren. Bero egin zuen lasterketa, eta Donnayk ez zuen lasterketa gustura amaitu: "Ordu eta zazpi minutu egiteko gogoarekin nentorren, baina ez dut asmatu, ez naiz eroso sentitu eta uste baino sentsazio okerragoekin amaitu dut". Uribe, berriz, pozarren zegoen, lasterketa konpainian egin eta gozatua hartuta.



Donnay, iaz, helmugan. I.S.

'Harmailatik' berezia

Urtero moduan, GOIENAREN lantaldea lasterketaren nondik norakoak jasotzen egongo da; sarean, egunean bertan kronika, argazki galeria eta bertakoen sailkapena egongo da. Astelehenan, berriz, saio berezia (21:30).

Anaitasuna liderrari ahulguneak bilatzen ahaleginduko da UDA

FUTBOLA Gol gehien egiten dituen eta gutxien jasotzen dituen kontrarioa izango du aurrean Aretxabaletak

X.U. ARRASATE

Ohorezko erregional mailan lehenengo postuan dagoen Anaitasunak orain arteko zortzi jardunaldietatik bakarrik galdu du –bosgarren dagoen Urolak 2-1 irabazi zion laugarren jardunaldian–. Partiduak irabaztetik harago, baina, orain arte lortu dituzten zenbakiak erakusten dute Anaitasunak ahulgune gutxi dituela. Partiduko, batez beste, hiru gol sartzen dituzte –24 gol sartu dituzte zortzi partidutan–, eta hori bakarrik ez, defentsa lanean ere eurak dira serioenak, bost gol baino ez dituzte eta jaso.

Hala, talde horri aurre egiten ahaleginduko da domekan Aretxabaletak (16:30, Ibarra). Larburren mutilek 4-0 galdu zuten joan den astean Hernanin, baina aretxabaletarrak etxean sendotasuna erakusten dabilta.



UDA, Ordiziaren kontrakoan. GOIENA

Bergara eta Mondra, kanpoan

Bergarak eta Mondrak, berriz, sailkapenaren erdian dauden Beti Gazteren eta Zarautzen zelaian jokatu dute. Bai mahoneroak eta baita zuri-moerak ere sailkapenaren atzealdean daude, garaipen bakarrarekin.

Basque Country K-1 Torneoa Eskoriatzan

BORROKA ARTEAK Bihar, zapatua, kick boxingarekin antzekotasun handia duen K-1 Txapelketa egingo dute Joseba Iñurrategi pilotalekuan. Guztira, 50 borrokalari batuko ditu torneok; Japoniako txapelketa baterako txartelak daude jokoan

Xabier Urzelai ARRASATE

"Iaz Balmasedan egin zuten txapelketa hau, eta orduan 40 borrokalariarekin jendeak esan zuen hitzordu arrakastatsua izan zela. Zapatuan, berriz, Eskoriatzan 50 borrokalari batuko dira, bi ring jarriko ditugu Joseba Iñurrategi pilotalekuan eta ikuskizun polita egotea espero dugu", dio Rafa Carrietek.

Hitzordua antolaketan hainbat eragileren lana dago: Bai Euskarari, Euskal Herriko K1 Basque Country Federakuntza, EHK-1F taldea, Eskoriatzako Udala, eta Buddha Fight Wear: "Sarrera 10 eurokoa izango da, azken batean, anbulantziak, ringak, epaileak... Horiek gastu bat dakarrelako. Gainera, parte hartzaile gehien duten kategorietan sari potoloa egongo da, Japonian -2020an- egingo duten K-1 txapelketa baterako bidaia eta txartela egongo da-eta jokoan.

Pisaketa 09:00etan

Borrokalariak Benta Motz Berri tabernan pisaketari egin beharko diote aurre: "Goizetik gura dugu *show*-a antolatu, eta pisaketan *face to face* edo aurrez aurrekoa egingo dugu. Pisua arabera kategoriak antolatuko ditugu, eta borrokaldiak 11:00etan hasiko dira.

Debagoieneko ordezkari bakarra Leire Rato izango da, Atama taldekoa, beste borroka arte batzuetan ere nazioarteko txapelketetan zailduta dagoena -munduko hirugarrena da, eta baita Espainiako txapeldun ere-: "Mikel Belokik, berriz, ezingo du etxean parte hartu, oraindik lesionatuta dago eta", dio Carrietek.

Guztira, 17 klubetako ordezkariak izango dira bihar Eskoriatzako bi ringetan lehian: "Goiz eta arratsalde izango da txapelketa, goizean kanporaketak eta arratsaldean finalak.



Urri amaieran Oreretan izandako txapelketaren une bat. KENTHAI URBAN FIGHT

"Borrokaldi ikusgarriak ikusiko ditugu Eskoriatzan"

RAFA CARRIET ATAMA TALDEKO ORDEZKARIA

Atama taldeko ordezkari Rafa Carrietek K-1 borroka artearen gaineko xehetasunak eman dizkio GOIENARI.

Zer da, zehazki, K-1 borroka artea?

MMA borroka artearen barianteetako bat, kick boxingarekin antzekotasuna duena, baina hemen oinak ere erabil daitezke.

Kontaktua onartuta dago?

Bai, halaxe da. Borrokalariak babestuta sartuko dira ringera: kaskoa, zango-babesa eta eskularruak izango dituzte, baina borrokaldietan kontaktua izango da, bai. Jende ona dator eta saria oso erakargarria da, Japonian egingo dituzten txapelketetarako txartelak egongo dira-eta jokoan, bidaia eta guzti.

Indarra hartzen dabilen modalitatea da hau?



GOIENA

Bai; borroka arte osoa da, eta hori da jendeak geroago eta gehiago eskatzen duena. MMA egin da azken urteotan ezagun, hiru enpresa pribatu indartsu daude mundu mailan borrokaldiak antolatzen dituztenak. K-1 modalitatean, baina, borrokalariak lurrera erortzen direnean epaileak eten egiten du borrokaldia.

Zelako konbateak izango dira?
Bi minutuko hiru round izango ditu borrokaldi bakoitzak.



la segurua da Aitor Fernandez domekan Uarkapen aurkeztu beharko dela. GOIENA

Hauteskunde mahaira aurkeztu, eta ziztu bizian San Mamesera

FUTBOLA Levanteko atezain Aitor Fernandez domekako hauteskundeetan mahaiko presidenteorde da

X.U. ARRASATE

"Ez dugu espero domekan Aitorrek partidua jokatzeko arazorik izaterik", dio Aitor Fernandezek. "Aitor apur bat gaindituta dago egoera honekin, telefonoa jo eta jo izan duelako egunotan". Izan ere, etzi, hauteskundeetan izango den anekdoten artean dago Levanteko atezain arrasatearraren kasua; alegia, 12:00etan Athleticeen kontra norgehiagoka duela San Mamesen, baina ordu batzuk lehenago, 08:00etan, hauteskunde mahaia osatzerakoan Fernandezek Arrasaten egon beharko duela, mahaiko presidenteorde da eta.

Anekdotak gainontzekoendako, baina buruhaustea arrasatearrendako, klubak jarritako errekurtsua atzera bota dute eta: "Aitorrek ez du arazorik 08:00etan hauteskunde mahaian egoteko. Badakigu azken ordukorik ez

badago presidentea azalduko dela; horrenbestez, Aitorrek ez luke arazorik izango Athleticeen kontrako partidua jokatzeko", dio aitak.

Begoña Balanzategi, presidente

Anekdotak honetako beste protagonista da Begoña Balanzategi arrasatearra. Hala, *superdeporte.es* webean jakin dute Fernandez Balanzategiren ordezkaria dela, eta Levanteko zaleak lasai egon daitezen, Balanzategik aurrreratu du domekan ez duela kalerik egingo: "Egon daitezela zaleak lasai, eta baita Aitor ere, nire obligazioa beteko dudalako", idatzi dute weben.

Eta buruhaustea, baita ere, Levante klubean: "Bigarren atezain Oier min hartuta dago, eta harrobiko atezainak ekarri beharko dituzte. Pentsa, horrek eragin zuzena izango du gainontzeko kategorietan".

PILOTA San Martin txapelketako finalak zapatuan Aramaion

Benjamin kategoriatik hasi eta kadete mailara arteko pilotariak jokatuko dituzte bihar, zapatua (16:00), San Martin txapelketako finalak Aramaion. Adurtzako, Legutioko, Lakuako eta Amurrioko pilotariak sailkatu dira finaletarako, baina kadete A mailan Aramaio ordezkari izango du: Julen Olaizola eta Markel Arriolabengoa.



lazko finaleko irudia. GOIENA

"Enpatikoak zergatik ez garen nahi nuen jakin"

ENEKO BARBERENA IDAZLEA

Ondarroako Udalak Elkar argitaletxearekin elkarlanean bultzatzen duen iazko Agustin Zubikarai beka irabazita, 'Afrikanerrak' eleberria argitaratu du Arrasateko idazleak

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Kontakizun futurista eta distopikoa egin du Eneko Barberenak kaleratu berri duen lanean, migrazioaren eraginei hainbat ikuspuntutatik begiratuta.

Ez zara idazten hasiberria, baina lehenengo eleberria duzu. Gustura?

Ez naiz hasiberria, baina halako entitatea duen lan bat aurkeztzen dudan lehenengo aldia da, eta, oro har, oso pozik nago.

Lehiaketa bat irabazteak bultzatu zaitu oraingoan liburua idaztera.

Bai, eta urte honetan zehar askotan pentsatu dut ez banuen konpromiso hori edukiko benetan zaila egingo zitzaidala aurrera egitea egitasmoarekin egunerokotasunak mila gauza ipintzen ditu-eta aurrean.

Distopia bat eraiki duzu, balizko gizarte bat, zelakoa?

Hari mutur bati heldu diot eta horrek 11 urtera gertatzen den zerbaitea eraman nau. Hari mutur hori gaur egungo egoera larri bat da, emigrazioarekin Mediterraneo itsasoan gertatzen dena. Hari eutsita heldu naiz etorkizuna apur bat irudikatze-
ra. Ez da nire ahalegina izan profeta lana egitea, gura nuena fikzio tresnak erabiliz hari bati tiratzea zen eta.

Emigrazioari, baina, ikuspegi ezberdinetatik begiratu diozu, ezta?



Eneko Barberena, argitaratu berri duen *Afrikanerrak* liburuarekin. TXOMIN MADINA

Bai; bereziki, gai horren aurrean guk egiten duguna aintzat hartuta. Dena ez da beltz edo zuri; bizitzaren beste hainbat alorrean moduan, tonu gris asko dago. Jabe naiz badagoela, oro har, laguntzen duen jendea, baina, era berean, indiferentzia handia dagoela uste dut, batzuentzako opor-leku eta beste batzuentzako tragedia-leku den itsasoan.

Europako Batasunak Afrika iparraldean inbaditu du, baina gerraren kontaketatik harago zoaz.

Istoria finean da zelan iritsi gaitezkeen batzuetan gauza ba-

tzuk egitera justifikazio ahulekin. Badago gerra bat, baina, batez ere, gerra horrek modu ezberdinetan eragiten dien pertsonak daude nobelan.

Indiferentziaren galderatik abiatuta eta erantzunen bila idazten hasi zinela esan izan duzu.

Hala da; batzuetan hurkoari gertatzen zaionarekin ez garela enpatikoak iruditzen zait, eta hori zergatik den nahi nuen jakin.

Hori horrela, Afrikan eta etorkizuneko Arrasaten kokatu duzu. Badu gaur egungo herriarekin antzik?

Bai eta ez. Arrasaten kokatu dut istorioa, uste dudalako Arrasate ezagutzen dudala eta detalletxiki konfiantza dudalako; hasieran, Donostian kokatzeko saiakera egin nuen, baina ziurrera jo nuen gero. Batzuek esaten dute Arrasateren antza duela; bada, ez dakit, beste toki batean ere gerta zitekeen.

Eider eta Aitor Arrasateko bikotea dira protagonistak. Arduratuta daude Afrikan gertatzen denarekin?

